

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Gipuzkoako Lurralde Historikoaren
Kontu Orokorra**

**Cuenta General del Territorio Histórico de
Gipuzkoa**

2017





AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURTZAPENAK.....	7
I. SARRERA.....	9
II. IRITZIA.....	11
II.1 Foru Sektore Publikoa osatzen duten erakundeek legea betetzeari buruzko iritzia.....	11
II.2 Foru Sektore Publikoa osatzen duten erakundeen Kontuei buruzko iritzia	12
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	13
III.A Gipuzkoako Foru Aldundia	13
III.A.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	13
III.A.2 Zerga-sarrerak	14
III.A.3 Ondasun eta zerbitzuen kontratazioa	14
III.A.4 Diru-laguntzak.....	16
III.A.5 Sorospen-zerbitzuak eta gizarte politiketako hitzarmenak	18
III.A.6 Langileria-gastuak	19
III.A.7 Ondarea	19
III.B Erakunde autonomoak	19
III.C Foru merkataritzako sozietateak	20
III.D Foru fundazioak.....	20
IV. FINANTZA ANALISIA	21
IV.1 GFAren aurrekontuaren emaitza doitua.....	21
IV.2 GFAren Diruzaintza Geldikina eta Zorpetzea.....	23
IV.3 Foru erakunde autonomoak, merkataritzako foru sozietateak eta foru fundazioak	23
IV.4 Ondorioa	24
IV.5 Aurrekontuaren egonkortasuna eta finantzaren iraunkortasuna	24
V. URTEKO KONTUAK	27
V.1 Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontuak.....	27
V.2 Foru erakunde autonomoen kontuak.....	30
V.3 Merkataritzako foru sozietateen kontuak.....	34
V.4 Foru fundazioen kontuak.....	36



ERANSKINAK	39
A Gipuzkoako Foru sektore publikoaren kontu bateratuak.....	39
B Gipuzkoako Foru Aldundia	41
B.1 Alderdi orokorrak	41
B.2 Aurrekontua, aurrekontuko aldaketak eta konpromiso-kredituak	42
B.3 Langileria-gastuak.....	44
B.4 Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa	46
B.5 Emandako transferentzia eta diru-laguntza arruntak eta kapitalekoak	47
B.6 Inbertsio errealak eta ibilgetua	53
B.7 Sarrerak, zordunak eta zerga-hartzekodunak.....	55
B.8 Transferentzia eta diru-laguntza arrunt eta kapitalekoek eragindako sarrerak.....	58
B.9 Ibilgetu finantzarioa eta aktibo finantzarioak	59
B.10 Zorra eta finantza gastuak	60
B.11 Zordun eta hartzekodun ez aurrekontukoak	62
B.12 Aurrekontu eta ondare emaitzaren arteko berdinkatzea	63
B.13 Kontratazioaren analisisa	64
B.14 Diru-laguntzen analisisa	68
C Foru erakunde autonomoak.....	70
C.1 Langileria-gastuak.....	70
C.2 Kontratazioaren analisisa	71
D Merkataritzako foru sozietateak.....	72
D.1 Ibilgetu ukiezin eta materiala eta epe luzeko hornidurak.....	72
D.2 Ibilgetuko inbertsioak eta izakinak	73
D.3 Epe motzeko finantza-inbertsioak.....	74
D.4 Zorpetzea eta finantza-gastuak.....	74
D.5 Langileria-gastuak.....	75
D.6 Hornidurak eta ustiapeneko beste gastu batzuk	76
D.7 Kontratazioaren analisisa	77
E Foru fundazioak.....	78
E.1 Langileria-gastuak.....	78
E.2 Moneta-laguntzak	78
ALEGAZIOAK	79
BOTO PARTIKULARRA	97



ABREVIATURAS	99
I. INTRODUCCIÓN	101
II. OPINIÓN.....	103
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad de las entidades que integran el Sector Público Foral	103
II.2 Opinión sobre las Cuentas de las entidades que integran el Sector Público Foral	104
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	105
III.A Diputación Foral de Gipuzkoa	105
III.A.1 Presupuesto y contabilidad	105
III.A.2 Ingresos fiscales.....	106
III.A.3 Contratación de bienes y servicios	106
III.A.4 Subvenciones	108
III.A.5 Servicios asistenciales y convenios políticas sociales.....	110
III.A.6 Gastos de personal	111
III.A.7 Patrimonio.....	111
III.B Organismos Autónomos	112
III.C Sociedades Mercantiles Forales	112
III.D Fundaciones Forales.....	112
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	113
IV.1 Resultado Presupuestario Ajustado de la DFG	113
IV.2 Remanente de Tesorería y Endeudamiento de la DFG	115
IV.3 Organismos Autónomos, Sociedades Mercantiles y Fundaciones Forales.....	115
IV.4 Conclusión	116
IV.5 Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera	116
V. CUENTAS ANUALES.....	119
V.1 Cuentas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.....	119
V.2 Cuentas de los Organismos Autónomos Forales.....	122
V.3 Cuentas de las Sociedades Mercantiles Forales	126
V.4 Cuentas de las Fundaciones Forales	128



ANEXOS	131
A Cuentas consolidadas del Sector Público Foral de Gipuzkoa	131
B Diputación Foral de Gipuzkoa	133
B.1 Aspectos generales	133
B.2 Presupuesto, modificaciones presupuestarias y créditos de compromiso	134
B.3 Gastos de personal	136
B.4 Compras de bienes corrientes y servicios.....	138
B.5 Transferencias y subvenciones corrientes y de capital concedidas.....	139
B.6 Inversiones reales e inmovilizado.....	145
B.7 Ingresos, deudores y acreedores tributarios.....	147
B.8 Ingresos por transferencias y subvenciones corrientes y de capital.....	150
B.9 Inmovilizado financiero y activos financieros	151
B.10 Deuda y gastos financieros	152
B.11 Deudores y acreedores no presupuestarios	154
B.12 Conciliación resultado presupuestario-patrimonial	155
B.13 Análisis de contratación	156
B.14 Análisis de subvenciones.....	160
C Organismos Autónomos Forales	162
C.1 Gastos de personal	162
C.2 Análisis de contratación	163
D Sociedades Mercantiles Forales	164
D.1 Inmovilizado intangible y material y provisiones a largo plazo	164
D.2 Inversiones inmobiliarias y existencias	165
D.3 Inversiones financieras a corto plazo	166
D.4 Endeudamiento y gastos financieros	166
D.5 Gastos de personal	167
D.6 Aprovisionamientos y otros gastos de explotación	168
D.7 Análisis de contratación	169
E Fundaciones Forales.....	170
E.1 Gastos de personal	170
E.2 Ayudas monetarias	170
ALEGACIONES	171
VOTO PARTICULAR	191



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURTZAPENAK

7/2008 FA 7/2008 Foru Araua, abenduaren 23koa, Gipuzkoako Hiri Hondakinak kudeatzeko 2002-2016 Plan Orokorraren Aurrerabide Dokumentua (2008-2016) onesten duena.

BEZa	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
BPG	Barne Produktu Gordina
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EBAO	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala
ENP	Enpresa
FA	Foru Araua
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia
GHK, SA	Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SA
GLH	Gipuzkoako Lurralde Historikoa
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
IEB	Inbertsioen Europako Bankua
IZFE	Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga
TE	Toki-erakundea





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta 2018rako Lanerako Programan erabakitakoari jarraikiz, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren (GLH) 2017ko ekitaldiaren Kontu Orokorraren fiskalizazioa mamitu du.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorrak informazioa eman behar du foru sektore publikoaren ekonomia, finantza eta ondarearen egoerari buruz, ekitaldiaren ekonomia eta ondarearen emaitzei buruz eta aurrekontuen likidazioari buruz; besteak beste, honako agiri hauek osatzen dute:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren urteko kontuek eta kudeaketa txostenak.
- Foru sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeen urteko kontuek.
- Foru sektore publikoaren bateratutako kontuak

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren foru sektore publikoa honako hauek osatzen dute:

- Foru Administrazioa, Foru Aldundian gorpuzten dena (GFA).
- Erakundeen administrazioa, ondoko foru erakunde autonomo hauek osatzen dutena:
 - Uliazpi Fundazioa, zeinaren xedea eta jarduera adimen ezgaitasun larria duten pertsonak eta haien senitartekoak artatzea den.
 - Kabia, gizarte zerbitzuak kudeatu, eman eta egikaritzea helburu duena.
- Merkataritzako foru sozietateak (guztiak ere GFAk % 100ean partaidetutakoak):
 - Informatika Zerbitzuen Foru Elkarteak, SA (IZFE, SA), foru eta toki administrazioari informatika zerbitzuak ematen dizkiona.
 - Bidegi-Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia, SA; sozietatearen xedea A-8 eta AP-1 autobideak, horien instalazio eta zerbitzuak mantendu, zaindu, eraiki eta ustiatzea da.
 - Etorlur, Gipuzkoako Lurra, SA, zeinaren xedea lurzorua sustatu, antolatu, urbanizatu eta jarduera ekonomiko, etxebizitza eta era guztietako ekipamendu publikoak besarkatuko dituen lurzorua saldu eta erostea den. Gainera, Gipuzkoako Lurralde Historikoan nekazaritza-lanetarako erabilgarria den lurzorua erosi eta kudeatzea ere helburu du.
- Hona hemen 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera Foru sektore publikoan barne-hartzen diren foru fundazioak:
 - Kirolgi Fundazioaren xedea da Gipuzkoako kirola sustatu eta garatzea, lehentasunezko arreta eskainiaz errendimenduko kirolari, bereziki babesletza publiko eta pribatuak erakarriz.
 - Sueskola Gipuzkoa Fundazioaren xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoa bitarteko iraunkorrek instalatzea suteen prebentzioari eta itzaltzeari eta beste gai osagarriei buruzko trebakuntzako eta prestakuntzarako; eta, oro har, salbamenduko gaietan adierarik zabalenean, zeinetan erreferente izan nahi duen.

Alderdi hauek aztertu ditu fiskalizazioak:

- Legezkoak: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, hornidura



eta zerbitzuak, diru-laguntzen emakida eta zuzenbide publikoko sarrerei buruzko arautegia.

- Kontularitzakoak: GFAREN kontuak, erakunde autonomoen kontuak eta merkataritzako sozietateen kontuak ezargarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu.
- Foru sektore publikoaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Lanean ez da jaso gastuaren eraginkortasunari eta efikaziari buruzko analisia. Hala ere, aurkitu diren hutsak «Barne kontroleko sistemai eta kudeaketa prozedurei buruzko gogoetak» epigrafean azaldu dira xehetasunez.

Erakunde autonomoek, merkataritzako sozietateek eta foru fundazioek dagozkien kanpo auditoretzako txostenak eginak dituzte.

II. IRITZIA

II.1 FORU SEKTORE PUBLIKOA OSATZEN DUTEN ERAKUNDEEK LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

1. GFAk uste du bertako Giza Baliabideetako Plan Estrategikoaren arabera, borondatezko erretiroagatik, ezintasun iraunkorragatik eta administrazio publikoko langile izateari uko egiteagatik 2017an 34 langileri guztira 1,1 milioi euroren zenbatekoan ordaindutako primak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsitako laneko irabaziak direla. Plan horrek ez du egiaztatzen Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 51. artikuluaen arabera, jokamolde horiek kaleratze kolektibo eta arrazoi objektiboengatik kaleratze edo kargugabetzeekin berdintzen utziko lukeen arrazoirik egon denik, zeinaren kalte-ordainak badauden PFEZetik salbuetsita, urtarrilaren 17ko 3/2014 FAREN 9. artikuluaen arabera (ikus B.3 eranskina).
2. GFAk bost kontratu iraungi ostean gizarte zerbitzuak ematen jarraitu du, 3,6 milioi euroren gastua dutenak, kontratazio-araudiaren arabera eskagarri zitezkeen esleipen prozedura irekiak saihestuta; prozedura horiek gerora abiarazi dira eta 2018ko eta 2019ko ekitaldietan esleitu dira (ikus B.13.2 eranskina).
3. Bertatik programaren gizarte zerbitzuaren prestazioa, guztira 717.756 euroren zenbatekoduna, esleipen prozedura irekiari dagozkion baldintzak saihestuta gauzatu da eta kontratazioko araudian finkatutako publikotasun eta lehia printzipioak urratuta.

BIDEGI, SA

4. Berariaz gaitutako kanpoko enpresa batek 2017ko ekitaldian hiru lanpostu izaera mugagabearekin zuzkitzeko egindako hautaketa euskarrizten duen dokumentazioak ez du egiaztatzen uzten berdintasun eta merezimendu printzipioak bete diren.

Epaitegi honen iritzira, 1etik 4ra bitarteko paragrafoetan zehaztutako ez-betetzeak alde batera, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Foru Sektore Publikoa osatzen duten erakundeek zuzentasunez bete dute 2017ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 FORU SEKTORE PUBLIKOA OSATZEN DUTEN ERAKUNDEEN KONTUEI BURUZKO IRITZIA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

1. Guztizko Diruzaintza Geldikina eta Ondare Garbia 2017ko abenduaren 31n 17,8 milioi euroan gehitu behar dira eta 43,4 milioi euroan murriztu, hurrenez hurren, ondoko doiketen ondorioz:

	Euroak milakotan	
	D. Geldikina 2017.12.31	Ondare garbia 2017.12.31
ERANSKINA		
B.5 Etxez etxeko zerbitzuaren 2017ko 4. hiruhileko gastuak	(2.466)	(2.466)
B.7.2 Zor fiskalak gauzatan biltzeagatik erakundeen konpromisoak	-	(40.928)
B.7.2 Zerga-zordun eta -hartzek., hornidurak kenduta, aurrekontuan islarik gabe.....	20.225	-
GUZTIRA	17.759	(43.394)

2. Ibilgetu material eta ukiezina, 2017ko abenduaren 31n 2.992,3 milioi euroren amortizazio kostu garbia izan duena, ez dago kontu-sail jakinetarako inbentario batean euskarritua, zeinaren kostu garbia guztira 1.941,8 milioi eurorena den; honenbestez, ezin jakin daiteke ondasun eta eskubide horien egiazko egoera (ikus B.6.2 eranskina).

ETORLUR GIPUZKOAKO LURRA, SA

3. Azkoitiko Intsausti eremuan egin asmo den sustapenaren zehaztugabetasun egoerak eta aditu independenteen balorazio-erakundearen aktibo arruntean balorazioaren zuzentasunaren gaineko ondorioz ematea eragozten du, 3,8 milioi eurorena dena (ikus D.2 eranskina).

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako salbuespenak salbuetsita, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Foru Sektore Publikoa osatzen duten erakundeek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2017ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan, alde batetik, jarduera ekonomiko eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzeari modu nabarmenean eragiten ez dioten hutsak adierazten dira; eta bestetik, kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozeduraren alderdiak.

III.A GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

III.A.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- GLHren 2017ko ekitaldiko Kontu Orokorrak ez ditu atxikitako partzuergoen kontuak txertatzen (Gipuzkoako Uren Partzuergoa, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Osabidezko Hezkuntza eta Lanerako Prestakuntzarako Partzuergoa); bai, ordea, GLHren Aurrekontu Orokorretan. Bestetik, atxikitako partzuergoen urteko kontuen auditoria egiteko GLHk duen obligazioari dagokionez, ez da egin Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari dagokiona.
- GLHko Kontu Orokorren 2017ko ekitaldiko Oroitidazkiak ez du ematen GFak hartutako konpromisoen berri goi-mailako sareko azpiegituren kostuaren % 33 finantzatzeari dagokionez, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralean aurreikusitakoak eta 7/2008 FA bidez onartutakoa (ikus B.5.4).
- 2017ko ekitaldi itxieran konpromiso kredituen egoerak aurrekontu fasean 4 milioi euroren zenbatekoa jasotzen du Anoetako futbol estadioko obrak finantzatzeko eta 5 milioi euro, Kontua diru-bilketarako sistema osoaren proiekturako; ordea, ekitaldi itxieran hitzartutako kreditu modura erregistratu behar lirateke, hurrenez hurren, 4 eta 3,9 milioi euroren zenbatekoan, ekitaldi itxieran esleitu baitzen (ikus B.2.2).
- GFak Inbertsio errealean kapituluan errepideak mantentzeko gastuak kontabilizatu ditu, 43,6 milioi euroren zenbatekoan, eta beste erakunde batzuentzat egindako lanak, 4,3 milioi eurorenak; ondarean kudeaketa arrunteko gastuen atalean erregistratzen dira, izan ere, kapitalizagarritzat jotzen ez diren eragiketak jasotzen ditu (ikus B.6.1).
- GFaren aurrekontuak 5,2 milioi euroren izendapenak kapitaleko diru-laguntzetan jasotzen ditu aurrekontu arruntean Pasaialdian egingo diren jardueretarako eta 10,2 milioi euroenak konpromiso kredituen aurrekontuan, proiektuen araberako xehakapenik izan gabe. Aurrekontuan guztizko 15,4 milioi euroren diru-izendapenetik 2,5 milioi euro hitzartu dira. Aurrekontuan jasotzea xehetasunez egin behar da, egikaritzari jarraipen bat egin ahal izateko.
- GFak GLHko hainbat udaletatik zaharren egoitzen zazpi eraikin jaso ditu, ondasunen eskualdaketa egiaz gauzatu bitartean erabilera-lagapenean daudenak, eta GFaren ibilgetuko zati direnak; horren kudeaketa Kabia erakunde autonomoari agindu zaio. Egoeraren Balantzeak ez du eraikin horien balorazioa jasotzen.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.A.2 ZERGA-SARRERAK

Atal honetan ondotik adierazitakoak azpimarratu nahi ditugu:

- GFAk 2017ko ekitaldian baja eman ditu iraungi direlako bost zorduni dagozkien zerga-zorrak, guztira 3,1 milioi euroren zenbatekoan, iraungitzea eragozteko zerga-araudian aurreikusitako jarduerarik batere egin ez dela; berebat, egoera berbera gertatzen da alde zurretik kobraezintzat jo ziren bi zordunekin, guztira 1,1 milioi euroren zenbatekoan, zerga-araudian aurreikusitako administrazioako erantzukizunaren deribazioa abiarazi ez dela.
- GFAk ez ditu banaketara meneratutako diru-bilketa modura aitortzen berandutza errekaratu eta interesen % 10,6, guztira 1,1 milioi euro egiten dutenak. Azken ekitaldian errepikatu den ehuneko hau antzina egin ohi zen balioespena da, banaketara meneratzen ez ziren zergek, orduan, eragiten zituzten kobrantzen kontzeptuan. Zerga hauek zehaztasunez identifikatu behar dira eta ez gutxi gorabeherako eran.

III.A.3 ONDASUN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Kontratazio espedienteak (ikus B.13.1)

2017ko ekitaldian esleitutako eta lehenagoko ekitaldian esleitu eta ekitaldi horretan egikaritutako kontratazio espedienteak aztertzetik honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

- GFAko sailek formula ezberdinak erabili ohi dituzte xede bereko espedienteetan “prezio” irizpidea balioztatzeko, erabilera hori arrazoitu gabe. Formularen erabilera berdindu behar litzatekeela uste dugu, aukera arrazoituz, eskaintzak balioztatzeko irizpideen araudiaren aurreikuspenei jarraikiz.
- GFAk prozedura ireki bidez esleitu du museoak osorik kudeatzeko kontratu bat (4. espediente), 2,2 milioi euroren zenbatekoan, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikotasuna eman dio; alabaina, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean ere argitaratu behar zatekeen, alderdi hori arautzen zuen Europako zuzentarauaren transposizioa indarrean baitzegoen.
- Obren kontratazio espediente batean (5. espediente), 226.369 euroan esleitutakoan, Segurtasun eta Osasun Plana Prebentzio, Su-itxaltze eta Salbamenduko zerbitzuburuak onartu du; ordea, Kontratazio organoak onartu behar du; berebat, ez da jaso Lanerako Programa onartu denik. Bestetik, ez daude espedienteetan ez zuinketaren aurretiazko akta, zuinketa egiaztatzeko aurretiazko akta, ez azken harrera akta; gainera, azken ziurtagiria ez du Kontratazio Atalak onartu.
- Guztira 551.501 euroren zenbatekoan esleitutako kontratazio espediente batean (6. espediente) Lanerako Plana eta Segurtasun eta Osasun Arkitekturako zerbitzuburuak onartzen ditu; ordea, Kontratazio Atalak onartu beharko zituzkeen.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Administrazio kontratazioko espedienterik gabeko gastua (ikus B.13.2)

Administrazioko kontratazio espedienterik gabe kontraturiko gastua aztertzean honako egoera hauek atzeman ditugu:

- Hiru kontratazio-espedienteren lizitazioa ez da behar hainbateko denboraz abiarazi esleipena aurreko kontratuek iraungi aurretik esleitu ahal izateko, nahiz horiek amaitu aurretik prestakuntza-ekintzak bideratu diren. Esleipena gauzatu arte egindako gastua 3,6 milioi eurorena izan da.
- Hamabost jarduera azaleratu dira, guztira 512.137 euroren zenbatekoan, zeinetan batzuetan lehia printzipioa ezartzea eskagarri den eta beste batzuetan, hori aplikatzea gomendagarria den; izan ere, horietako bakoitza ekitaldian zehar gauzatutako jarduera bati dagokion arren, finean gastu homogeneoak eta ekitaldi bakoitzean planifika daitezkeen gastuak dira.
- Ekitaldian 1,4 milioi euroren gastua eragin duten baso-lanak, GLHko hainbat eremutan egindako jarduerak hartzen dituztenak, zuzenean kontratatzen dira hemeretzi enpresarekin, kontratazio espedienterik egin gabe. Nahiz jarduera hauetako batzuk aurreikusi ezineko egoeren ondorio izan, gasturik handiena egoera homogeneo, planifikagarri eta eskaintzak eskatuta kontratazio prozedura bidez lizitatu daiteke.

Hitzarmenak

- Gizarte-politika sailak psikologoek kontratazioa Gipuzkoako Psikologoek Elkargo Ofizialarekin izenpetutako lankidetzak-hitzarmen baten babesean egiten du, arreta psikologikoa emateko hiru programatan esku hartuko duten profesionalak homologatzeko; 2017ko ekitaldian 1,1 milioi euroren gastua eragin du. GFAk Elkargoari eskatu behar lioke proposatutako profesionalak hautatzeko gauzatu dituen ekintzak egiaztatze, hitzarmenean aurreikusitakoa betez.
- GFAk bi hitzarmen izenpetu ditu bizikleta bideak eraikitze tokiko bi entitateen proiektu bana % 75 eta % 85ean finantzatzeko, guztira 1,1 milioi euroren zenbatekoan; bide horiek foru bideen jabari publikoan jasoko dira. Hitzarmen hauekin lotuta alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:
 - GFAREN eskumeneko diren obrak beste administrazio batek egiten baditu, kudeatzeko gomendio baten bidez izapidetu behar zatekeen, efikazia arrazoiengatik edo lan hori egiteko baliabide tekniko egokirik ez izateagatik; inguruabar horiek, baina, ez dira izenpetutako hitzarmenetan egiaztatu.
 - Hitzarmenetako batean, zeinetan GFAk 830.965 euro eman dituen, % 100 ordaindu da emakida ostean, une horretan obrak proiektua garatzeko fasean zeudelarik eta ez da egindako obrak justifikatzeko eperik zehaztu. Bestetik, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana zortzi urtetarako onartzen duen 2/2013 Foru Arauak lehentasunak bereizterakoan, bide-zati hau Plana berrikusi osterako uzten du eta ez du lehentasunen aldaketa justifikatzen.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- GFAREN eta Hazi Fundazioaren artean izenpetutako kudeatzeko gomendioa arautzen duen hitzarmenak 2017ko azaroaren 22an izenpetu zen eta urtarrilaren 1etik aurrera eragin zituen ondorioak. 2017ko ekitaldiaren zati handi batean prestazioak babestuko dituen agiri juridiko egokirik gabe gauzatu dira; honenbestez, hitzarmena gastua sortu aurretik izenpetzea gomendatzen da, 2017an 840.140 eurorena izan dena.

III.A.4 DIRU-LAGUNTZAK

Alderdi orokorrak

- GLHren diru-laguntzei buruzko Foru Arauak agintzen du bidaltzeko obligazioa dagoela Diru-laguntzen Datu-base Nazionalera diru-laguntzen deialdi eta emakida-ebazpenei buruzko informazioa. 2015eko uztailaren 9an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen Kooperaziorako Bitariko Batzordearen akordioa Estatuko Administrazioaren eta EAeko Administrazioaren artean eta bertan erabaki zen Kontzertuaren Batzorde Mistoak beharrezko diren erabakiak bideratuko dituela informazio-bidalketa hau gauzatzeko. Txosten hau idatzi dugun datan ez dira erabaki horiek hartu eta GFAk ez du Diru-laguntzen Datu-base Nazionalera arautegian aurreikusitako informazioa bidaltzen.

Bestalde, eta Europako araudiak agindutakoa betetzeko Diru-laguntzen Datu-base Nazional horrek eskatzen duen informazioa dela-eta, Estatu Kide bakoitzak estatuaren laguntza gaietan argitaratu beharreko edukiei dagokienez, uste dugu diru-laguntzen espedienteetan justifikatu beharko litzatekeela, hala dagokionean, Europako Batzordearen 1.407/2013 eta 651/2014 araudien aplikazioa, barne merkatuarekiko laguntzen bateragarritasuna dela-eta.

- Zenbait espedientetan ikusi dugu onuradunak ez duela eskagarria den kasuetan diruz lagungarri diren gastuak kontratatu aurretik hiru eskaintza eskatu izana egiaztatu (diru-laguntza izendunen 2, 4, 5, 8, 9 eta 13 espedienteak; diru-laguntza zuzenen 14. espedientea eta deialdien 1 eta 4 espedienteak).

Diru-laguntza izendunak (ikus B.14)

- 2017-2019 aldirako emandako 300.000 euroren diru-laguntza batean (1. espedientea) ez da onartu gauzatuko diren jarduera eta ekintza zehatzak jasoko dituen 2017ko ekitaldirako urteko ekintza plana; honenbestez, ezin da egiaztatu plana bete denik urtekoaren 100.000 euroren ordainketaren agiriarekin. Bestalde, aurreikusitako hitzarmenaren gaineko jarraipena egiteko lanak ere ez dira gauzatu, egindako ekintzen eta erabilitako baliabideen erabilera ebaluatzeakoak; honela, bada, diru-laguntzaren destinoaren justifikazioa enpresa onuraduneko langileek egindako orduak dira; ordea, emakida erabakian ez dago horren zuzentasuna egiaztatzen utziko duen inongo erreferenterik.
- GFAk bi diru-laguntza nominatibo eman dizkio enpresa banari (10 eta 11 espedienteak) guztira 300.000 euroren zenbatekoan, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenei zerbitzuak ematea finantzatzeko; laguntza hori enpresa onuradunen enpresa eta giza baliabideen



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

egitura partzialki finantzatzeko erabili da. Emakida aurretik ez da aurkeztu finantzaketa partzial hori justifikatuko duen aurrekonturik eta hitzarmenak ere ez du diru-laguntzaren zenbatekoa xehatzen ezta diru-laguntzari lotutako jarduerarekin erlazionatzen ere. Gainera, hitzarmenak aurreikusten du isilbidez luzatzeko aukera, betiere aurrekontuko zuzkidurarik badago; ezinezkoa da diru-laguntza bat luzatzea horretarako eskumena duen organoak gastua baimendu eta erabiltzeko berariazko ekintza gauzatu gabe.

Diru-laguntza zuzenak

- Diputatuen Kontseiluak lau diru-laguntza eman ditu zuzenean (7, 9, 10 eta 12 espedienteak) guztira 1,2 milioi euroren zenbatekoan; ordea, duten berezitasunagatik eta azken ekitaldietan emakidan izan duten errepikakortasunagatik, diru-laguntza izendunaren moldea baliatu behar zatekeela uste dugu eta honenbestez, Batzar Nagusiek onartutako ekitaldiko aurrekontuetan barne hartu (ikus B.14).
- Diputatuen Kontseiluak zuzenean bost diru-laguntza eman ditu (3, 4, 5, 8 eta 11 espedienteak) guztira 663.290 euroren zenbatekoan eta horretarako, komenigarria litzateke deialdi publikoa egitearen zailtasuna hobeto arazoitzea (ikus B.14).
- 2016ko ekitaldian 2016-2019 aldirako landa elektrifikatzeko proiektu baterako 1,7 milioi euroren diru-laguntza bat eman zen; ez da, baina, 2017ko azaroaren 30erako hitzarmenak aurreikusten duen kontu justifikagarria aurkeztu jardueren txostenarekin, eskuratutako emaitzekin eta beste sarrera edo jasotako diru-laguntzen zerrendarekin. 2017ko ekitaldi itxieran gastu modura erregistraturiko gastua 825.000 eurorena da.

Deialdi publiko bidez emandako diru-laguntzak (ikus B.14)

- Guztira 720.000 euroren zenbateko diru-laguntzak eman dituen deialdi batean (2 zk. espedienteak) diru-laguntza ematen da eskatutako kopuruaren gainean ehuneko finko bat aplikatuta eta halakorik ez da oinarri-arauetan aurreikusi. Bestalde, ez da diruz lagundutako proiektua osorik justifikatzea eskatzen.
- Ez dira GAO-n argitaratu eman larrialdiko laguntza eta ekintza humanitarioen proiektuetarako emandako diru-laguntzak, 299.944 eurorenak (3. espedientearen eranskin bat).
- Guztira 6 milioi euroren diru-laguntzak ematen dituzten bi deialditan (5 eta 6 espedienteak) emakida 2 hilabete baino gehiagoko atzerapenez egiten da araudian aurreikusitako epearen aldean.
- 2017-2020 aldirako udaleko kirol-ekipamendua eraiki eta zaharberritzeko diru-laguntzen deialdi atean, 9,3 milioi eurorena (4. espedienteak), proiektuak eta diruz lagundutako zenbatekoa zehaztean, ondotik adierazitako zenbait alderdi izan ditugu gogoan:
 - Oinarri-arauetan % 30eko haztapena duen balorazio irizpide bat azpi-irizpidetan garatzen da eta horren balorazioak guztira % 55 egiten du. Balorazioa 30 eta 55 bitartekoa duten proiektu guztiei 30eko puntuazioa ematen zaie, oinarri-arauetan finkatutako gehiena dena; gainerako proiektuei, ordea, ez zaie balorazioa zuzentzen



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

eta honenbestez, oinarri-arauetan finkatutakoaz besteko moduan baloratzen ari dira.

- Proiektu bat finantzatzen da toki-entitate bakoitzean (Donostia eta Irungo udaletan salbu, non, hurrenez hurren, hiru eta bi proiektu finantzatzen diren) eta hautatzen den proiektua da toki-entitateak lehentasunezko modura definitzen duen, eskuratu duen balorazioa alde batera, bai toki-entitate bakoitzak aurkeztutako proiektuen artean, bai aurkeztutako proiektu guztien aldean. Oinarri arautzaileek ez dituzte aurreikuspen hauek besarkatzen.
- Sailak diruz lagungarri den aurrekontu egokia zehazten du toki-entitateak lehentasunezko modura hautatutako proiektuan eskuratutako puntuazioaren eta udalerriko biztanleriaren arabera; inguruabar horiek, baina, ez daude oinarri-arauetan jasoak eta diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko balio dute.

III.A.5 SOROSPEN-ZERBITZUAK ETA GIZARTE-POLITIKETAKO HITZARMENAK

GFAk gizarte zerbitzuak emateko izenpetutako kontratu, hitzarmen eta kontratu-programen 2017ko ekitaldiko tarifak orokortasunez aplikatutako ehunekoetan igo ditu (2017ko igoerak 5,3 milioi euroren gastua eragin du), nagusiki zerbitzu ematen duten langileen soldata-igoerarekin loturikoak (ikus B.5.2). Tarifa-igoera hauekin lotuta alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Aztertu ditugun gizarte-zerbitzuen kontratueterako (ikus B.13.1), zeinak 2017a baino lehenagoko ekitaldietan esleitu diren, ez dira izenpetutako klausuletako pleguen aurreikuspenak aplikatu, dela prezioak berrikusteko klausularik jasotzen ez zutelako, dela klausulek KPIren % 85eko berrikuste-klausulak jasotzen zituztelako, onartutako igoerak baino txikiagoa dena.
- Kontratu-programak 2017ko ekitaldian aurreko ekitaldietan izenpetutako hitzarmen gehienak ordezkatzuz izenpetu ziren eta hitzarmenetan gertatzen zen moduan, hauetan ere ez da zehaztu zein prezio-berrikuspen aplikatuko zaien. Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko martxoaren 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuak, 5. artikuluan agintzen du eskulanari dagozkion kostuak balio berrikusira aldatu ahal izango direla, betiere, sektore publikoko zerbitzura diharduen langileriaren ordainsariek izandako igoera baino handiagoak izan gabe, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeei jarraikiz, 2017rako % 1ekoa izan zena aipatutako legearen 18 Bi artikuluen arabera. Berebat, gainerako kostuek ez dezakete erreferentzia modura KPI hartu, martxoaren 30eko 2/2015 Legeari jarraikiz, Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzkoa Ondorioz, ez dira aintzat hartzen legezko aurreikuspenak prezioak berrikusteko.

Azkenik, gizarte zerbitzuak ematean hitzarmenaren eta kontratu-programaren figura erabiltzeari dagokionez, azpimarratu behar dugu abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, dioela kontzertuaren araubidea dela gizarte zerbitzuak emateko lehentasunezko lankidetzaren formula euskal administrazio publikoen eta erakunde pribatuen artean eta ez dela araudi bidez arautu, eta hitzarmenaren eta kontratu-programaren moldea



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

gordetzen dela irabazi asmorik ez duten gizarte-ekimeneko entitateentzat, betiere jardueraren edo zerbitzuaren berezitasunak, izaera presako edo berritzaile eta esperimentuzkoak egokiago egiten badu hitzarmen eta kontratu-programa horiei kontzertuko araubidearen baldintzak ez aplikatzea. Hitzarmen eta kontratu-programetatik eratorririk GFak erregistraturiko gastutik, 33,8 milioi euro enpresa pribatuekin gauzatzen dira.

III.A.6 LANGILERIA-GASTUAK

Atal honetan ondotik adierazitakoak azpimarratu nahi ditugu:

- GFak eta IZFEk 2017ko ekitaldirako produktibitate-osagarri ez finkagarria onartu dute lan-absentismoaren indizeari loturik; osagarri hau 180 eta 200 euro bitarteko ordainketa bakarrean ordaintzen da eta 2017ko ekitaldian, hurrenez hurren, 355.361 euroren eta 28.486 euroren gastua eragin du. Produktibitate-osagarria langile bakoitzak bere lanpostuari atxikitako egitekoak betetzean erakutsitako aparteko etekin, interes edo ekimena saritzeko erabili beharko litzateke.
- Aurrekontuaren eranskinean barne hartutako plantilla 2.068 plazakoa da. Aurrekontuan jasotako plaza modura barne hartu dira lanpostuen zerrendaz besteko diren aldi bateko izaera duten kontratuak, besteak beste, errenta kanpainarako teknikarien programako bitarteko 97 kontratu, suhiltzaileen 50 kontratu eta Egogain egoitzarako 36 zaintzaile kontratu. Gure iritzira aurrekontu plantillak soil-soilik plaza bati loturik dauden kontratazioak jaso behar ditu; alabaina, programako bitarteko aldi bateko kontratazioak, ordezkapenak, e.a. gastuaren aurrekontuko diru-izendapenaren zenbaketan soilik hartuko dira kontuan.

III.A.7 ONDAREA

Ondasun zerrenda orokorra ez du Diputatuen Kontseiluak onetsi, GLHren Ondareari buruzko 8/1996 FAren 29. artikulua aurreikusten duen moduan.

III.B ERAKUNDE AUTONOMOAK

2017ko ekitaldian zehar Uliazpik hainbat ondasun eta zerbitzuren erosketa egin du, bost jarduerari dagozkionak, guztira 193.192 euroren zenbatekoarekin, bakoitza hornitzaile bakarrarekin kontratatua eta kontratu txikiaren moldea baliatuta izapidetua; alabaina, horientzat guztientzat lehia printzipioa aplikatzea dagokio (ikus C.2).



III.C FORU MERKATARITZAKO SOZIETATEAK

Bidegi, SA

- Arautze harmonizatuari lotzen ez zaizkion kontratazio espedienteetan ez dago kontratazio mahairik; ordea, komenigarria da mahaia osatzea kontratazio atalari aholku eman eta esleipen proposamena egin diezaion.
- Bidegi, SAren banku-kontuetako funtsak erabiltzeko baimena pertsona bakar batek du eta gomendagarria da sinadura mankomunatuak izatea.

III.D FORU FUNDAZIOAK

Kirolgi Fundazioa

Fundazioaren Patronatuko Batzordeak 2016-2017ko aldiko aurrekontua onartu du, kirol elkarteei emango zaizkien diru-laguntzen xehakapen banakatua eginez eta diru-laguntza izendun izaera emanez. Alabaina, xehakapen nominatibo hau ez zaio GLHren 2017ko ekitaldiko aurrekontu-proiektuari txertatzen, Batzar Nagusien aurrean aurrekontua onartzeko izapidetu dena. Diru-laguntza izendun izaera izan dezan, xehakapena aurrekontua izapidetzean barne hartu behar da. Fundazioaren kontuetan diru-laguntza hauen kontzeptuan erregistraturiko gastua 2 milioi eurorena da. Bestetik, emandako diru-laguntzak justifikatzean ez zaie onuradunei eskatzen dagozkion gastuak kontratatu aurretik hiru eskaintza eskatu izana justifikatzeko, diru-laguntzei buruzko araudiak hala eskatzen duen kasuetan.



IV. FINANTZA ANALISIA

IV.1 GFA-REN AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA

Hona hemen Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontuetatik eratorri diren finantza magnitude nagusiak

	Euroak milakotan		
	2016	2017	Bariazioa 2017/2016
Sarrera arruntak	4.256.312	4.735.491	% 11,3
Itunpeko zergak	4.197.674	4.682.583	
Itundu gabeko zergak.....	18.254	4.862	
Transferentzia arruntak.....	40.246	47.758	
Ondare sarrerak.....	138	288	
Erakundearteko konpromisoak	(3.529.469)	(3.965.264)	% 12,3
Estatuari kupoa	(233.190)	(335.747)	
Eusko Jaurlaritzari ekarpena.....	(2.846.943)	(3.161.204)	
Udalei ekarpena	(449.336)	(468.313)	
Sarrera arrunt garbiak	726.843	770.227	% 6
Gastu arruntak	(592.289)	(606.963)	% 2,5
Langileria-gastuak	(104.608)	(108.537)	
Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuak	(113.490)	(122.905)	
Gastu finantzarioak	(4.677)	(3.463)	
Transferentzia arruntak.....	(369.514)	(372.058)	
ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA (1)	134.554	163.264	% 21,3
KAPITALEKO ERAGIKETAK (2)	(109.244)	(125.247)	
Inbertsio errealen besterentzea	788	282	
Kapital transferentzietan eragindako sarrerak	5.696	2.635	
Inbertsio errealetan gastuak.....	(72.861)	(87.614)	
Kapitaleko transferentzietan eragindako gastuak....	(42.867)	(40.550)	
FINANTZAKETA ERAGIKETEN SALDOA (3)	(10.980)	(19.842)	
Finantza aktiboen bariazio garbia	(10.205)	(10.627)	
Finantza pasiboen bariazio garbia	(775)	(9.215)	
EKITALDIAREN EMAITZA (1+2+3)	14.330	18.175	
EKITALDI ITXIEN EMAITZA (4)	-	(18)	
EMAITZARI DOIKETAK (5)	10.297	28.603	
AURREKONTU-EMAITZA DOITUA (1+2+3+4+5)	24.627	46.760	



ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA

Aurrekontu likidazioetatik eratorritako emaitza arrunta 2017ko ekitaldian aurrekoarekiko % 21,3 gehitu da eta 28,7 milioi euroren igoera ekarri du. Igoera hau sarrera arruntek erakunde konpromisoak kenduta guztira izan duten 43,4 milioi garbiko igoeraren ondorio da, % 6ko igoera egiten duena, eta gastu arruntek izan duten 14,7 milioi euroren igoeraren ondorio, zeinak gastu arrunta % 2,5 gehitzea eragin duen.

2017ko ekitaldiko zerga itunduen eta erakunde konpromisoen kontzeptuek eragindako diru-bilketak aurreko ekitaldiaren aldean % 11,6 eta % 12,3 gehitu dira, hurrenez hurren, eta erakunde konpromisoek 2016 eta 2017ko ekitaldietako diru-bilketaren % 84,1 eta % 84,7 egin dute, hurrenez hurren.

KAPITAL ERAGIKETAK

Egikaritutako inbertsioen kontzeptuko kapitaleko eragiketen emaitza negatiboa, sarreretatik garbi, 16 milioi euro gehitu da. Ekitaldian inbertsioen egikaritzea handiagoa izateak eragin du hau nagusiki.

FINANTZAKETA ERAGIKETEN SALDOA

Finantzaketa eragiketengatiko sarrerak aintzat hartu gabe, gastuak 8,9 milioi euro gehitu dira 2017ko ekitaldian, gastu handiagoa izan delako finantza pasiboen bariazio garbiaren ondorioz.

AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA

2017ko ekitaldian 46,8 milioi euroan doitutako aurrekontu emaitza 22,1 milioi euroan gehitu da aurreko ekitaldiaren aldean, batik bat, jada honako arrazoi hauen ondorioz:

- Eragiketa arruntan emaitza 28,7 milioi euroan gehitu izana.
- Ekitaldiko emaitza txikiagoa, inbertsio errealek 14,7 milioi euroren egikaritzea handiagoa izan dutelako.
- Ekitaldiko emaitza txikiagoa, 2017ko ekitaldian finantza pasiboen bariazio garbiaren ondorioz gastua 8,4 milioi euro handiagoa izan delako.
- Atxiki gabeko diruzaintza geldikin bidez finantzatutako gastuak gehiago doitu izanaren ondorioz, emaitza 17,4 milioi euroan gehitu da.

IV.2 GFA-REN DIRUZAINZTA GELDIKINA ETA ZORPETZEA

Hona hemen Diruzaintza Geldikinak eta baliatu gabeko maileguez izan duten bilakaera:

DIRUZAINZTA GELDIKINA	Euroak milakotan	
	2016	2017
Diruzaintza Geldikina	11.224	(24.969)
Maileguetatik erabili gabeko saldoa kreditu kontu moduan.....	99.400	153.750
Finkatutako Diruzaintza Geldikin Erabilgarria	110.624	128.781

Diruzaintza Geldikina negatiboa da 25 milioi euroan, aintzat hartu gabe erabili gabeko maileguen kontzeptuko finantzaketa, berehalako erabilgarritasunekoa, kreditu kontuen bitartez, 153,7 milioi euroren zenbatekora arte.

HKEEK proposatutako doiketak aintzat hartuta, 2017ko ekitaldi itxieran Diruzaintza Geldikina eta Finkatutako Diruzaintza Geldikin Erabilgarria 17,8 milioi euroan gehitu beharko liriteke.

ZORPETZEA	Euroak milakotan	
	2016	2017
Erabilitako maileguak	470.475	415.710

Erabilitako maileguez 54,8 milioi euroan behera egin izana ia osorik bat dator erabili gabeko saldoek 54,3 milioi euroen zenbatekoan gora egin izanarekin.

2017ko urterako GFAko aurrekontu orokorrak onartzen dituen 8/2016 FAK, abenduaren 23koak, GFARI dagokionez 2017ko abenduaren 31rako epe luzeko zorpetze muga 569,5 milioi euroan ezarri du. Berebat, maileguak amortizatzeko zuzkiduraren aurrekontuko diru-izendapena 17,6 milioi euroena izango dela aurreikusten du.

IV.3 FORU ERAKUNDE AUTONOMOAK, MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK ETA FORU FUNDAZIOAK

Uliazpi Fundazioa eta Kabia erakunde autonomoak, IZFE, SA eta Etorlur Gipuzkoako Lurra, SA merkataritzako foru sozietateak ETA Kiroldi eta Sueskola Fundazioa foru fundazioak ia osorik GFAk eskualdatzen dizkien funtsen bidez finantzatzen dira eta honenbestez, GFAREN finantza-analisiak jada besarkatzen ditu haien kontuak ere.

Bidegi, SA sozietate publikoak ez du GFAtik finantzaketarik jasotzen, aurrez aipatutako 10 milioi euroren kapital handitzea salbu, GFAk izenpetutakoa. Egiten dituen inbertsioak sozietateak berak sortzen dituen baliabideen bitartez eta zorpetzearen bitartez finantzatzen dira. Honekin baterako taulak zorpetzeak eta negozio zifraren zenbateko garbiak izan duen bilakaera erakusten du:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BIDEGI, SA	Euroak milakotan	
	2016	2017
Ekitaldi itxieran erabilitako zorra.....	812.020	769.139
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	114.439	121.755
<i>Negozio zifraren/erabil. zorraren zenb. garb. % ...</i>	<i>14,1%</i>	<i>15,8%</i>

2017ko urterako GFAko aurrekontu orokorrak onartzen dituen 8/2016 FAK, abenduaren 23koak, Bidegi, SA foru merkataritza sozietatearentzat 2017ko abenduaren 31rako epe luzeko zorpetze muga 774,1 milioi euroan ezarri du.

IV.4 ONDORIOA

2017ko ekitaldian diru-bilketa igo izanak bide eman du inbertsio errealean egikaritza handitzeko, guztizko zorpetzea gehitu gabe eta 18 milioi euroren ekitaldiko emaitza sortuta; horrek esan nahi du erabili gabeko kreditu eragiketa bidezko Diruzaintza Geldikin finkatuak gora egin duela.

IV.5 AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA ETA FINANTZAREN IRAUNKORTASUNA

Apirilaren 27ko 2/2020 Lege Organikoak, Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoak, 3. eta 4. artikuluetan administrazio publikoei ezargarriak zaizkien aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasunaren printzipioak ezartzen ditu, oreka edo egiturazko superabit egoera modura eta oraingo eta etorkizuneko gastu konpromisoak finantzatzeko gaitasun modura ulertzen direnak, defizitaren eta zor publikoaren mugaketen barruan, hurrenez hurren.

Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasunari buruzko txostena Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioari igorri zaio eta administrazio honek ez du salbuespenik adierazi.

GFA-REN MENDEKO DEN ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN SEKTOREA

Estatuko Administrazio Orokorraren Kontu-hartzaileak ezarritakoari jarraiki, GFaren mendeko Administrazio Publikoaren Sektorea osatzen duten erakundeak honako hauek dira:

- Foru administrazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia
- Foru Erakunde Autonomoak: Uliazpi Fundazioa eta Kabia.
- Merkataritzako Foru Sozietateak: IZFE, SA eta Etorlur Gipuzkoako Lurra, SA.
- Partaidetutako Sozietateak: Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa (GHK), SA, Bic Gipuzkoa Berrilan, SA, Berroeta Aldamar, SL, Seed Gipuzkoa AKS, Erregimen Erraztuko, SA, Ortzibia, SA eta Garaia Berrikuntza Gunea, S. Koop.
- Partzuergoak: Gipuzkoako Osabidezko Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Partzuergoa, Gipuzkoako Ur Kontsortzioa eta Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoa.

- Fundazioak: Kirolgi Fundazioa, Mintzola Fundazioa, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioa eta Ekain Fundazioa.

Aurrekontuaren egonkortasunaren helburua

Aurrekontuaren egonkortasun helburua 2016ko abenduaren 2ko Ministroen Kontseiluaren Erabaki bitartez onartu zen.

Kontu Orokorrean barne hartutako aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasunari buruzko informazioak, “2017ko ekitaldiko Finantzaketa gaitasunari edo beharrari buruzko atalean”, guztira 52,7 milioi euroren finantzaketa gaitasuna islatzen du. Estatuko Administrazio Orokorriari aurrekontuaren egonkortasunari buruz igorritako informazioa honakoa da:

	Euroak milakotan			
	Sarrera ez finantz.	Gastu ez finantz.	Doiket.	Finantzaketa Gaitas. /(Beharra)
GFA.....	4.852.891	(4.814.874)	2.544	40.561
Uliazpi fundazioa.....	18.336	(17.769)	-	567
Kabia.....	8.125	(7.564)	-	561
Etorlur Gipuzkoako Lurra, SA.....	1.672	(1.563)	-	109
IZFE, SA.....	25.733	(25.577)	-	156
GHP.....	37.057	(37.057)	-	-
Osabidezko Hezkuntzarako Kontsortzioa.....	395	(377)	-	18
Gipuzkoako Ur Kontsortzioa.....	7.973	(986)	-	6.987
GHK, SA.....	40.880	(37.396)	-	3.484
Mintzola Fundazioa.....	275	(263)	-	12
Kirolgi Fundazioa.....	2.718	(2.718)	-	-
Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioa.....	760	(758)	-	2
Bic Gipuzkoa Berrilan, SA.....	2.501	(2.266)	-	235
Berroeta Aldamar, SL.....	530	(529)	-	1
Seed Gipuzkoa AKS, Erregimen Erraztukoa, SA.....	-	(25)	-	(25)
Ortizibia,SA.....	278	(265)	-	13
Garaia Berrikuntza Polo, Koop.S.....	918	(885)	-	33
EKAIN Fundazioa.....	420	(419)	-	1
GUZTIRA	5.001.462	(4.951.291)	2.544	52.715

Gastuaren araua

Espaniar ekonomiaren epe ertaineko Barne Produktu Gordinaren hazkundearen erreferentziarako tasa 2017, 2018 eta 2019ko ekitaldietarako, 2016ko abenduaren 2ko Ministroen Kontseiluaren Erabaki bitartez onartu zen eta 2017ko urterako % 2,1ean finkatu zen. Tasa hau aurreko ekitaldiko aurrekontuaren gastu konputagarriarekin biderkatzen da, ezargarria den gastu muga eskuratzeko. Gastu konputagarriak SEC10 terminoetan adierazitako enplegu ez finantzario modura definitzen dira, horietatik kenduta zorraren interesak, langabezia prestazioetan gastu ez aukerakoa, Europako Batasunetik edo beste administrazio publiko batzuetatik eratorritako helburudun funtsen bidez finantzatutako



gastuaren zatia eta autonomia erkidegoei eta toki udalbatzei finantzaketa sistemei loturik egindako transferentziak.

2017ko ekitaldian arau hori ezartzeak 700,2 milioi euroren gastu zenbakarria erakusten digu; honenbestez, bete egiten da aurreko paragrafoan aipatutako mugaketa.

Zor publikoaren helburua

Arautegiak administrazio publikoen multzoaren zor publikoaren bolumenari BPG nazionalaren % 99ren pareko muga ezartzen dio, termino nominaletan adierazia, eta era honetara zati-banutzen da: administrazio zentrala eta Gizarte Segurantza (% 72), autonomia erkidegoen multzoa (% 24,1) eta Udalbatzen multzoa (% 2,9). Zor publikoaren helburuari dagokionez, foru ogasunek duten berezitasunaren ondorioz beharrezkoa da Ekonomia Itunaren Bitariko Batzordeak iritzia ematea, izan ere zor publikoaren helburua Barne Produktu Gordinaren ehuneko baten gainean finkatzen da; ordea, ehuneko hau ez da administrazio ezberdinen artean banatu (EAE eta foru aldundiak) eta honenbestez, ezin adieraz daiteke Gipuzkoako Foru Sektore Publikoak, SEC10 terminoetan, 2017ko urterako finkatutako zor publikoaren helburua bete duen edo ez.

2017ko abenduaren 31n GFAREN baitako indarreko zor publikoa 634,3 milioi euroena da (GFA: 569,5 milioi euro, Gipuzkoako Ur Kontsortzioa: 39,3 milioi euro, GHK, SA: 16,3 milioi euro, Bic Gipuzkoa Berrilan, SA: 0,6 milioi euro eta Ortzibia, SL: 8,6 milioi euro).

GFA-REN MENDEKO SOZietate ez FINANTZARIOEN SEKTOREA ETA ERAKUNDE FINANTZARIOEN SEKTOREA

Estatuko Administrazio Orokorraren Artekaritzak 2017ko urterako ezarritakoari jarraikiz, GFAREN mendeko Sozietate ez Finantzarioen Sektorea osatzen duten erakundeak honako hauek dira: Bidegi, Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia, SA, SUESKOLA Gipuzkoa Fundazioa eta Gipuzkoako Urak, SA.

Sozietate ez Finantzarioen Sektorearen eta Erakunde Finantzarioen Sektorean barne hartutako erakundeak desoreka finantzarioko egoeran daudela esaten da ezargarriak zaizkien kontabilitateko planaren irizpideen arabera galerak dituztenean eta horiek saneatzeko baliabideen zuzkidura beharrezkoa denean, baliabide horiek eman behar dituen erakundearen egonkortasun egoeran aurreikusi ez direnak. Definizio horren arabera, 2017ko ekitaldian, erakunde guztiak finantza oreka egoeran daude, bakar batek ere ez baitu galerarik izan.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAREN KONTUAK

A. 2015-EKO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA Euroak milakotan

Sarrerak	Eransk.	Aurrekontua			Eskubide kitat.	Gauzat. kobrantsak	Kobr. gabea
		Hasier.	Aldak.	B.betik.			
1.-Zerga zuzenak	B7.1	2.002.286	47.539	2.049.825	2.074.124	2.074.124	-
2.-Zeharkako zergak	B7.1	2.337.652	231.000	2.568.652	2.566.173	2.566.173	-
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	B7.1	56.300	30	56.330	47.148	47.148	-
4.-Transf. eta dirul. arruntak	B8	79.022	77.031	156.053	162.241	119.905	42.336
5.- Ondare sarrerak		200	-	200	288	286	2
6.-Inbertsio errealen besterentzea ..		200	-	200	282	282	-
7.-Kapital dirulag. eta transf.....	B8	10.012	(2.887)	7.125	2.635	2.453	182
3.-Aktibo finantzarioak	B9	32.444	3.500	35.944	782	578	204
3.-Pasibo finantzarioak.....	B10	41.000	-	41.000	41.000	41.000	-
SARRERAK GUZTIRA		4.559.116	356.213	4.915.329	4.894.673	4.851.949	42.724

Gastuak	Eransk.	Aurrekontua			Oblig. aitort.	Gauzat. ordaink.	Ordain. gabea
		Hasier.	Aldak.	B.betik.			
1.-Langileria-gastuak.....	B3	110.270	(71)	110.199	108.537	108.528	9
2.-Gastu arrun. ondas. eta zerb.	B4	123.122	2.495	125.617	122.905	106.673	16.232
3.-Gastu finantzarioak	B10	8.700	(3.669)	5.031	3.463	3.077	386
4.-Transf. eta dirul. arruntak	B5	4.108.292	350.918	4.459.210	4.451.805	4.263.186	188.619
6.- Inbertsio errealak	B6	95.097	7.714	102.811	87.614	66.952	20.662
7.-Kapital dirulag. eta transf.....	B5	39.941	7.268	47.209	40.550	28.691	11.859
3.-Aktibo finantzarioak	B9	23.479	(8.442)	15.037	11.409	11.409	-
3.-Pasibo finantzarioak.....	B10	50.215	-	50.215	50.215	50.215	-
GASTUAK GUZTIRA		4.559.116	356.213	4.915.329	4.876.498	4.638.731	237.767

B. AURREKO EKITALDIETAKO SARRERA ETA GASTUEN HONDARRAK Euroak milakotan

	Hasierako zorra	Baliog.	(Kobr.)/ Ordaink.	Azken zorra
Zordunak.....	91.132	(45)	(34.467)	56.620
Hartzekodunak.....	(198.098)	27	197.179	(892)
AURREKONTU ITXIAK		(18)		



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

C. AURREKONTUAREN EMAITZA		Euroak milakotan
Eskubide aitortuak		4.894.673
-Obligazio aitortuak		(4.876.498)
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA		18.175
Doiketak		
Xahututako kredituak, atxiki gabeko diruzaintza geldikinarekin finantzatuak		27.741
Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze positiboak		(182)
Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze negatiboak		1.044
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA DOITUA (1)		46.778
EKITALDI ITXIEN AURREKONTU EMAITZA (2)		(18)
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA (1+2)		46.760

D. DIRUZAINZA GELDIKINA	Eransk.	Euroak milakotan
Funts likidoak.....		1.301
Aurrekontuko zordunak.....	B7.2	99.344
Aurrekontuz kanpoko zordunak.....	B11	150.268
Aurrekontuko hartzekodunak		(238.659)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	B11	(37.223)
DIRUZAINZA GELDIKINA GUZTIRA 2017.12.31-N		(24.969)
Maileguetatik erabili gabeko saldoa kreditu kontu moduan.....	B10	153.750
FINKATUTAKO DIRUZAINZA GELDIKIN ERABILGARRIA 2017.12.31-N		128.781

E. KONPROMISO KREDITUEN EGIKARITZA		Euroak milakotan						
Kapitulua	Eransk.						ALDIAK	
		2018	2019	2020 eta hurr.	GUZTIRA	Baimendua	Erabilia	
2.- Gastu arruntak ondasun eta zerbitz.	B4	2.113	1.560		232	3.905	1.890	1.860
4.- Transf. eta dirul. arruntak	B5	15.174	2.122		873	18.169	14.646	11.892
6.- Inbertsio errealak	B6	37.848	16.734		6.585	61.167	5.850	5.485
7.- Kapital diru-lag. eta transf.	B5	24.004	13.470		11.800	49.274	21.967	21.965
8.- Finantza aktiboak		150	-		-	150		
GUZTIRA		79.289	33.886	19.490	132.665	44.353	41.202	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

F. EGOERAREN BALANTZEAK 2017 eta 2016ko abenduaren 31n

Euroak milakotan

	Eransk.	2017	2016		Eransk.	2017	2016
AKTIBO EZ ARRUNTA		3.162.216	3.204.208	ONDARE GARBIA		2.709.224	2.712.650
Ibilgetu ukiezina.....	B6.2	29.945	28.660	Ekarrirako ondarea.....		165.385	165.385
Ibilgetu materiala.....	B6.2	2.962.366	3.003.234	Aurreko ekitaldietako emaitza.....		2.538.677	2.566.107
Ibilgetuko inbertsioak.....	B6.2	537	523	Ekitaldiaren emaitza.....		(4.316)	(27.466)
Taldeko enpresetan partaid.....	B9	118.871	115.108	Ondare hazkund. zerga gabe.....		9.478	8.624
Epe luzeko finantza inberts.	B7.2	50.497	56.683				
				PASIBO EZ-ARRUNTA		370.382	429.434
				Epe luzeko zorrak	B10	370.382	429.434
AKTIBO ARRUNTA		340.362	304.171	PASIBO ARRUNTA		422.972	366.295
Salgai dauden aktiboak.....		494	494	Epe laburreko zuzkidurak.....	B7.2	109.100	93.456
Kudeaketa eragik. zordunak ...	B7.2	188.299	158.928	Epe laburreko zorrak.....	B10	46.910	44.590
Beste zordun b.& kobr. knt.	B11	150.266	140.650	Kudeaketa eragik. hartzekod.		238.659	198.097
Finan. inberts. epe labur.....		2	8	Hartzed. eta ordain. bst knt b.	B11	28.303	30.152
Eskud. eta best. akt. baliokid..		1.301	4.091				
AKTIBOA, GUZTIRA		3.502.578	3.508.379	ONDARE GARB. ETA PASIB., GUZTIRA		3.502.578	3.508.379

G. 2017 eta 2016-KO EKITALDIETAKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA

Euroak milakotan

	Eransk.	2017	2016
Zerga sarrerak.....		4.674.089	4.194.613
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak.....		165.441	129.228
Salmenta garbiak eta zerbitzu emateak.....		4.182	3.465
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....		24.345	54.894
Hornidura gehiegizkoak.....		-	21.182
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK, GUZTIRA		4.868.057	4.403.382
Langileria-gastuak.....		(109.331)	(105.333)
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak.....		(4.512.535)	(4.030.302)
Hornikuntzak.....		(1.442)	(1.234)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.		(164.852)	(150.750)
Ibilgetua amortizatzea.....	B6.2	(77.232)	(76.475)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK, GUZTIRA		(4.865.392)	(4.364.094)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)		2.665	39.288
Balioaren narriadura eta ibilgetu ez finantz. eta salgai dauden aktib. bestereng. emait.....		137	283
Arruntak ez diren beste kontu sail batz.		(16.592)	(20.523)
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK		(13.790)	19.048
Sarrera finantzarioak.....		47.973	21.152
Gastu finantzarioak.....		(3.558)	(4.864)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak.....		(34.941)	(62.802)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK		9.474	(46.514)
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)		(4.316)	(27.466)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 FORU ERAKUNDE AUTONOMOEN KONTUAK

V.2.1 ULIAZPI FUNDAZIOA

A. 2017-KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	Aurrekontua			Eskubide kitat.	Kobrantzak	Kobr. gabea
	Hasier.	Aldak.	B.betik.			
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	2.012	-	2.012	2.059	1.888	171
2.- Transferentzia arruntak	15.906	-	15.906	15.906	15.906	-
5.- Ondare sarrerak	1	-	1	-	-	-
7.- Kapital transferentziak	345	25	370	370	370	-
3.- Aktibo finantzarioak	200	-	200	46	46	-
SARRERAK GUZTIRA	18.464	25	18.489	18.381	18.210	171

GASTUAK	C1	Aurrekontua			Oblig. aitort.	Ordain. Ordain.	Ordain. gabea
		Hasier.	Aldak.	B.betik.			
1.- Langileria-gastuak		13.229	-	13.229	12.872	12.335	537
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb.		4.690	-	4.690	4.639	4.055	584
6.- Inbertsio errealak		345	25	370	258	161	97
3.- Aktibo finantzarioak		200	-	200	44	44	-
GASTUAK GUZTIRA		18.464	25	18.489	17.813	16.595	1.218

B. AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	Hasierako		(Kobr.)/ Ordaink.	Azken zorra
	zorra	Baliogab.		
Zordunak	230	(10)	(168)	52
Hartzekodunak	(1.207)	3	1.204	-
AURREKONTU ITXIAK		(7)		

C. AURREKONTU EMAITZA ETA DIRUZAINZA GELDIKINA

Euroak milakotan

Eskubide kitatuak	18.381
-Obligazio aitortuak	(17.813)
EKITALDIAREN EMAITZA (1)	568
Eskubide kitatuak baliogabetzea	(10)
Obligazio aitortuak baliogabetzea	3
EKITALDI ITXIEN EMAITZA (2)	(7)
Doiketa finantzarioa (3)	(10)
AURREKONTUAREN EMAITZA (1+2+3)	551
DIRUZAINZA GELDIKINA 16.12.31N	786
DIRUZAINZA GELDIKINA 17.12.31N	1.337



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

D. EGOERAREN BALANTZEAK 2017 ETA 2016-EKO ABENDUAREN 31-N			Euroak milakotan		
	17.12.31	16.12.31		17.12.31	16.12.31
AKTIBO EZ ARRUNTA	14.244	14.457	ONDARE GARBIA	15.628	15.280
Ibilgetu ukiezina.....	76	78	Ekarritako ondarea.....	5.835	5.835
Ibilgetu materiala.....	14.126	14.326	Sortutako ondarea.....	9.081	8.905
Finan. inberts. epe luzera.....	42	53	Egozteko dauden ondare gehikuntza.....	712	540
AKTIBO ARRUNTA	3.056	2.484	PASIBO ARRUNTA	1.672	1.661
Zord. eta kobratz. beste kontu batzuk.....	193	198	Epe laburreko zorrak.....	11	11
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	47	37	Hartzekod. eta ordaintz. bst kontu batz.	1.661	1.650
Eskud. eta best. aktibo likido baliok.	2.816	2.249			
AKTIBOA, GUZTIRA	17.300	16.941	ONDARE GARB. ETA PASIB., GUZTIRA	17.300	16.941

E. 2017 eta 2016-KO ekitaldietako ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA			Euroak milakotan	
			2017	2016
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak.....			16.262	14.691
Salmenta garbiak eta zerbitzu emateak.....			1.997	1.973
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....			62	35
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK, GUZTIRA			18.321	16.699
Langileria-gastuak.....			(12.868)	(12.252)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.			(4.639)	(4.524)
Ibilgetua amortizatzea.....			(618)	(616)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK, GUZTIRA			(18.125)	(17.392)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)			196	(693)
Arruntak ez diren beste kontu sail batz.			-	-
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK			196	(693)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak.....			(20)	(8)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK			(20)	(8)
EKITALDIAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)			176	(701)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2.2 KABIA

A. 2017-KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA Euroak milakotan

SARRERAK	Aurrekontua			Eskubide kitat.	Kobrantsak	Kobr. gabea
	Hasier.	Aldak.	B.betik.			
3.-Tasak eta bestelako sarrerak	6.616	-	6.616	2.960	2.691	269
2.-Transferentzia arruntak.....	12.130	-	12.130	5.040	4.661	379
7.- Kapital transferentziak.....	250	-	250	125	125	-
SARRERAK GUZTIRA	18.996	-	18.996	8.125	7.477	648

GASTUAK	Eransk.	Aurrekontua			Oblig. aitort.	Ordain. gabea	Ordain. gabea
		Hasier.	Aldak.	B.betik.			
1.- Langileria-gastuak.....	C1	2.379	-	2.379	395	395	-
2.- Ondasun arruntan erosk. eta zerb.....		16.367	-	16.367	7.015	6.394	621
6.- Inbertsio errealak.....		250	-	250	154	82	72
GASTUAK GUZTIRA		18.996	-	18.996	7.564	6.871	693

B. AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA Euroak milakotan

	Hasierako		(Kobr.)/ Ordaink.	Azken zorra
	zorra	Baliogab.		
Zordunak	607	-	(607)	-
Hartzekodunak.....	(664)	-	664	-
AURREKONTU ITXIAK			-	

C. AURREKONTU EMAITZA ETA DIRUZAINZTA GELDIKINA Euroak milakotan

Eskubide kitatuak.....	8.125
-Obligazio aitortuak	(7.564)
AURREKONTUAREN EMAITZA	561
DIRUZAINZTA GELDIKINA 16.12.31N	234
DIRUZAINZTA GELDIKINA 17.12.31N	795
Atxikitako finantzaketa soberakina.....	(5)
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZTA GELDIKINA 17.12.31N	790
Sarrerak itzultzeagatiko hartzekodunak.....	(4)
DIRUZAINZTA GELDIKIN LIKIDOA 17.12.31N	786

D. BALANTZEAK 2017 ETA 2016-KO ABENDUAREN 31-N Euroak milakotan

	31.12.17		31.12.16	
AKTIBO EZ ARRUNTA	244	116	ONDARE GARBIA	1.035
lbilgetu ukiezina.....	72	36	Aurreko ekitaldietako emaitza.....	350
lbilgetu materiala.....	172	80	Ekitaldiaren emaitza.....	685
AKTIBO ARRUNTA	1.573	992	PASIBO ARRUNTA	782
Zord. eta kobratz. beste kontu batzuk	648	608	Epe laburreko zorrak.....	56
Eskud. eta best. aktibo likido baliok.	925	384	Hartzekod. eta ordaintz. bst kontu batz.	726
AKTIBOA GUZTIRA	1.817	1.108	ONDARE GARB. ETA PASIB., GUZTIRA	1.817
				1.108



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

E. 2017 eta 2016-KO ekitaldietako ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA	Euroak milakotan	
	2017	2016
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak.....	5.165	4.592
Salmenta garbiak eta zerbitzu emateak.....	2.955	2.753
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	8.120	7.345
Langileria-gastuak	(396)	(340)
Hornidurak	(31)	(51)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.	(6.982)	(6.753)
Ibilgetua amortizatzea.....	(26)	(12)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(7.435)	(7.156)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	685	189
EKITALDIAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	685	189



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.3 MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEEN KONTUAK

A. BALANTZEAK 2017 ETA 2016-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	Eransk.	IZFE, SA		Bidegi, SA		Etorlur, G.L. SA	
		2017	2016	2017	2016	2017	2016
AKTIBO EZ ARRUNTA		3.555	2.876	1.256.332	1.241.221	6.439	6.596
Ibilgetu ukiezina.....	D1	1.043	1.185	1.256.124	1.240.985	6	9
Ibilgetu materiala.....	D1	2.241	1.413	24	52	1.638	1.712
Ibilgetuko inbertsioak.....	D2	-	-	-	-	4.795	4.875
Taldeko enpresetan inbertsioak.....		174	174	-	-	-	-
Epe luzeko finantza-inbertsioak.....		81	86	184	184	-	-
Gerorat. zergagatiko aktiboak.....		16	18	-	-	-	-
AKTIBO ARRUNTA		12.073	11.510	105.918	101.225	11.090	11.431
Izakinak	D2	13	14	-	-	9.935	9.897
Merkat zordunak eta kobratz bestel. knt		6.714	6.489	11.749	12.029	132	100
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	D3	-	2	37.861	43.212	-	10
Aldizkakotzeak epe laburrera.....		201	117	-	-	4	2
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk		5.145	4.888	56.308	45.984	1.019	1.422
AKTIBOA GUZTIRA		15.628	14.386	1.362.250	1.342.446	17.529	18.027
ONDARE GARBIA		4.682	4.035	480.451	421.927	15.475	15.453
Eskrituran jasotako kapitala.....	B9	439	439	20.719	10.720	21.604	21.604
Erreserbak.....		1.883	1.883	475.253	445.666	372	372
Aurreko ekitaldietako ondorioak		(178)	(282)	-	-	(7.623)	-
Ekitaldiaren emaitza.....		153	104	36.125	29.588	65	(7.623)
Funts propioak		2.297	2.144	532.097	485.974	14.418	14.353
Balio aldaketagatiko doiketak	D4	-	-	(51.646)	(64.047)	-	-
Diru-lag., dohaint. eta jasot. legat.		2.385	1.891	-	-	1.057	1.100
PASIBO EZ-ARRUNTA		1.528	727	802.193	862.581	783	818
Epe luzeko hornidurak	D1	-	-	27.300	23.386	-	-
Zorrak, kreditu erakundeekin epe luz.	D4	-	-	722.237	774.137	-	-
Epe luzeko bestel. zorrak	D4	-	-	52.656	65.058	5	9
Atzeratutako zergagatiko pasiboak.....		920	727	-	-	411	428
Aldizkakotzeak epe luzera.....		608	-	-	-	367	381
PASIBO ARRUNTA		9.418	9.624	79.606	57.938	1.271	1.756
Epe laburreko zuzkidurak		-	-	-	-	-	25
Kreditu erakundeekiko zorrak epe lab.	D4	-	-	54.996	46.571	-	-
Epe laburreko bestel. zorrak.....		908	973	111	126	64	63
Merkat. hartz. eta ordaint. bte kntu batz ...		8.178	7.511	24.499	11.241	1.193	1.654
Aldizkakotzeak epe laburrera.....		332	1.140	-	-	14	14
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA		15.628	14.386	1.362.250	1.342.446	17.529	18.027



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B. 2017 eta 2016ko ekitaldietako GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	Eransk.	IZFE, SA		BIDEGI, SA		Etorlur G.L., SA	
		2017	2016	2017	2016	2017	2016
Negozio zifraren zenbateko garbia.....		23.539	24.254	121.755	114.439	630	-
Abiango sustap. eta eraik. izak. bariaz.		-	-	-	-	35	(6.814)
Aktiborako egindako lanak		-	-	8.265	7.934	-	-
Hornidurak	D6	(7.440)	(7.937)	-	-	(52)	(37)
Bestelako ustiaketa-sarrerak.....		267	65	-	-	1.039	780
Langileria-gastuak.....	D5	(9.631)	(9.424)	(1.127)	(979)	(480)	(477)
Bestelako ustiaketa-gastuak.....	D6	(6.592)	(6.905)	(46.818)	(45.155)	(850)	(233)
Ibilgetua amortizatzea.....		(1.209)	(961)	(37.691)	(37.692)	(157)	(159)
Ibilgetu ez finantz. diru-lag. egoztea.....		1.209	961	-	-	60	60
Narriadura eta ibilget. erag. emait.....		-	-	-	-	-	(696)
Beste emaitza batzuk.....		13	68	1.271	57	(161)	(48)
Ustiapenaren emaitza		156	121	45.655	38.604	64	(7.624)
Sarrera finantzarioak.....		-	-	-	2.828	1	1
Gastu finantzarioak.....	D4	-	-	(9.530)	(11.844)	-	-
Emaitza finantzarioa		-	-	(9.530)	(9.016)	1	1
Emaitza zerga aurretik		156	121	36.125	29.588	65	(7.623)
Mozkinen gaineko zerga.....		(3)	(17)	-	-	-	-
EKITALDIAREN EMAITZA, ERAGIKETA							
JARRAITUETATIK ERATORRITAKOA		153	104	36.125	29.588	65	(7.623)
EKITALDIAREN EMAITZA		153	104	36.125	29.588	65	(7.623)



V.4 FORU FUNDAZIOEN KONTUAK

A. LABURTUTAKO EGOERAREN BALANTZEAK 2017 eta 2016ko abenduaren 31n

Euroak milakotan

	Kirologi Fundazioa		Sueskola Fundazioa	
	2017	(*)2016	2017	2016
AKTIBO EZ ARRUNTA	5	5	1.877	1.952
Ibilgetu ukiezina.....	-	-	1.777	1.843
Ibilgetu materiala.....	-	-	99	108
Epe luzeko finantza-inbertsioak.....	5	5	1	1
AKTIBO ARRUNTA	346	274	241	219
Izakinak	-	-	9	13
Jarduera propioaren erabil. eta best. zord.	175	-	220	197
Merkat zordunak eta kobratz bestel. knt	144	130	-	-
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	-	-	2	1
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk.....	27	144	10	8
AKTIBOA GUZTIRA	351	279	2.118	2.171
ONDARE GARBIA			1.887	1.937
Fundazioaren dotazioa.....	30	30	30	30
Erreserbak.....	598	598	-	-
Aurreko ekitaldietako soberakinak	(489)	-	-	(27)
Ekitaldiaren emaitza.....	-	(489)	1	3
Funts propioak	139	139	31	6
Diru-lag., dohaint. eta jasot. legat.	-	-	1.856	1.931
PASIBO EZ-ARRUNTA	12	3	-	-
Epe luzeko bestel. zorrak	12	3	-	-
PASIBO ARRUNTA	200	137	231	234
Epe laburreko zuzkidurak.....	174	27	-	-
Kreditu erakundeekiko zorrak epe lab.	-	-	60	33
Onuradun eta hartzekodunak	25	81	-	-
Merkat. hartz. eta ordaint. bte kntu batz.	1	29	141	201
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	-	-	30	-
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	351	279	2.118	2.171

(*) 2016ko abenduaren 15ean Fundazioko Patronatuak urteko kontuak ixteko data aldatu zuen, aurreko ekitaldietan irailaren 30a zuena, eta abenduaren 31ra ekarri; honenbestez, aintzat hartu behar da egitate hau ekitaldi itxiko datuak aurreko ekitaldikoekin alderatzean, hiru hilabeteko aldea baitago.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B. EMAITZEN KONTU LABURTUAK, 2017 eta 2016ko abenduaren 31n

Euroak milakotan

	Eransk.	Kiroldgi Fundazioa		Sueskola Fundazioa	
		2017	(*)2016	2017	2016
Sustapen eta babesleen sarrerak		300	10	104	121
Diru-lagunt., dohaintza eta legatuak		2.418	200	140	139
Hornidurak		-	-	(4)	4
Merkat. jardueraren salmentak eta sarrerak		-	-	894	855
Jardueraren bestelako sarrerak		-	60	-	-
Langileria-gastuak	E.1	-	-	(586)	(560)
Laguntza monetarioengatik gastuak	E.2	(2.249)	(719)	-	-
Jardueraren beste gastu batzuk		(469)	(40)	(538)	(548)
Ibilgetua amortizatzea		-	-	(107)	(96)
Ekit. soberakin. eskualdat. kapital. diru-lag.		-	-	100	90
Jardueraren soberakina		-	(489)	3	5
Gastu finantzarioak		-	-	(2)	(2)
Finantza eragiketen soberakina		-	-	(2)	(2)
Zerga aurretiko soberakina		-	(489)	1	3
Mozkinen gaineko zerga		-	-	-	-
EKITALDIAREN SOBERAKINA		-	(489)	1	3
Jasotako kapital diru-laguntzak		-	-	25	37
Aurreko ekit. defizitari aurre egiteko diru-lag.		-	-	24	25
Ondare garbian zuzenean jasotako sarrera eta gastuak (1)		-	-	49	62
Jasotako kapital diru-laguntzak		-	-	(100)	(90)
Ekitaldiaren soberakinari egindako birsailk. (2)		-	-	(100)	(90)
ONDARE GARBIAREN BARIAZIOA, ondare garbian zuzenean jasotako sarrera eta gastuengatik (1+2)		-	-	(51)	(28)
EMAITZA GUZTIRA, ONDARE GARBIAREN BARIAZIOA EKITALDIAN		-	(489)	(50)	(25)

(*) 2016ko abenduaren 15ean Fundazioko Patronatuak urteko kontuak ixteko data aldatu zuen, aurreko ekitaldietan irailaren 30a zuena, eta abenduaren 31ra ekarri; honenbestez, aintzat hartu behar da egitate hau ekitaldi itxiko datuak aurreko ekitaldikoekin alderatzean, hiru hilabeteko aldea baitago.





Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ERANSKINAK

A. GIPUZKOAKO FORU SEKTORE PUBLIKOAREN KONTU BATERATUAK

A. 2017-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIO BATERATUA

Euroak milakotan

KAPITULUA	Behin betiko aurrekontua	Eskubideak/Obligazioak
Zerga zuzenak	2.049.825	2.074.124
Zeharkako zergak	2.568.652	2.566.173
Tasak eta bestelako sarrerak	65.726	174.517
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak	156.670	162.565
Ondare sarrerak	131.209	12.650
Inbertsio errealen besterentzea	200	(1.661)
Kapitaleko transferentziak eta diru-laguntzak	7.119	2.660
Finantza-aktiboen bariazioa	69.711	867
Finantza pasiboen aldak.	41.000	41.000
SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA	5.090.112	5.032.895
Langileria-gastuak	138.266	133.628
Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa	197.670	171.998
Gastu finantzarioak	39.143	43.462
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak	4.430.488	4.429.769
Inbertsio errealak	110.237	110.917
Kapitaleko transferentziak eta diru-laguntzak	44.694	38.160
Finantza aktiboen bariazioa	15.336	11.487
Finantza-pasiboen bariazioa	114.278	83.098
GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA	5.090.112	5.022.519
AURREKONTUAREN EMAITZA FINKATUA 2017		10.376

	GFA	Erakunde autonomoak	Sozietate publikoak	Fundazioak	Doik./ Suntsitz.	GUZTIRA
ESKUBIDE AITORTUAK	4.894.673	26.506	167.430	3.905	(59.619)	5.032.895
Zerga zuzenak	2.074.124	-	-	-	-	2.074.124
Zeharkako zergak	2.566.173	-	-	-	-	2.566.173
Tasak eta bestelako sarrerak	47.148	5.019	122.385	-	(35)	174.517
Transf. eta dirul. arruntak	162.241	20.946	1.082	2.581	(24.285)	162.565
Ondare sarrerak	288	-	32.029	1.299	(20.966)	12.650
Inbertsio errealen besterentzea ...	282	-	-	-	(1.943)	(1.661)
Transf. eta kapital dirulag.	2.635	495	1.895	25	(2.390)	2.660
Finantza-aktiboen bariazioa	782	46	39	-	-	867
Finantza pasiboen aldak.	41.000	-	10.000	-	(10.000)	41.000
OBLIGAZIO KITATUAK	4.876.498	25.377	176.382	3.881	(59.619)	5.022.519
Langileria-gastuak	108.537	13.267	11.237	587	-	133.628
Ondasun arr.-zerb. erosk.	122.905	11.654	57.430	1.010	(21.001)	171.998
Gastu finantzarioak	3.463	-	39.997	2	-	43.462
Transf. eta dirul. arruntak	4.451.805	-	-	2.249	(24.285)	4.429.769
Inbertsio errealak	87.614	412	24.801	33	(1.943)	110.917
Transf. eta kapital dirulag.	40.550	-	-	-	(2.390)	38.160
Finantza-aktiboen bariazioa	11.409	44	34	-	-	11.487
Finantza pasiboen aldak.	50.215	-	42.883	-	(10.000)	83.098
AURREKONTUAREN EMAITZA	18.175	1.129	(8.952)	24	-	10.376



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B. EGOERAREN BALANTZE BATERATUA 2017 eta 2016ko abenduaren 31n				Euroak milakotan	
AKTIBOA	31.12.17	31.12.16	PASIBOA	31.12.17	31.12.16
AKTIBO EZ ARRUNTA	4.396.318	4.430.832	ONDARE GARBIA	3.180.082	3.131.177
Ibilgetu ukiezina.....	32.920	31.584	Ekarrirako ondarea.....	165.525	165.465
Ibilgetu materiala.....	4.237.328	4.260.183	Sortutako ondarea.....	3.052.634	3.021.135
Ibilgetuko inbertsioak.....	5.332	5.398	Estaldua eragiketak.....	(51.646)	(64.047)
Taldeko enpresetan partaidetza.....	70.096	76.332	Egozteko dauden ondare gehikuntza...	13.569	8.624
Finantza inbertsioak epe luzera.....	50.626	57.316			
Gerorat. zergagatiko aktiboak.....	16	19	PASIBO EZ-ARRUNTA	1.174.901	1.293.560
			Epe luzeko hornidurak.....	27.300	23.386
			Epe luzeko zorrak.....	1.147.601	1.270.174
AKTIBO ARRUNTA	469.393	426.063	PASIBO ARRUNTA	510.728	432.158
Salgai dauden aktiboak.....	494	-	Epe laburreko zuzkidurak.....	109.100	93.481
Izakinak.....	9.957	9.912	Epe laburreko zorrak.....	103.104	92.403
Zord. eta kobratz. bst kontu batzuk..	353.158	313.746	Hartzek. eta ordaintz. bst kontu batz. ..	298.148	245.120
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	37.910	43.268	Aldizkatzeagatiko doikuntzak.....	376	1.154
Aldizkatzeagatiko doikuntzak.....	206	119			
Eskud. eta b. aktibo lik. baliok. batz. .	67.668	59.018			
AKTIBOA, GUZTIRA	4.865.711	4.856.895	PASIBOA GUZTIRA	4.865.711	4.856.895

C. 2017 ETA 2016-KO EKONOMIA-ONDARE EMAITZAREN KONTU BATERATUA		Euroak milakotan	
		2017	2016
Zerga sarrerak.....		4.677.298	4.194.613
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak.....		163.167	129.255
Salmenta garbiak, zerbitzu emakida, izakinen bariatz. eta ibilgeturako egindako lanak.....		135.971	119.438
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....		33.880	63.091
Hornidura gehiegizkoak.....		-	21.182
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK, GUZTIRA		5.010.316	4.527.579
Langileria-gastuak.....		(134.421)	(128.804)
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak.....		(4.488.049)	(4.009.084)
Hornidurak.....		(8.968)	(1.321)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.....		(211.610)	(201.672)
Ibilgetua amortizatzea.....		(117.039)	(115.916)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA		(4.960.087)	(4.456.797)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)		50.229	70.782
Ibilgetuaren emaitza.....		1.469	(413)
Ekitaldi itxien emaitza.....		(16.741)	(20.399)
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK		34.957	49.970
Sarrera finantzarioak.....		47.973	21.155
Gastu finantzarioak.....		(13.090)	(16.708)
Aktiboari egotzitako finantza gastuak.....		-	2.826
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak.....		(34.961)	(62.810)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK		(78)	(55.537)
Mozkinen gaineko zerga.....		-	(17)
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)		34.879	(5.584)

Finantza egoera bateratuak eskuratzeko Gipuzkoako Lurralde Historikoaren foru sektore publikoa osatzen duten erakundeon kontuak integratu dira, hau da, GFA eta erakunde autonomoak, sozietate publikoak et foru fundazioak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Kontu bateratuei dagokienez, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Finantza pasiboen bariazioan bateratutako likidazioa 10 milioi euroan dago murriztua, kontzeptu honetan Bidegi SAREN kapital zabalkuntza doitzean.
- Ondare-sarrerren aurrekontuak Bidegi, SAREN zerbitzu-prestazioak barne hatzen ditu, 119,3 milioi eurorenak, zeinak likidazioan “Tasak eta bestelako sarrerak” kontu-sailean jasotzen diren, 121,8 milioi euroren zenbatekoarekin.
- Egiatzko inbertsioak besterentzeagatiko sarreretan GFAN egindako 1,9 milioi euroren inbertsioak kendu dira eta ondorioz, kontzeptu honek 1,7 milioi euroren saldo negatiboa du.

B. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

B.1 ALDERDI OROKORRAK

GFA lurralde izaerako administrazio publikoa da eta bere eskumenak azaroaren 25eko 27/1983 Legearen I. Tituluan, EAEN erakunde komunen eta bere lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzkoan, zehazten dira; eskumen horiek nagusiki dira Estatuarekin hitzartutako zergak kudeatzea eta eskumen eskusiboko edo beste erakunde batzuekin partekatutako zerbitzu jakin batzuk ematea: errepide sarea, sustapen ekonomikoa, gizarte ongizatea, nekazaritza, kultura eta ikuskapena eta zenbait alorretan tokiko sektoreari laguntza ematea.

GFAN bi erakunde autonomo, merkataritzako hiru foru sozietate eta bi foru fundazio ditu 2017ko abenduaren 31n, beste enpresa eta entitate batzuetan partaidetza gutxienekoak izateaz gain, B.9an zehazten den moduan.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorrak 2017an indarreko arautegiak agintzen duen egitura eta informazioa barne hartzen du eta Gobernu Kontseiluak 2017ko uztailaren 10ean onetsi zuen, Gipuzkoako Batzar Nagusiek behin betiko onetsi zain dagoela.

Ekitaldian zehar ezargarria den araudi nagusia honako hau da:

- 4/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzkoa.
- 51/2012 Foru Dekretua, abenduaren 28koa, GLHko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten duena.
- 8/2016 Foru Araua, abenduaren 23koa, 2017ko ekitaldirako GLHko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena.
- 8/1996 Foru Araua, uztailaren 9koa, GLHko Ondareari buruzkoa.
- 2/2005 Foru Araua, martxoaren 8koa, GLHko Zergei buruzkoa.
- 38/2006 Foru Dekretua, abuztuaren 2koa, GLHko Zerga-bilketa Erregelamenduari buruzkoa.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B.2 AURREKONTUA, AURREKONTUKO ALDAKETAK ETA KONPROMISO-KREDITUAK

Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorrak 2017ko urterako abenduaren 23ko 8/2016 Foru Arau bidez onartu dira.

B.2.1 AURREKONTUKO ALDAKETAK

Honekin baterako taulak gastu kapitulu bakoitzeko 2017ko ekitaldiko kredituen bariazioa xehakatzen du, ekitaldian onartutako aurrekontuko aldaketen ondorioz:

	Kreditu gehigarriak	Gaikuntzak	Transf. eta egokitz. tekn.		Guztira
			Positiboak	Negatiboak	
Langileria-gastuak.....	-	-	-	(71)	(71)
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak.....	-	25	5.445	(2.975)	2.495
Gastu finantzarioak.....	-	-	-	(3.669)	(3.669)
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak.....	-	351.598	33.695	(34.375)	350.918
Inbertsio errealak.....	3.500	1.090	12.275	(9.151)	7.714
Kapitaleko transfer. eta diru-laguntzak.....	-	-	12.928	(5.660)	7.268
Finantza-aktiboen bariazioa.....	-	-	500	(8.942)	(8.442)
GASTUAK GUZTIRA	3.500	352.713	64.843	(64.843)	356.213

Aldundiko Gobernu Kontseiluak kreditu osagarri bat onartu du Diruzaintzako Geldikinaren kontura, 3,5 milioi euroren zenbatekoan, hartzekodunen konkurtsuan dagoen zerga zordun baten ondasun higiezinak esleitzeko eskubidea egikaritzeko, 2017ko ekitaldian egikaritu ez dena.

Transferentzia eta diru-laguntza arrunten kontzeptuko kreditu gaikuntzen zenbatekotik 119,4 milioi euro baliatu dira Estatuarekin Kupoak finantzatzeko eta 232,2 milioi euro Eusko Jaurlaritzari ekarpenak egiteko; hori guztia finantzatu da 278,6 milioi euroren zerga sarrera handiagoekin; aurreko ekitaldiko Kupoaren likidazioarekin, 18,4 milioi eurorena; 17,6 milioi euroren crekin; eta Udal Finantzaketarako Foru Funtsetik eratorritako sarrerekin, 37 milioi eurorena.

B.2.2 KONPROMISO-KREDITUAK

Honekin baterako taulak gastu kapitulu bakoitzeko 2017ko ekitaldiko konpromiso-kredituen bariazioa xehakutzen du, ekitaldian onartutako aurrekontuko aldaketan ondorioz:

	Aurrekontua Hasierak.	Gobernu Kontseilua	Euroak milakotan		Guztira
			Transf. eta egokitz. tekn. Positiboak	Negatiboak	
Gastu arruntak ondasun eta zerbitz.	2.961	1.006	63	(125)	3.905
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak.....	17.925	234	1.223	(1.213)	18.169
Inbertsio errealak	57.473	4.293	1.927	(2.526)	61.167
Kapitaleko transferentziak eta diru-laguntzak.....	46.623	2.000	5.938	(5.287)	49.274
Finantza aktiboak.....	150	-	-	-	150
GASTUAK GUZTIRA	125.132	7.533	9.151	(9.151)	132.665

2017ko ekitaldirako Aldundiaren Kontseiluak konpromiso kreditu berriak onartzeko muga, Foru Arau bidez onartutako kredituen % 10en pareko dena, 12,5 milioi eurorena da. Kontzeptu honen izenean onartutako zenbatekoa 7,5 milioi eurorena da.

GFAREN konpromiso kredituen azken aurrekontua, 132,7 milioi eurorena, fase baimenduan egikaritzen da % 33,4an eta fase hitzartuan % 31n. Fase baimendura iristen ez diren kontu-sail esanguratsuenak honako hauek dira:

- Antzuola-Bergara saihebidetako lanak 25,7 milioi euroren zenbatekoan, zeinaren egikaritzea Bidegi, SA foru sozietate publikoak finantzatu duen.
- Ogasun eta Finantza Saileko hiru proiektu, guztira 14,5 milioi euroren zenbatekoan (zerga-plataforma berria: 9 milioi euro; Kontua proiektua: 5 milioi euro eta Big data proiektua: 500.000 euro). Hiru proiektu hauetatik Kontua proiektuari dagokiona 2017ko ekitaldian esleitzen da eta 2017ko ekitaldi itxieran hitzartutako modura 3,9 milioi euroren zenbatekoak azaldu behar du.
- Oinezkoen bizikleta-bideetan obrak eta kapitaleko diru-laguntzak Pasaialdean jarduketak egiteko 7,7 eta 9,6 milioi euroren zenbatekoan, hurrenez hurren, ekitaldian konprometitu ez direnak.
- Gizarte zerbitzuen baliabideak zaharberritu, zabaldu eta egokitzeko kapitaleko diru-laguntzak, 10,8 milioi eurorenak, zeinaren egikaritzea atzeratu den.
- Anoetako kirol-hirirako 4 milioi euroren kapitaleko diru-laguntzak, 2017ko ekitaldi itxieran konprometitu modura azaldu behar luketenak.

B.3 LANGILERIA-GASTUAK

Ekitaldi itxieran kontzeptu eta plantillaren arabera xehakatutako langile gastuak honako hauek dira:

	Euroak milakotan			
	GASTUA		Plantilla erreala 12-31n	
	2017	2016	2017	2016
Goi kargudunak	662	656	9	9
Behin-behineko langileak eta zuzendariak	4.094	3.952	66	66
Funtzionarioak.....	77.434	74.721	1.770	1.726
Lan kontratuko langile finkoak	1.675	1.718	46	49
Aldi-baterako lan kontr. langil.	608	593	20	22
Ordainsariak eta plantilla	84.473	81.640	1.911	1.872
Gizarte Segurantza	20.569	19.375		
Elkarkidetza	1.500	1.469		
Klase Pasiboak.....	281	312		
Erretiro sariak	1.122	1.216		
Pentsioak hitzarmen berezia	-	94		
Mediku-botika laguntza.....	52	47		
Aseguru pribatuak.....	478	453		
Beste gizarte-gastu batzuk.....	62	2		
KAPITULUA GUZTIRA	108.537	104.608		

Ordainsariak

2017ko uztailaren 18an Aldundiko Gobernu Batzordeak GFaren zerbitzura diharduten langileen ordainsariak 2016koen aldean % 1 gehitzeko erabakia hartu zuen, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Erabaki hauen edukia erakunde autonomo, merkataritzako foru sozietate eta Sueskola fundazioari ere badagokie.

Kalte-ordainak

2017ko ekitaldian GFak 34 langileri guztira 1,1 milioi euroren sariak ordaindu dizkie (31ri alde aurretiko erretiroagatik eta 3ri uko egiteko pizgarriengatik), banako 40.000 euroren mugarekin, GFako Giza Baliabideetako Plan Estrategikoari jarraikiz, errenta salbuetsi modura aitortu dituela.

2016ko ekitaldian egin zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren aldaketak agintzen du langilearen lanuzteagatik kalte-ordainak salbuetsitako errentatzat hartzeko, administrazio publikoetako giza baliabideen plan estrategikoetatik eratorritakoak, Langileen Estatutuaren testu bateginaren 51. artikuluan aurreikusitako kausaren bat izan behar dutela oinarri, zeinak kaleratze kolektiboa definitzen duen kausa ekonomiko, tekniko, antolaketazko edo ekoizpenekoetatik eratorritako modura. Giza Baliabideen Plan Estrategikoa GFako langile guztiei aplikatzen zaie, erretirorako legezko adinari dagokionez antzinasunari eta adinari dagozkion betekizun jakin batzuk betetzen baditu; hori dela eta,

ez dira kaleratze kolektiboarekin parekagarri diren kausak gertatu eta honenbestez, ez dira Foru Arauan errenta salbuetsizat jotzeko finkatutako baldintzak betetzen.

Plantilla

Hona hemen Lanpostu Zerrendaren, aurrekontuko plantillaren eta egiazko plantillaren egoera 2017ko ekitaldi itxieran:

	LZ	Aurrek. Plantilla	Plantilla Erreal
Funtzionarioak eta lan-kontratu finkoko eta aldizkako langileak	1.789	1.980	1.816
Behin-behineko langileak.....	33	31	32
	1.822	(*)2.011	1.848
Goi kargudunak.....	E/E	42	43
Aldi-baterako lan kontr. langil.....	E/E	15	20
GUZTIRA		2.068	1.911

(*) Aurrekontuko plantilla modura barne hartu dira aldi bateko izaera duten kontratuak (azpimarratzekoak dira: errenta kanpainarako teknikarien programako bitarteko 97 kontratu, suhiltzaileak ordezkatzeko 50 kontratu eta Egogain egoitzarako 36 zaintzaile kontratu.)

2017ko ekitaldian zehar LZ aldatu da 11 lanpostu garbi gehituta. Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2017ko uztailaren 18an 2017ko enplegu eskaintza publikoa onartu zuen, zeinetan administrazio orokorreko 11 teknikari lanpostu, Ogasuneko goi mailako 20 teknikari lanpostu eta gizarte-langileen 10 lanpostu barne hartu diren.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B.4 ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Ondasun arrunt eta zerbitzuetako erosketa gastuak ondotik xehakatutakoak dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	Obligazioak		D-O	Konpromiso k.
	2017	2016	2017	D fasea
Errentamenduak	1.213	1.517	-	-
Ibilgetua konpondu eta zaintzea	4.952	4.836	24	-
Bulegoko materiala	301	243	-	-
Hornidurak	6.890	6.858	31	-
Komunikazioak	2.122	2.556	6	-
Garraioak	654	552	-	-
Aseguru sariak	535	567	-	-
Zergak	635	507	-	-
Hainbat gastu	2.578	853	-	-
Dietak, mugikortasuna eta lekualdaketak	552	474	-	-
<u>Kanpoko enpresek egindako lanak</u>				
Laguntza emateko zerbitzuak (*) (ikus B.5.2).....	57.654	55.982	-	-
Azterlanak eta irizpenak.....	8.309	6.109	175	1.175
Publizitatea eta propaganda.....	1.669	1.482	10	-
Erakusketak eta lehiaketak	1.714	1.371	-	-
Informatika zerbitzuak	8.521	8.463	-	-
Eraikinak garbitzea.....	5.193	5.023	-	-
Hondartzak garbitzea.....	1.194	1.049	-	-
Kontratu sozio-kulturalak eta kiroletakoak	6.594	5.119	-	-
Segurtasuna	1.557	1.535	-	-
Kanpoko enpresek egindako beste lan batzuk.....	7.948	6.224	119	685
Beste azpikontzeptu txikiago batzuk	2.120	2.170	54	-
KAPITULUA GUZTIRA	122.905	113.490	419	1.860

(*) Laguntza-zerbitzuek eragindako gastuak 2017ko ekitaldian kapituluko gastu osoaren % 46,9 egin dute (% 49,3 2016an).



B.5 EMANDAKO TRANSFERENTZIA ETA DIRU-LAGUNTZA ARRUNTAK ETA KAPITALEKOAK

Hona hemen kapitulu hauei dagokienez, ekitaldian aitortutako eta gauzatzeko dagoen erabilitako gastuaren xehakapena; baita, datozen ekitaldietarako erabilitako konpromisoak ere:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan					
	ARRUNTAK			KAPITALEKOAK		
	Obligazioak	Konpromiso k.		Obligazioak	Konpromiso k.	
		D-O	D fasea		D-O	D fasea
Erakunde konpromisoak (ikus B.5.1)	4.081.718	-	-	-	-	-
Izendunak	3.109	2	-	7.259	1.540	390
Gobernu edo Diputatuen Konts. bidez emandakoak ..	57	-	-	2.141	1	604
Deialdi publiko bidez emandakoak.....	4.367	123	936	3.964	515	8.720
Itundutako jarduerak (ikus B.5.2)	30.326	-	-	-	-	-
Etterako laguntza zerbitzua	(*)1.045	-	-	-	-	-
Gipuzkoako toki entitateak	48.904	125	936	13.364	2.056	9.714
Izendunak.....	12.451	-	497	692	-	825
Gobernu edo Diputatuen Konts. bidez emandakoak ..	1.477	-	89	1.499	-	1.531
Deialdi publiko bidez emandakoak.....	7.500	48	3.027	4.854	-	1.641
Itundutako jarduerak (ikus B.5.2)	33.826	-	-	-	-	-
Enpresa pribatuak	55.254	48	3.613	7.045	-	3.997
Izendunak	14.824	18	3.831	2.069	-	444
Gobernu edo Diputatuen Konts. bidez emandakoak ..	1.148	4	357	523	-	125
Deialdi publiko bidez emandakoak.....	15.139	34	3.129	13.805	165	7.662
Itundutako jarduerak (ikus B.5.2)	81.025	-	-	-	-	-
Gizarte zerbitzuak	88.973	-	-	-	-	-
Irabazi asmorik gabeko famil. eta erak.	201.109	56	7.317	16.397	165	8.231
Uliazpi	15.906	-	-	345	-	-
Kabia	4.987	-	-	125	-	-
IZFE, SA	-	-	-	1.895	-	-
Etorlur Gipuzkoako Lurra, SA.....	815	-	-	-	-	-
Kirolgi Fundazioa	2.218	-	-	-	-	-
Sueskola Fundazioa.....	160	-	-	25	-	-
Erak. auton. eta Foru Sekt. Publikoari transfer.	24.086	-	-	2.390	-	-
Txartel bakarra: Kalte-ordainak	31.607	1.527	-	-	-	-
Batzar Nagusiak	7.064	-	-	-	-	-
Pasaiaiko Portuko Agintaritza.....	-	-	-	1.048	-	-
Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza.....	1.315	-	-	-	-	-
Bestel. transferentziak eta diru-laguntzak.....	748	-	26	306	107	23
Bestel. transferentziak eta diru-laguntzak	40.734	1.527	26	1.354	107	23
KAPITULUA GUZTIRA	4.451.805	1.756	11.892	40.550	2.328	21.965

(*) 2017ko ekitaldian erregistraturiko gastuak ez du laugarren hiru hilekoa jasotzen, 2,5 milioi euroren zenbatekoan, 2018ko aurrekontuan erregistratu dena.

B.5.1 ERAKUNDEARTEKO KONPROMISOAK

Kontzeptu honetan barne hartzen dira GFAk Kupo kontzeptuan Estatuari egiten dizkion ekarpenak, bere gain hartu gabeko karga eta sarreraren arteko aldeagatik, EAEko Administrazio Orokorrari aurrekontuak finantzatzeko ekarpen modura egiten dizkionak, eta udalei Udal Finantzaketarako Foru Funtz modura egindakoak. EAEri eta udalei egindako ekarpenak GFAk itunpeko zergen kontzeptuan egindako diru-bilketaren banaketa modura kalkulatu dira eta honenbestez, zenbatekoa diru-bilketa horri hertsiki loturik dago. Kupoaren zenbatekoa ez ezik, Administrazio Orokorrari egiten zaion ekarpena ere Autonomia Erkidego mailan zehazten dira.

ERAKUNDEARTEKO KONPROMISOAK	Euroak milakotan			
	GASTUA		DIRU-SARRERA	
	2017	2016	2017	2016
Ekitaldiko Kupoa	287.966	247.964	-	-
2007-2015 kupo likidoa eta 2016ko b-b kupo.....	78.242	-	-	-
Aurreko ekitaldiko kupo likidatzea (ikus B.8).....	-	-	30.461	14.774
ESTATUARI KUPOA	366.208	247.964	30.461	14.774
Ekarpen orokorra.....	2.675.462	2.729.022	-	14.491
Ertzaintza	22.745	10.332	-	-
Aparteko finantzaketa eta berria	367.664	-	-	-
Eskumen berriak.....	167.046	154.094	-	-
Doiketa funts orokorra (ikus B.8)	11.163	10.219	53.907	43.914
Abal publikoen aparteko programa	1.146	1.681	-	-
EAE-RI EKARPENAK	3.245.226	2.905.348	53.907	58.405
Udal Finantzaketarako Foru Funtza	440.287	458.902	-	9.566
UDALEI EKARPENAK	440.287	458.902	-	9.566
FPEB erabakia F. Aldundiak konpents. (ikus B.8).....	28.026	-	30.115	-
Gizarte Zerbitzuen Funtza (ikus B.8).....	1.971	988	3.289	-
FPEBtik eratorritako beste gastu eta sarrera batzuk	29.997	988	33.404	-
ERAKUNDEEN KONPROMISOAK GUZTIRA	4.081.718	3.613.202	117.772	82.745

Estatuari kupo

Abenduaren 28ko 11/2017 Legeak arautzen du, 2017-2021 bosturtekorako Euskadiko Kupo kalkulatzeko metodologia onartzen duena.

GFAk gastu modura erregistratu ditu 2017ko ekitaldian Eusko Jaurlaritzak jakinarazitako zenbatekoak, Estatuari ordaindu beharreko Kupoaren maiatz, irail eta abenduko epeei dagozkienak; horiek guztiek 288 milioi euro egiten dituzte; eta sarrera modura erregistratu ditu 2016ko ekitaldiko Kupoaren likidazioak, 30,5 milioi euroren zenbatekoan (ikus B.8). 2018ko maiatzean 2017ko ekitaldia kitatu da eta GFAk 4,7 milioi euroren kobratzeko saldoa du, 2018an sarrera modura erregistratu dena.

Ekonomia Itunaren Bitariko Batzordeak erregularizatzen ditu Estatuko Administrazio Orokorraren eta Euskal Herrikoaren arteko desadostasunak Kupoaren kalkuluan; 2017ko



maiatzaren 17ko Batzordetik gailendu nahi ditugu 2007tik 2016ra bitarteko kupoaren behin betiko likidazioak, GFAREN aurrekontuan 78,2 milioi euroren gastua egin dutenak.

Euskal Autonomia Erkidegoari finantza ekarpenak

Martxoaren 23ko 2/2007 Legeak arautzen du, Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoak, zeina indarraldia iraungi ostean eta aipatutako Legearen azken xedapenari jarraikiz, zuzenean luzatu den.

EAEri egin beharreko ekarpenak, zergen diru-bilketa abiaburu hartuta, bi banaketa-molderen arabera zehazten dira:

- Banaketa bertikalaren eredua: EAEko hiru lurralde historikoetako Ogasun Nagusiek jaso beharreko kopurua finkatzen du, euren gain hartutako eskumenen arabera (% 70,04) eta ekarpen orokorra deitzen zaio.
- Banaketa horizontalaren eredua: Aurreko atalean adierazitako ekarpen orokorra behin finkatu ondoren, ekarri beharreko koefizientea ematen da, zeina lurralde bakoitzaren errentarekiko (% 70) eta ahalegin fiskalarekiko (% 30) modu proportzionalan zehazten den. Ekitaldian aplikatu diren ehunekoak izan dira: % 16,45 Arabarentzat, % 50,66 Bizkaiarentzat eta % 32,89 Gipuzkoarentzat.

2017ko ekitaldiko Eusko Jaurlaritzaren ekarpenen likidazioak, FPEBk 2018ko otsailean egindakoak, Doiketa Funts Orokorraren likidazioa eragin du, GFarentzat kobratzeko 53,9 milioi euroren zenbatekoa eman duena, 2017ko ekitaldiko sarreraren aurrekontuan erregistratu direnak (ikus B.8); honela, bada, ekitaldian Aldundiak egin dituen ekarpenek kontzeptu horren izenean 11,2 milioi euroren gastua eragin dute.

Udal Finantzaketarako Foru Funtza

Martxoaren 23ko 2/2007 Legeak, Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoak, indarraldiaren ostean eta aipatu Legearen azken xedapenari jarraikiz zuzenean luzatu denak, laugarren xedapen gehigarrian gomendatzen du toki entitateek itunpeko sarreretatik eratorritako baliabideen % 54,7ko gutxieneko partaidetza izatea.

GFAn azaroaren 23ko 15/1994 FAK, Udal Finantzaketarako Foru Funtza arautzen duenak agintzen du udalerriek itunpeko zergen kontzeptuko sarreretan izango duten partaidetza kalkulatzeko ehunekoak % 58koa izango dela.

2017ko ekitaldian Udal Finantzaketarako Foru Funtsera egindako ekarpenak 440,2 milioi eurorenak izan dira eta Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2018ko otsailaren 14an onartutako likidazioaren ondorioz, udalek 28 milioi euroren zenbatekoa itzuli behar dute.

FPEBk 2017ko urriaren 11n erabaki zuen lurralde historikoak 91,6 milioi euroren zenbatekoarekin konpentsatzea (30,1 milioi euro Gipuzkoari dagokionez, ikus B.8), 2017ko maiatzaren 17ko Ekonomia Itunaren Bitariko Batzordeak hartutako erabakien eredura

txertatzeak Euskal Herriko erakundeetan izan duen eragin ezberdina berdintzearen, zeinaren indarrez Estatuko Administrazio Orokorraren eta Euskal Herrikoaren arteko desadostasunak Kupoaren kalkuluan erregularizatzen diren. Kopuru honetatik GFak 28 milioi euro udalen alde bereizten du 2017ko ekitaldiko likidazioa konpentsatzeko, jada aurreko paragrafoan azaldu dena.

B.5.2 LAGUNTZA-ZERBITZUAK ETA GIZARTE-POLITIKAKO HITZARMENAK

GFak 2017ko ekitaldian gizarte zerbitzuetan egindako gastua, gastu orokorrak barne hartu gabe, era honetara zati-banatzen da:

- Laguntza-zerbitzuak, “Ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioa” kapituluaren erregistratuak 57,7 milioi euroren zenbatekoan. Egindako gastua ondasun eta zerbitzuen kontratazioaren araudiak arautzen du eta GFaren jabetzako zentroetan emandako zerbitzuei dagokie (ikus B.4).
- Gizarte zerbitzuetako hitzarmenak eta kontratu-programak, “Transferentzia arruntak” kapituluaren erregistratuak, 145,2 milioi euroren zenbatekoan. Gastua GFarenaz besteko zentroetan egindako zerbitzualdiari dagokio. Kontratu-programak 2017ko ekitaldian izenpetu dira aurreko ekitaldietan izenpetutako hitzarmen gehienak ordezkatzuz.

Hona hemen hitzarmen eta kontratu-programako gastuaren xehakapena itunpeko jardueraren eta jarduera zerbitzu-emaiaren arabera bereizia:

	GUZTIRA	Euroak milakotan		
		Toki entitateak	Enpresa pribatuak	Irabazi asm. gabeko erak.
Adinekoen egoitzak.....	57.749	19.885	18.557	19.307
Egoitzetako unitate psikogeriatrikoak	8.544	1.945	3.603	2.996
Egoitzetako defizitaren estaldura	1.525	1.525	-	-
Adinekoen egoitzak	67.818	23.355	22.160	22.303
Desgaituei arreta eta zaintza.....	25.958	-	1.756	24.202
Buru-nahastea dutenen egoitzak eta eguneko zentroak	7.426	-	-	7.426
Desgaitasuna	33.384	-	1.756	31.628
Sendian, atsedeneko egoitzak eta asteburuko egonaldiak	1.692	37	1.512	143
Adinekoen eguneko zentroak	15.719	6.934	5.017	3.768
Adinekoei arreta sozio-sanitarioa eta zaintza	3.180	-	-	3.180
Gizareratzea (ostatu ematea, progr. eta egun. zentr.)	14.575	-	-	14.575
Adingabeen zaintzarako zentroekiko hitzarmena	8.809	-	3.381	5.428
GIZARTE ETA LAGUNTZA PRESTAZIOAK GUZTIRA	145.177	30.326	33.826	81.025

2017ko ekitaldian aplikatutako prezioen berrikuspenak Aldundiko Gobernu Kontseiluak onartzen ditu eta langile kostuen igoeratik eratorritako ondorio ekonomikoak bideratzeko helburua dute, GFak proposaturik enpresarien elkarte eta erakunde sindikalen artean lortutako enpresa-hitzarmen berriak ezartzearen ondorioz; era honetara, baliabideak

kudeatzen dituzten enpresen egonkortasun ekonomikoa bermatzen da. Honako hauek dira onartutako igoerak:

	Euroak milakotan	
	% igoera	Zenbat.
Mendekotasun eta ezintasun egoeran dauden zaharrentzako kontratuak	2,2	514
Babesgabe, gizarte-bazterketa eta buru-nahastea duten adingabeak artatzeko kontratuak	(*)3,0-1,3	651
Mendekotasun eta ezintasun egoeran dauden adinekoentzako hitzarmenak eta kontratu-progr.....	2,2	3.031
Babesgabe, gizarte-bazterketa eta buru-nahastea duten adingabeak artatzeko kontratuak	(*)3,0-1,3	598
Ezintasuna duten pertsonentzako hitzarmenak eta kontratu-programak	1,3	498
GUZTIRA		5.292

(*) Igoera % 3,0koa da langile kostuei dagokienez, eta % 1,3 gainerako kostuetarako.

B.5.3 ERREPIDEKO BIDAIARIEN GARRAIOA

Errepideko bidaiarien garraio zerbitzua emateko zerbitzu publikoaren kudeaketa kontratuetatik honako bi kontratu hauen informazioa azpimarratu nahi dugu:

Errepideko bidaiarien garraio-emakida, Tolosa, N-1, Buruntzaldea eta loturak

Garraio-emakida honi dagokionez, 2017ko ekitaldian 5,5 milioi euroren gastua eragin duena, honako informazio hau gailentzen dugu:

- Lerro honetan metatzen diren emakiden indarraldia 2012ko ekitaldira arte luzatu zen.
- 2014 eta 2015eko ekitaldietan abiarazi ziren lizitazio prozedurak, hainbat errekurtsio eta eparen ondoren, ezin jo izan zuten zerbitzuaren esleipen fasea.
- Lurraldearen Mugikortasun eta Antolamenduko diputatuaren 2017ko abuztuaren 28ko Foru Agindu bitartez emakida berria ustiatzeko aurreproiektua onartu zen eta alegazioen epea igaro ostean, 2018ko uztailaren 10eko Aldundiko Gobernu Kontseiluaren erabaki bitartez Ustiapen-proiektua onartu zen eta lizitazioa EBAOn eman zen argitara 2018ko abuztuan.

Goierriko eskualdeko errepideko bidaiarien garraioaren emakida

2015eko ekitaldian esleitutako Goierriko eskualdeko errepideko bidaiarien garraio-zerbitzuaren emakida 2015eko ekitaldian esleitu zen 7 urteko aldirako eta 2017ko ekitaldian 2,4 milioi euroren gastua izan zuen; ordea, lizitatzaille batek EHJANen aurrean errekurritu egin zuen, zeinak 2016ko azaroan emakida baliogabe utzi zuen, eskaintza ekonomikoak lizitazio-aurrekontu gehienekoa gaitzen zuelako zerbitzu berezien atalean. Epai hau GFAk errekurritu zuen Auzitegi Gorenaren aurrean eta honek 2017ko ekainaren 29an aipatutako errekurtsioa tramitatzeko ez onartzea erabaki zuen, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legea aplikatuta; honenbestez, EHJANen epaia irmoa da.



Lurraldearen Mugikortasun eta Antolamenduko diputatuaren 2018ko apirilaren 10eko Foru Agindu bitartez aurreko esleipenari heldu zaio berriz eta 2018ko irailean formalizatu da.

B.5.4 GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOA

2017ko urterako GLHren Aurrekontu Orokorrak onesten dituen abenduaren 23ko 8/2016 FAren zortzigarren eta bederatzigarren xedapenek agintzen dute Gipuzkoako Hiri Hondakin Solidoen Kudeaketarako 2008-2016 Plan Orokorrak eta horren Aurrerabide Dokumentuak, 7/2008 FA bidez onartutakoak, erabat aplikagarri izango direla harik eta bi agirietan aurreikusitako zehaztapenak eta azpiegituren erabateko egikaritza gauzatu arte, eta aipatutako 7/2008 Foru Arauaren 5. artikulua aldarazten dute adieraziaz “GFAk Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa finantzatuko duela eskumeneko dituen altako azpiegituren kostuaren % 33ren pareko zenbatekoarekin, Foru Arau honen bitartez onartutako plangintzan jasoak daudenak”.

2017ko ekaineko Aldundiko Gobernu Kontseiluak onartutako diru-laguntzak arautzen dituen baldintza berrietan jasotzen da “... diru-laguntzaren norakoa bermatzearren, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak egiaztatuko du azpiegiturretan inbertsioak egikaritu edo aurreikusi dituela, betiere emandako diru-laguntzen guztizkoak ez dezan zuzen edo zeharka egikaritutako edo aipatutako plangintzan aurreikusitako azpiegituren kostuaren % 33 gainditu. Aipatutako Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren erabakiko aurrekarietan inbertsioak guztira 376 milioi euroren zenbatekoan zenbatetsi dira eta honako hauei dagozkie: emakidadunak egikaritu beharreko Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 1. faseko lanen aurreikuspenak, 238,9 milioi euro; Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SAk abiarazitako inbertsioak, 73,6 milioi euro gaurdaino; eta Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 2. fasean eta beste obra osagarri batzuetan gauzatzeko dauden inbertsioen 63,5 milioi euro. 2017ko abenduaren 31n GFAk 53 milioi euro ordaindu ditu azpiegitura hauei dagokienez.

Kontu Orokorraren Oroitidazkiak jasotzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak konpromisoen bi agiri izenpetu dituela, zeinaren indarrez zenbait obligazio hartzen dituen bere gain GLHn hiri hondakinen azpiegituren eraikuntza eta martxan jartzea finantzatzeko kontratuen esparruan, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralean aurreikusiak daudenak; kontratu hauek izenpetu dituen erakundea GHK, SA da, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren berezko baliabide instrumental dena.



B.6 INBERTSIO ERREALAK ETA IBILGETUA

B.6.1 INBERTSIO ERREALAK

Hona hemen Inbertsio errealen aitortutako obligazio, ekitaldian egikaritzeko dauden konpromiso eta datozen ekitaldietako hitzartutako kredituen xehakapena:

KONTZEPTUA	Obligazioak	Euroak milakotan	
		D-O 2017	Konpr.kred. D fasea
Orubeak eta landalur-finkak.....	337	-	-
Eraikinak.....	10.341	647	1.813
Errepideak, bideak eta pistak.....	50.368	2.914	2.007
Eraikuntza bereziak.....	1.569	44	91
Makineria, instalak. eta tresneria.....	2.644	4	-
Garraio gaiak.....	1.144	2	-
Altzariak eta bulegoko ekipoak.....	702	-	-
Aplikazio informatikoak.....	13.666	440	-
Inbertsio artistikoak eta kulturalak.....	853	4	-
Obra eta instalazioak besteren ibilgetuan.....	4.291	5	1.574
Obra eta instalazioak jasotako besteren ibilgetuan.....	1.113	27	-
Bestelako ibilgetu materiala.....	12	-	-
Ibilgetu ez-materiala.....	574	-	-
KAPITULUA GUZTIRA	87.614	4.087	5.485

Aurrekontuan aitortutako 87,6 milioi euroren obligazioak ondare-kontabilitateko kontzeptu esanguratsuenetan islatzen dira, era honetara:

- Ibilgetu material eta ukiezinako altak, guztira 23 eta 13,9 milioi euroren zenbatekoan, hurrenez hurren (ikus B.6.2).
- Ekonomia-ondareko emaitza-kontuan erregistratzen diren inbertsio errealak; horietan aipatzekoak dira errepideen konponketa 43,6 milioi euroren zenbatekoan eta beste erakunde batzuentzat egiteko lanak, 4,3 milioi eurorenak (ikus B.12).

B.6.2 IBILGETU UKIEZINA, MATERIALA ETA IBILGETUKO INBERTSIOAK

Hona hemen Ibilgetu ukiezin, material eta ibilgetuko inbertsioen saldoak ekitaldi itxieran:

	Euroak milakotan	
	17.12.31	16.12.31
Ibilgetu ez-materiala.....	29.945	28.660
Ibilgetu materiala.....	2.962.366	3.003.234
Ibilgetuko inbertsioak.....	537	523
GUZTIRA	2.992.848	3.032.417

Egoeraren Balantzeko kontu-sail hauek guztira 39,6 milioi euroren zenbateko garbian behera egitea, kontu-sail esanguratsuenetan ibilgetu material eta ukiezinaren erosketa eta hobekuntzei dagokie, hurrenez hurren 23 eta 13,9 milioi eurorenak (ikus B.6.1) eta 2017ko ekitaldiaren amortizazioarekin, 77,2 milioi euroren zenbatekoan.

GFAREN ibilgetu material eta ukiezinak 2.992,3 milioi euroren saldoa zuen 2017ko ekitaldi itxieran eta ez dago inbentario batean hainbat kontzeptutan banakako xehakapen bidez euskarrিতua, guztira 1.941,8 milioi euroren zenbatekoan; hona hemen xehakapena:

- Erabilera orokorrerako emandako azpiegiturak, 1.401,9 milioi euroren amortizazio-kostu garbiaren balioa dutenak, 2012ko ekitaldia baino lehenago gauzatu zirenak eta abenduaren 28ko 51/2012 FD indarrean sartu ostean –zeinaren bidez GLHren Foru Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onartu zen- ibilgetu materialera eskualdatu ziren. Ez dago saldo hau euskarrিতuko duen inbentariarik eta ondasunen izaera aintzat hartuta, komenigarria litzateke zuzentzea.
- 51/2012 FD indarrean sartu ostean gauzatutako uneko azpiegiturak “uneko ibilgetu material”etan erregistratzen dira eta 99 milioi euroren saldoa dute 2017ko abenduaren 31n. Ez dago saldo hau euskarrিতuko duen inbentariarik eta amaitutakoak ez dira ibilgetu materialera eskualdatu.
- GFak egikaritutako obra hidraulikoak, uren zerbitzua kudeatzen duten mankomunitate eta partzuergoekin finantzatzen direnak eta GFatik azpiegituren lagapenean jasotzen dituztenak. GFAREN ibilgetuan kostu garbia 400,6 milioi eurorena da.
- 40,3 milioi euroren batez besteko kostua duten ibilgetuko beste kontu-sail batzuk ere ez dute inbentarioan xehakapenik:

	Euroak milakotan	
	Kostua	Amortizazio funtsa
Aplikazio informatikoak.....	218.946	191.780
Inbertsioa ikerketa eta garapenean.....	36.511	34.597
Ibilgetu ukiezina guztira	255.457	226.377
Makineria.....	9.098	8.110
Tresneria.....	17.451	15.839
Bestelako instalazioak.....	13.931	11.728
Ekipoak eta segurtasun-elementuak.....	4.523	3.943
Irudia eta soinua eskualdatzeko ekipoa.....	7.908	7.405
Altzariak.....	31.601	27.790
Informazio prozesuetarako ekipoa.....	17.045	16.426
Bestelako ibilgetu materiala.....	18.402	17.464
Ibilgetu materiala guztira	119.959	108.705
GUZTIRA	375.416	335.082



B.7 SARRERAK, ZORDUNAK ETA ZERGA-HARTZEKODUNAK

B.7.1 AURREKONTUETAKO DIRU-SARRERAK

2017ko aurrekontuan aitortutako zerga-sarrerak itzulketak kenduta bildutakoak dira, izan ere GFAk kutxa irizpidea baliatzen du zerga-sarreraren aurrekontuko kontabilitatean. Hona hemen zerga zuzen, zeharkako zerga eta tasa eta bestelako sarreraren kapituluaren kontzeptuen araberako xehakapena:

	Euroak milakotan	
	ESKUBIDE AITORTUAK	
	2017	2016
Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga.....	1.655.730	1.561.946
Ez egoiliarren errentaren gaineko zerga	11.401	12.751
Sozietateen gaineko zerga	274.836	249.107
Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga.....	46.810	41.806
Aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zerga	66.963	70.854
Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergak.....	10.803	10.598
Kreditu entitateetako gordailuen gaineko zerga.....	7.581	7.601
ZERGA ZUZENAK GUZTIRA	2.074.124	1.954.663
Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentuen gaineko zerga	76.314	63.907
Balio erantsiaren gaineko zerga	1.985.348	1.653.751
Zerga bereziak	478.361	466.675
Aseguru sarien gaineko zerga	24.720	23.712
Jokoaren eta ingurumenaren gaineko zergak.....	3.935	2.821
Desagertutako beste zeharkako zerga batzuk	(2.505)	(3.162)
ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA	2.566.173	2.207.704
Jokoaren gaineko tasak	12.500	12.110
Suteak itzaltzeko eta larrialdietarako tasak.....	2.412	2.764
Zerga-isunak.....	6.424	9.789
Beste zehapen batzuk.....	3.631	5.268
Premiamendu gainkargua	3.768	4.162
Berandutza interesak	9.274	10.619
Ekitaldi itxien itzulketak	2.209	3.472
Bestelako tasak eta bestelako sarr.....	6.930	5.377
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	47.148	53.561
1, 2 eta 3 KAPITULUETAKO SARRERAK GUZTIRA	4.687.445	4.215.928

2017ko aurrekontuan guztira aitortutako 4.687,4 milioi euroren sarreraren guztizkoak zergazkoak ez diren sarrerak barne hartzen ditu, 4,9 milioi euroren zenbatekoan. Ekitaldiko zerga-sarreraren diru-bilketa 4.635,2 milioi euro da eta ekitaldi itxiena, berriz, 47,4 milioi euro. Zerga-sarreretatik, itunpeko zergeri dagozkienak 4.670,2 milioi euro dira.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B.7.2 ZERGA-ZORDUN ETA -HARTZEKODUNAK

Zerga-zorren baliogabetzeak

Hona hemen 2017ko ekitaldian zerga-zorren baliogabetzeak:

	Euroak milakotan			
	Zorrak, jatorria non duten		GUZTIRA	GUZTIRA
	Aurreko ekit.	Uneko ekitaldian	2017	2016
Likidazioen baliogabetzea eta borondatezko bidera buelta ..	49.018	6.848	55.866	86.288
Beste administrazio batzuetan sartzeagatiko bajak.....	-	-	-	62.225
Agindu direlako bajak.....	9.150	1	9.151	6.066
Konkurtsu-hitzarmenengatiko bajak	-	-	-	976
Zehapenak barkatzeagatiko bajak.....	65	18	83	229
Epai eta bestelakoengatiko bajak.....	4.504	1.056	5.560	8.993
ZERGA-ZORREN BALIOGABETZEAK GUZTIRA	62.737	7.923	70.660	164.777

Zerga-zordunak, hartzekodunak eta hornidurak

Hona hemen Egoeraren Balantzeko kontuak zerga zordunei dagokienez:

	Euroak milakotan			
	Zerga zordunak	Aurrekont. zordunak	Beste zordun batzuk	Balantzea guztira
Epe luzeko finantza-inbertsioak	49.615	-	882	50.497
Epe luzera geroraturiko zerga-zorrak	49.615	-	-	49.615
Langileei e/luz. kredituak (ikus B.9)	-	-	882	882
Zordunak eta kobratz. bst knt b.	88.955	99.344	-	188.299
Epe laburrera geroraturiko zerga-zorrak	65.668	-	-	65.668
Geroratu gabeko zorrak	995.662	99.344	-	1.095.006
Kaudimen-gabez. zuzkidura	(972.375)	-	-	(972.375)
ZORDUNAK GUZTIRA	1.110.945	99.344	882	1.211.171
ZUZKIDURA GUZTIRA	(972.375)	-	-	(972.375)

99,3 milioi euro egin duten aurrekontuko zordunetatik 42,7 milioi euro uneko ekitaldiko aurrekontuko zordunak dira eta 56,6 milioi euro ekitaldi itxietakoak; azken kopuru honetan azpimarratzekoak dira Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistemako gutxieneko babes-maila bermatuaren finantzaketa kontzeptuko transferentzia arrunten saldoak, 56,5 milioi eurorenak, 2014-2016 aldiari dagozkionak.



Hona hemen Egoera Balantzearen zerga-magnitudeen xehakapena eta bilakaera 2017ko ekitaldian:

	Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	17.12.31	16.12.31
PFEZ, Laneko atxikipenak.....	189.965	193.021
Sozietateen Zerga.....	255.313	286.919
BEZa.....	305.343	292.976
Bestelako zergak	8.817	11.454
Berandutza interesak, errekaruak eta zehapenak	344.897	321.061
Bestelako sarrera txikiagoak	6.610	7.781
ZERGA-ZORDUNAK	1.110.945	1.113.212
<u>Administrazio egoeraren araberako zordunak</u>		
Beste administrazio batzuetan sartutako zerga-zorrak	28.056	15.765
Geroratutako zorrak.....	116.579	125.453
Ebazteko dauden gerorapen eskaera duten zorrak	5.884	17.979
Konkurso prozeduretan zorrak.....	193.691	192.567
Errekurso eta bestelakoengatik etendako zorrak.....	206.028	232.299
Borondatezko aldiko beste zor batzuk	13.205	53.237
Betearazte bideko beste zor batzuk	547.502	475.912
ZERGA-ZORDUNAK	1.110.945	1.113.212
1.200.000 eurotik gorako zorretarako zuzkid. (zordun bakoitzeko kalkulua)	(590.026)	(586.537)
1.200.000 eurotik beherako zorretarako zuzkid. (analisi estatistik. arab. kalkulua).....	(382.349)	(403.093)
KAUDIMEN-GABEZ. ZUZKIDURA	(972.375)	(989.630)
ZERGA-SARRERAK ITZULTZEAGATIKO HARTZEKODUNAK (a)	(9.245)	(12.433)
ERAKUNDE KONPROMISOETARAKO ZUZKIDURA	(109.100)	(93.456)
ZORDUNAK, ZUZKIDURA ETA HARTZEKODUNIK GABE	20.225	17.693

(a) Balantzeko "Hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk" idazpuruan barne hartua (ikus B.11)

Eragiketa hauek aurrekontuan islatzeko, 2017ko abenduaren 31ko Diruzaintza Geldikina 20,2 milioi euroan gehitu behar da. Aurrekontuko emaitzaren eta ondarekoaren arteko berdinkatzean (ikus B.12) 2,5 milioi euroren sarrera handiagoak daude ondare-kontabilitatean (2017ko ekitaldiko 20,2 milioi euro, ken 2016ko ekitaldiko 17,7 milioi euro).

Bestalde, ondasun-zerrendan 48,5 milioi euroren balioa duten lursailak daude zerga-zorrak gauzatan kobratu izanaren ondorioz, Egoeraren Balantzeko pasiboan erakundearteko konpromisoengatik dagokion zuzkidura islatu ez dela, 40,9 milioi euro inguruko zenbatekoan. Konpromisoak gauzatu dira lursailak besterendu edo ustiatzen diren ekitaldietan.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B.8 TRANSFERENTZIA ETA DIRU-LAGUNTZA ARRUNT ETA KAPITALEKOEK ERAGINDAKO SARRERAK

Hona hemen kapitulu hauetan erregistraturiko sarreraren xehakapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	ARRUNTA		KAPITALEKOA	
	2017	2016	2017	2016
Aurreko ekitaldiko kupoaren likidazioa (B.5.1).....	30.461	14.774	-	-
Loteria eta Apustuen Erakunde Nazionala	437	358	-	-
Autonomia Sistema eta Mendekotasunari arreta	30.885	27.658	-	-
Beste transferentzia batzuk	265	257	-	219
Estatuko Administrazioetik	62.048	43.047	-	219
Ekarpen orokorra (ikus B.5.1)	-	14.491	-	-
Doiketa Funts Orokorra (ikus B.5.1)	53.907	43.914	-	-
FPEBen erabakia, aldundien konpentsazioa (ikus B.5.1)	30.115	-	-	-
Gizarte Zerbitzuak Garatzeko Funtza (ikus B.5.1)	3.289	-	-	-
Egoitzetxeetako osasun-laguntza	8.590	8.716	-	-
Bestelako txikiago batzuk.....	859	331	-	-
EAEtik	96.760	67.452	-	-
Udal Finantzaketarako Foru Funtza (2016ko lik.).....	-	9.566	-	-
Uliazpi Erakunde Autonomoaren itzulketa.....	-	-	-	129
Obra hidraulikoak: Gipuzkoako Ur Kontsortzioa.	-	-	811	536
Bestelako txikiago batzuk.....	198	204	224	125
ALHtik	198	9.770	1.035	790
Enpr. pribatu eta familia eta irab. asm. g. erakundeetatik	25	21	1.098	1.259
Europar Batasunetik (*)	3.210	2.701	502	3.428
TRANSF. ETA DIRU-LAGUN. ERAG. SARR. GUZTIRA	162.241	122.991	2.635	5.696

(*) Kutxa irizpidea baliatuta erregistraturiko sarrerak eta behin-behinekoak diru-laguntza kitatu arte.



B.9 IBILGETU FINANTZARIOA ETA AKTIBO FINANTZARIOAK

Hona hemen ibilgetu finantzarioaren mugimendua eta aurrekontuko bere eragiketenak:

DESKRIBAPENA	Saldoa 16.12.31	Aurrekontua			Saldoa 17.12.31
		Gastuak	Diru-sarr.	Beste mug. batzuk	
Zuzenbide publikoko taldeko entitateetan e/luz.partaid.	6.371	-	-	-	6.371
Epe luz. partaidetzak sozietate publikoetan.....	32.763	9.999	-	-	42.762
Epe luz. partaidetzak beste sozietate batzuetan	80.976	650	-	-	81.626
Epe luz. partaidetzen narriadura beste sozietate batz.	(5.002)	-	-	(6.886)	(11.888)
TALDEKO ENPRESETAN INBERTSIOAK GUZTIRA	115.108	10.649	-	(6.886)	118.871
Epe laburreko mailegua Larraulgo Udalarari	6	-	(6)	-	-
Langileei e/luz. kredituak (ikus B.7.2).....	898	452	(468)	-	882
Langileei maileguak epe laburrera	-	308	(308)	-	-
FINANTZA AKTIBOEN BARIAZIOA GUZTIRA		11.409	(782)		

2017ko ekitaldian azpimarratzekoak dira Bidegi SAn egindako 10 milioi euroren kapital zabalkuntza, GI-632 Antzuola-Bergara bide-zatiko lanak zati batean finantzatzeko, eta Etorlur Gipuzkoako Lurra, SArean partaidetza-balioaren narriaduragatik zuzkidurari egindako 6,2 milioi euroren hornidura.

TALDEKO ENPRESETAN INBERTSIOAK	Euroak milakotan		
	Kontularitzako balioa	Zuzkidura	% PARTAID. GFA
SOZietatea			
Uliazpi Fundazioa Erakunde Autonomoa	6.371	-	-
ZUZENBIDE PUBLIKOKO TALDEKO ERAKUNDEAK	6.371	-	
Etorlur Gipuzkoako Lurra, SA	21.604	(6.151)	100,0
Bidegi, Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia, SA.....	20.719	-	100,0
IZFE, SA.....	439	-	100,0
FORU MERKATARITZAKO SOZietATEAK	42.762	(6.151)	
Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea, SA.....	17.082	(398)	20,4
Kursaal Zentroa, SA.....	9.662	-	50,0
Garaia Berrikuntza Poloa, Koop.S	6.431	(506)	27,7
Garapenerako Euskadiko Kapital-Sozietatea-Socade, SA.....	5.952	-	19,8
Beterri-Kostako Industrialdea, SA.....	5.706	(461)	24,5
Irungo Aduana-Guneko Elkarte Sustatzailea, SA (ZAISA).....	5.423	-	30,8
Deba Bailarako Industrialdea, SA	4.237	-	24,4
Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, SA	4.050	-	33,3
Ekarpen, SPE, SA	3.900	(17)	4,3
Seed Gipuzkoa AKS, Erregimen Erraztuko, SA.	3.795	(3.040)	50,0
Bidasoa Oarsoko Industrialdea, SA.....	3.348	-	24,5
Tolosaldeko Apattaerrika Industria Lurra, SA.....	2.816	(339)	24,5
Urolako Industrialdea, SA	2.583	-	22,2
Goiherri Beheko Industrialdea, SA	1.225	-	24,5
15 sozietate milioi 1 euroren kostua edo txikiagokoak.....	5.416	(976)	
FINANTZA INBERTSIO IRAUNKORRAK	81.626	(5.737)	
GUZTIRA	130.759	(11.888)	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B.10 ZORRA ETA FINANTZA-GASTUAK

Zorraren bilakaera ekitaldian honakoa izan da:

		Euroak milakotan					
	% interesa		Saldoa Diru-sarrera		Gastua	Bestel.	Saldoa
	Nominala	Iraung.	31.12.16	9. kap.	9. kap.	mugim.	31.12.17
IEB	% 0,979	2027	25.575	-	(2.325)	-	23.250
IEB	% 0,376	2033	36.380	-	(2.140)	-	34.240
Caixabank.....	E+0,94	2020	20.000	-	(5.000)	-	15.000
Bankia	E+0,72	2020	16.000	-	(4.000)	-	12.000
Kutxabank	E+0,92	2019	5.130	-	(1.710)	-	3.420
BBVA	E+3,55	2018	6.000	-	(3.000)	-	3.000
Bankinter	E+1,10	2020	10.480	-	(2.620)	-	7.860
Bankoa	% 3,24	2018	4.000	-	(2.000)	-	2.000
Kutxabank	% 1,503	2019	8.460	-	(2.820)	-	5.640
Deutsche Pfandbriefbank	% 1,942	2021	30.000	-	(6.000)	-	24.000
Kutxabank	(*) % 1,003	2022	61.700	-	-	-	61.700
BBVA	% 0,730	2026	12.500	-	(1.250)	-	11.250
BBVA	% 0,9973	2026	27.500	-	(2.750)	-	24.750
Sabadell Bankua	% 1,018	2026	11.000	-	(1.100)	-	9.900
Kutxabank	% 1,018	2026	11.000	-	(1.100)	-	9.900
Sabadell Bankua	% 0,810	2027	-	1.000	-	-	1.000
Kutxabank	% 0,746	2027	-	20.000	-	-	20.000
Triodosbank.....	% 0,670	2027	-	20.000	-	-	20.000
BANKU MAILEGUAK (I)			285.725	41.000	(37.815)	-	288.910
KREDITU KONTUEN ERABILERA (II)			177.550	-	-	(54.350)	123.200
BANKUETAKO ZORRA			463.275	41.000	(37.815)	(54.350)	412.110
Eusko Jauriaritzaren mailegua (III).....	% 1,500	2018	7.200	-	(3.600)	-	3.600
ERABILITAKO ZORRA GUZTIRA (I+II+III)			470.475	41.000	(41.415)	(54.350)	415.710
Maileguaren amortizazio funtsa (ikus B.11) (*)				(8.800)			
2017-KO AURREKONTUKO GASTU ETA SARRERAK				41.000	(50.215)		

E: Hiruhileko Euriborra

(*) Epe luzeko maileguaren kontratuak klausula bat barne hartzen du, zeinaren indarrez GFAK konpromisoa hartzen duen datoen sei urteetako aurrekontuetan urtero 8,8 milioi euro emateko mailegua amortizatzeko funtsa zuzkitzeko. 2017ko abenduaren 31n 17,6 milioi euro zuzkitu dira (ikus B.11).

Egoeraren Balantzeko saldoen xehakapena honakoa da:

Euroak milakotan			
ZORRA	Zorrak epe motzera	Zorrak epe luzera	GUZTIRA
Kreditu erakundeekiko zorrak	41.915	370.195	412.110
Eusko Jauriaritzaren mailegua	3.600	-	3.600
Maileguak guztira	45.515	370.195	415.710
Ibilgetuaren hornitzaileak	187	187	374
Beste zor batzuk (Epe labur. jasotako berme eta gordailuak) (ikus B.11) ..	1.208	-	1.208
EGOERAREN BALANTZEA GUZTIRA	46.910	370.382	417.292

Kreditu lerroetan formalizatutako zorraren informazioa honako hau da:

	Euroak milakotan				
	% interesak		17.12.31ko egoera		
	17.12.31	Iraung.	Muga	Erabilia	Erab.gab.
Kutxabanken kreditu lerroa.....	E+0,43	2020	48.000	8.250	39.750
Kutxabanken kreditu lerroa.....	E+0,70	2018	54.950	54.950	-
Sabadell Banketxearen kreditu lerroa	E+0,45	2020	30.000	30.000	-
Laboral Kutxaren kreditu lerroa.....	E+0,10	2020	30.000	30.000	-
BBVAren kreditu lerroa	E+0,30	2020	72.000	-	72.000
BBVAren kreditu lerroa	E+0,65	2020	42.000	-	42.000
KREDITU LERROETAN GAUZATUTAKO ZORPETZEA			276.950	123.200	153.750

E: Hiruhileko Euriborra

Finantza-gastuak zorpetzearen printzipioa baliatuta erregistratzen dira; hona hemen xehakapena:

	Euroak milakotan	
	2017	2016
Maileguen interesak	2.975	3.622
Kreditu lerroen interesak eta erabilgarritasun komisioak.....	486	862
Eratortitako produktuen finantza gastuak	-	189
Beste batzuk.....	2	4
GUZTIRA	3.463	4.677

Abalak

GFAk emandako berme bakarrak, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenak, guztira 500 milioi euro egiten duten lau abal dira, Bidegi, SAk BEIrekin formalizatutako maileguen berme gisara emandakoak; horien saldoa 2017ko ekitaldi itxieran 421,8 milioi euro da. Mailegu hauen amortizazioa 2017 eta 2034 bitartean egingo da (ikus D.4).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B.11 ZORDUN ETA HARTZEKODUN EZ AURREKONTUKOAK

Aurrekontuz kanpoko zordun eta hartzekodunen xehakapena honakoa da:

	Euroak milakotan	
	SALDOA	SALDOA
AURREKONTUZ KANPOKO ZORDUNAK	17.12.31	16.12.31
Aplikazio aurreratuko sarrerak	147.094	138.053
Bestel. zordun ez aurrekontukoak	138	125
Kutxa finkoko aurrerakinak	205	228
Kobratzeko beste kontu batzuk	147.437	138.406
Administrazio publikoak	31	-
Bst. erak. batzuen kontura baliabideak administratzeagatiko zord.	2.798	2.244
Egoeraren Balantzean zordunak eta kobr. bst. kontu batzuk	150.266	140.650
Bermeak eta gordailuak epe laburrera	2	2
AURREKONTUZ KANPOKO ZORDUNAK GUZTIRA	150.268	140.652

“Aplikazio aurreratuko sarrerak” kontuak 147,1 milioi euroren saldoa barne hartzen du, BEZ eta Zerga berezien kontzeptuan foru aldundien lurralde arteko doiketari dagokiona, 2017ko ekitaldiaren laugarren hiruhilekoari dagokiona. Kopuru hau aurrekontuan 2017ko ekitaldiko diru-bilketa modura jaso da.

	Euroak milakotan	
	SALDOA	SALDOA
AURREKONTUZ KANPOKO HARTZEKODUNAK	17.12.31	16.12.31
Aurrekontu sarrerak itzultzeagatiko hartzekodunak	25	25
Zerga sarrerak itzultzeagatiko hartzekodunak (ikus B.7.2)	9.245	12.433
Aurrekontuari aplikatzeko dauden eragiketengatiko hartzekodunak	581	983
Aplikatzeko dauden kobrantzak	2.578	2.626
Bestelako hartzekodun ez aurrekontukoak	4.803	1.850
Ordaintzeko bst. kontu batz.	17.232	17.917
Administrazio publiko hartzekodunak	5.081	4.590
Bst. ente publ. batzuen kontura baliab. administratzeagatiko hartzek.	5.990	7.645
EGOERAREN BALANTZEAN HARTZEKODUNAK ETA ORDAINTZEKO BST.KONT.BATZ.	28.303	30.152
Gehi: “Epe laburreko zorrak” en epe labur. jasotako berme eta gordailuak (ikus B.10)...	1.208	1.079
Gehi: Mailegua amortizatze zuzkidura, aurrekontuan erregistratua (ikus B.10)	17.600	8.800
Ken aurrekontu izaeradun eragiketak:		
Aurrekontu sarrerak itzultzeagatiko hartzekodunak	(25)	(25)
Zerga itzulketengatiko hartzekodunak (ikus B.7.2)	(9.245)	(12.433)
Aurrekontuari aplikatzeko dauden eragiketengatiko hartzekodunak	(581)	(983)
Gauzatan kitatutako eskubideen udal-zerगतatiko hartzekodunak	(37)	(37)
AURREKONTUZ KANPOKO HARTZEKODUNAK	37.223	26.553



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B.12 AURREKONTU ETA ONDARE EMAITZAREN ARTEKO BERDINKATZEA

Kontabilitate orokor publikotik eskuratutako ekitaldiko emaitzaren eta aurrekontuko emaitzaren arteko kontziliazioa ondoko taulan jaso dugu:

	Euroak milakotan
Ekitaldiaren aurrekontu emaitza	18.175
Ekitaldi itxien aurrekontu emaitza.....	(18)
AURREKONTUAREN EMAITZA	18.157
Zerga-eragiketetan aurrekontu eta ondare artean erregistro-irizpidean aldea (ikus B.7.2)	2.532
Gauzatan egindako diru-bilketa, ibilgetuari txertatua	100
Inbertsio errealak	87.614
Errepideak konpontzeagatiko inbertsio errealak, kapitalizatu ez direnak (ikus B.6.1)	(43.649)
Beste erakunde batzuentzat egindako laneng. inber. errealak, kapitalizatu gabeak (ikus B.6.1)	(4.291)
Inbertsio errealen besterentzea.....	(282)
Finantza aktiboaren bariazioa (gastuak ken sarrerak) (ikus B.9)	10.627
Finantza pasiboaren bariazioa (gastuak ken sarrerak) (ikus B.10)	9.215
Amortizazioak.....	(77.232)
Zuzkidura gehitzea partaidetzen balioaren narriadurarako.....	(6.886)
Aurrekontuari egozteko dauden obligazioen gutxitzea ekitaldi itxieran.....	402
Bestelako kontu-sail txikiak	(623)
EMAITZA KONTABILITATE OROKOR PUBLIKOAREN ARABERA	(4.316)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B.13 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

B.13.1 KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAK

2017-AN ESLEITUTAKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan

DESKRIBAPENA	Esleipena			Exekuz. 2017	AKATSA
	Mota	Prozed.	Zenbat.		
DIPUTATU NAGUSIAREN ALORRA					
1. Gipuzkoar gizarteari komunikazio-aholulari. estrat., ekimen eta jarduerak GFA	Zerb.	Irekia	151	151	
2. Etorkizuna Eraikiz, sormen, komunikazio, programa eta jarduera-zerb.	Zerb.	Irekia	145	145	
3. Etorkizuna Eraikiz sozializatzeko kanpaina planifikatu eta publizitate-espazioak erosi	Zerb.	Irekia	150	150	
KULTURA, TURISMOA, GAZTERIA ETA KIROLAK					
4. Zumalakarregi Mus., Igartubeiti Museo eta Itsas Museoaren kudeak. integ (3 urte).....	Zerb.	Irekia	2.228	483	A
GOBERNANTZAKO ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOA					
5. "Gipuzkoako Suhiltzaileen Komunikazio Zentroa" proiektua	Obrak	PGPN	226	226	A
MUGIKORTASUNA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA					
6. GFAko Jauregiaren teilatu laua birgaitzeko lanak.....	Obrak	Irekia	552	-	A
OGASUNA ETA FINANTZAK					
7. Ogasun eta Finantza Saileko informazio eta telefonozko laguntza zerb. (2 urte)	Zerb.	Irekia	a.p.	305	
BIDEEN AZPIEGITURAK					
8. N-634ko 41,950 eta 42,075 kilom. punt. arteko eustorma egonkortzeko proiektua	Obrak	Irekia	1.238	909	
9. Txirrind.-oinezk. bidea konpontz. proiekt. eta GI-2637 Ondaraldea-Zegama hobetz.....	Obrak	Irekia	1.160	664	
10. Gasteiz-Irun 416,1 eta 420,3 kilom. punt. arteko zoruaren egiturazko birgaitze proiekt.	Obrak	Irekia	1.207	1.207	
11. GFA eskualdeko eta tokiko errepid. segurtasuneko metalezko hesiak jartzea (2 urte)...	Zerb.	Irekia	997	37	
12. Aldundiaren ahalmen handiko sareko errepid. seinale horizont. margotzea (2 urte).....	Zerb.	Irekia	1.112	167	
13. GI-3361 errep. Higuero itsasargira egonkor. proiektua 2,100 eta 2,450 k.p.	Obrak	Irekia	2.464	982	
14. GI-2633 errepidean motozaleen bide-segurtasuna hobetzeko proiektua	Obrak	PGPN	237	235	
15. N-634 SS-Santander eta Coruña errepidearen seinalezatzea berritz.proiekt. I. fasea	Obrak	Irekia	496	50	
16. GLH eskuald. eta tokiko errep. sarea eta txirrind. bideak zaindu eta ustiat. (2 urte).....	Zerb.	Irekia	15.387	-	
GIZARTE POLITIKAK					
17. "Maldatxo" eta "Erguin" zentroetan birgaitze psikosoziala (3 urte)	Zerb.	Irekia	a.p.	65	
INGURUMENA ETA OBRA HIDRAULIKOAK					
18. Baliarrainen saneamendu-proiektua eta GI-3851 handitzea.....	Obrak	Irekia	1.084	299	
19. Gipuzkoako artxibo orokorraren birgaitze energetikoko lanak.....	Obrak	Irekia	1.072	441	
20. Gipuzkoako Med. Gunean balorazio energetikoko plantan azterlan epidemiologikoa ..	Zerb.	Irekia	544	182	
GUZTIRA			30.450	6.698	

AKORDIO MARKOAK (AM) GOBERNANTZAKO ETA GIZARTEAREKIKO KOMUN.

21. Aldundiko Kontratazio Gunearen bitartez bulegoko materiala hornitzea	Horn	Irekia			
22. Igogailuen mantentze-zerbitzua	Zerb.	Irekia			

AKATSAK

A Barne kontrolerako sistemen irizpenetan aipatutako berariazko akatsak



AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan

DESKRIBAPENA	Jatorri urtea	Esleipen zenbat.	EGIKARITZA			Akatsa Egoera
			16/12/31	2017	17/12/31	
DIPUTATU NAGUSIAREN ALORRA						
23. GFaren komunikazio digit. Plan Estrat. aholk. eta web-orrien analisia (3 urte)	2016	1.078	166	331	497	Egik.
MUGIKORTASUNA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA						
24. Bidai. garr. publ. Bidasoa Behea, Oarsoaldea eta SS-H eskualdea (10 urte)	2011	88.189	28.244	3.942	32.186	Egik.
25. Tolosaldeko eskualdeko bidaiarien garraio publikoa (7 urte)	2014	11.648	2.962	1.492	4.454	Egik.
26. Goierriko eskualdeko bidaiarien garraio publikoa (7 urte)	2015	23.623	4.409	2.430	6.839	Egik.
27. Urola Erdiko eskualdeko bidaiarien garraio publikoa (10 urte)	2015	46.840	5.096	3.084	8.180	Egik.
28. Debarrena, Urola-Kostako eskualdeko bidaiarien garraio publikoa (10 urte)	2015	98.225	11.411	6.946	18.357	Egik.
29. Debarrena E. bidai. garr. publ., Debarrena eta hiriburuen lotura (10 urte)	2015	225.233	14.213	8.215	22.428	Egik.
30. GFA Lurraldebus garr. publ. kudeak.integr. zentr. arreta integ. (4 urte) ..	2016	2.203	227	542	769	Egik.
BIDEEN AZPIEGITURAK						
31. A eremuko errepideak zaindu eta ustiatzea (Ekialde) (2 urte eta hurr.)	2013	14.868	11.106	3.762	14.868	Amait.
32. Inst. elek. manten. eta segurt. tunel, errepideetan (2 urte eta 2 luz.)	2014	12.945	6.249	3.685	9.934	Egik.
1. espediente aldatua (2015 urtea)		343				
33. Donost. eta Bidasoald. errep. eta txirind. bideak zaindu eta ust.(2 urte 2 luz.)	2014	20.022	10.845	5.005	15.850	Egik.
34. Goierrialdeko errep. eta txirind. bideak zaindu eta ustiatzea (2 urte eta 2 luz.)	2014	22.987	12.017	5.746	17.763	Egik.
35. Urola-Kosta, Deba-Kosta errep. eta txirr. bid. zain. eta ust. (2 urte eta 2 luz.)	2014	17.679	9.025	4.420	13.445	Egik.
36. Lehent. eta oinarr. sareko errep. bikoiztuetan gainazala birgaitzea (2 urte)	2016	2.269	590	1.181	1.771	Egik.
37. Lehent. eta oinarr. sareko errep. sarean gainazala birgaitzea (2 urte)	2016	2.228	576	1.153	1.729	Egik.
38. Eskualde sareko errepideetan gainazalaren egitura birgaitzea (2 urte)	2016	2.250	581	1.163	1.744	Egik.
GIZARTE POLITIKAK						
39. Haur eta Nerabeen gaietako Eskualdeko Tald. proiekt. (4 urte eta 2 luz.) .	2011	a.p.	8.095	1.583	9.678	Amait.
40. Ading. harr.ztro kude. 1 sorta: Loistaran eta Zarategi ztr. (2 urte+2 luz.)	2013	a.p.	13.975	2.814	16.789	A1 Amait.
41. Adingabe babesgabeen familia-harrerari lag. tekn. (2 urte eta 2 luz.)	2014	a.p.	6.695	2.786	9.481	A1 Egik.
42. Mendekot. adinek. eguneko zentr. erab. eta kudeak. Astigarraga, Beasain, Errenteria, Lezo, Orio, Urnieta eta Getaria (2 urte eta 2 luzapena)	2014	a.p.	2.768	1.411	4.179	A3 Egik.
43. Adingabeak hartzeko kudeaketa, Irisasi eta Uralde ztr. (3 arte eta 3 luz.) .	2014	a.p.	5.041	2.227	7.268	A2 Egik.
44. Ezgaitasuna baliozt. irizpen mediku eta psik. egitea (1 urte eta 1 luz.)	2015	a.p.	2.826	2.051	4.877	Amait.
45. Arazodun famil. eskuhar. psikosozial eta sozio-hezik. (2 urte eta 2 luz.) ..	2015	a.p.	7.961	4.416	12.377	A2 Egik.
46. Indark. matxist.bik.harr. zentr. erab. eta kudeak. emak. (2 urte+2 luz.) ...	2015	a.p.	1.562	1.071	2.633	Egik.
47. Adingabe babesg. harrera zentr. erabil. eta kudeak. emakida (2 urte eta 2 luz.)	2015	a.p.	7.017	4.654	11.671	A2 Egik.
48. Adingabe babesg. familia-harrera prof. lag. tekniko (2 urte eta 2 luz.) ..	2015	a.p.	1.434	769	2.203	A2 Egik.
49. Bergara eta Soralezeko mendek. egoeran daud. adinek. egun. zent. (3 urte)	2016	a.p.	36	432	468	Egik.
50. Zaintza pertsonalak Egogain Eibar adinekoen egoitzetxea (1 urte)	2016	a.p.	1.095	2.197	3.292	A3 Egik.
51. Lagun. tekn. emateko Etxetek programaren kudeaketan lag.tekn. (2 urte)	2016	a.p.	387	748	1.135	Egik.
52. Babesgabetasun eg. dauden adingabeak egoitz. hartz. lag. tekn. (2 urte)	2016	a.p.	970	1.092	2.062	A2 Egik.
53. Adingabe babesgabeak, Uba, Zikuñaga, Iturriotz Azpi eta Azpilikueta harrera-egoitzen erabilpena eta kudeaketaren emakida (2 urte)	2016	a.p.	3.359	5.185	8.544	A2 Egik.
54. Adingabe babesgabeen oinarrizko harrera-egoitza Amara (2 urte)	2016	a.p.	-	532	532	Egik.
55. Txara I eraik. aurrealdea eta Txara I eta Txarra II-ko errezel hormak konpont.	2016	1.616	-	1.654	1.654	Amait.
56. Aldakonea egoitzaren aurrealde, terraza eta estalkia konpontzea	2016	982	-	952	952	Amait.
INGURUMENA ETA OBRA HIDRAULIKOAK						
57. Mutiloko saneamendua Oria Garaiko kolektore nagusiarekin lotzea	2016	955	255	715	970	Amait.
58. Gabiriako saneamendua	2016	803	255	569	824	Amait.
59. Gipuzkoako itsasertzeko hondartzak garbitzea	2016	2.248	47	1.124	1.171	Egik.
GUZTIRA			181.495	92.079	273.575	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Bestalde, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazio Sailak 2016an esleitutako honako esparru-akordio hauek 2017ko ekitaldian izan duten egikaritzea aztertu da: telefono bidezko komunikazioak, berogailua C gasolioa, bizitza eta istripu aseguruak, garbiketa eta gas naturala.

Hona hemen gizarte politiketako kontratuetan 2017ko ekitaldiko gastuari dagozkionez prezioen berrikuspina aplikatzean azaleratu diren akatsak (ikus III.A.5):

AKATSAK	Espediente kop.
A1 Prezio berrik. aplikatu da (% 3 lang. eta % 1,3 gain.gast.) eta kontratuan abenduko KPlaren % 85 da.....	2
A2 Prezio berrik. aplikatu da (% 3 lang. eta % 1,3 gain.gast.) eta kontratuan ez dago prezioak berrik. klausularik.....	6
A3 Aplikatut. prezio berrik. % 2,2 da eta kontratuan ez dago prezioak berrik. klausularik	2

B.13.2 ADMINISTRAZIOKO KONTRATAZIO-ESPEDIENTERIK GABEKO GASTUA

Kontratu txikiaren prozedura bidez gauzatutako kontratazioak berrikustetik, honako kontratazio hauek azpimarratu behar ditugu:

- 2017ko ekitaldian gizarte zerbitzuak emateagatik kontratazio espedienterik gabe egikaritu diren gastuak, aurreko kontratuak iraungi direlako eta iraungi aurretik lizitazioa abiarazi ez delako; kontratu berriak 2018ko ekitaldian esleitu dira. Zerbitzu horiek kontraturik gabe eman diren aldia 6 eta 18 hilabete bitartekoa da. Hona hemen kontratu zaharren iraungipen-datak eta kontratu berrien formalizazio-datak:

Deskribapena	Zenbatekoa	Euroak milakotan		
		Kontratu zahar. iraung.-data	Lizitazio data	Kontrat. berriaren formal.-data
Haur eta nerabe babesgabeei laguntza eta balorazioa	1.221	2017ko martxoa	2017ko abuztua	2018ko otsaila
Gizarte Larrialdietako foru zerbitzua	511	2016ko uztaila	2017ko azaroa	2018ko maiatza
Donostian Loistarain eta Zarategiko egoitza zentroak	1.003	2017ko iraila	2018ko martxoa	2018ko uztaila
Beasain eta Zizurkilgo egoitza zentroak	611	2017ko maiatza	2018ko martxoa	2018ko uztaila
Donostian Elizaran desgaituen egoitza.....	207	2017ko abuztua	2018ko abuztua	2019ko martxoa
2018an eta 2019an esleitutako gizarte zerbitz. guztira	3.553			

- Hiru kontratazio-espedienteren lizitazioa ez da behar hainbateko denboraz abiarazi esleipena aurreko kontratuek iraungi aurretik esleitu ahal izateko, nahiz horiek amaitu aurretik prestakuntza-ekintzak bideratu diren. Esleipena gauzatu arte egindako gastua 3,6 milioi euroena izan da. Hona hemen eraginpeko espedienteak: “Txara 1en lagundutako egoitza- eta etxebizitza-zentroa”, “Alai Etxe eta Berio adinekoen egoitza-zentroen zerbitzuak” eta “Laguntza teknikoak irizpen mediku eta psikologikoak garatzeko”.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Ekitaldian 1,4 milioi euroren gastua eragin duten baso-lanak, GLHko hainbat eremutan egindako jarduerak hartzen dituztenak, zuzenean kontratatu dira kontratazio espedienterik egin gabe. Nahiz jarduera hauetako batzuk aurreikusi ezineko egoeren ondorio izan, gasturik handiena egoera homogeen, planifikagarri eta eskaintzak eskatuta kontratazio prozedura bidez lizitatu daitekeena da.
- Jarduera batzuetan zenbaitetan lehia printzipioa ezartzea eskagarri da eta beste batzuetan, hori aplikatzea gomendatzen da; izan ere, horietako bakoitza ekitaldian zehar gauzatutako jarduera bati dagokion arren, finean gastu homogeenak eta ekitaldi bakoitzean planifika daitezkeen gastuak dira:

Deskribapena	Euroak milakotan	
	Saila	Zenbat.
Dibertsitate plana	Diputatu Nagusiaren Alorra	44
Tabakalerako eraikinean ekitaldietarako cateringa	"	27
"Aitortza orokorra" erakusketa muntatu eta jasotzea	Kultura, Turismoa, Gazteria eta Kirolak	23
Kirol ekitaldiko argiteria sistema alokatu eta muntatzea	"	34
Turismoko web-orrian turismo gunea antolatzea	"	37
Koloretako kopiak	"	60
Aterpetxeetarako pelletak hornitzea	"	26
Suteak itzaltzeko materiala eta bestelakoak	Gobernantza eta Gizart. Komunik.	35
Artisautzako lanak	Sust. ekon., Landa ingur. eta Lurr. oreka	24
Laborategiko produktuak Civtest bovis neospora 96	"	34
Abeltzaintzako materiala eta lanabesak	"	25
Tuberkulosia eta beste tratatzeko gaien hornidura	"	56
Basa-animaliak zaintzeko zerbitzuak	"	27
Hesi eta egur-hornidura	"	27
Klima-aldaketako eraikinaren hirigintzako aurreproiektu eta azterlana	Ingurumena eta Obra hidraul.	33
GUZTIRA		512



B.14 DIRU-LAGUNTZEN ANALISIA

Euroak milakotan

KONTZEPTUA	Onurad.	D fasea		Akatsa
		2017	Konpr. K D. fasea	
DIRU-LAGUNTZA IZENDUNAK				
DIPUTATU NAGUSIA				
1. Mondragón Elkarte Koop.: Kooperatibagintzaren proiektzioa.....	ENP	100	200	C
KULTURA, TURISMOA, GAZTERIA ETA KIROLAK				
2. Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, SA	ENP	1.600	-	B1
3. Real Unión Club IRUN: Oinarrizko kirola sustatzea.....	ENP	150	-	
4. Cristobal Balenciaga Fundazioa: Museoaren urteko kudeaketa.....	IAGE	440	-	B1
5. UNED Bergara Fundazioa: Jarduera arruntak	IAGE	350	-	B1
6. Real Sociedad fundazioa Oinarrizko futbolari laguntza emateko lankidetzeta-hitzarmena....	IAGE	1.190	2.360	
7. Elgoibarko Udala: Aita Agirre Kulturunea birgaitzeko lanak.....	TE	120	390	
8. Eibar Kirol Elkarte: Kirol-ekipamenduak	ENP	350	-	B1
SUSTAPEN EKONOMIKOA, LANDA INGURUNEA ETA LURRALDE OREKA				
9. Donostia International Physics Center: ekarpena	IAGE	503	-	B1
10. Lurgintza Koop.: nekaz. ustiap. kudeatz. zerb.: kudeak. tekn.-ekon. eta kontul. aholk. ...	ISAL	125	25	C
11. Abelur Koop.: Nekazal ustiap. kudeatz. zerb.: kudeak. tekn.-ekon. eta kontul. aholk.	IAGE	125	25	C
GIZARTE POLITIKAK				
12. Gureak tailer babestuak: ezgaitasuna dutenentzako arreta okupazionalako programak .	ENP	6.593	-	
13. Elkartu: Desgaitasun fisiko edo zentzumenezkoa duten pertsonen zerb. ematea	IAGE	410	-	B1
INGURUMENA ETA OBRA HIDRAULIKOAK				
14. GHKonts. Hondakinen azpiegituren kudeaketa-eredua garatzea	TE	6.000	-	
DIRU-LAGUNTZA IZENDUNAK GUZTIRA		18.056	3.000	
DIRU-LAGUNTZA ZUZENAK				
KULTURA, TURISMOA, GAZTERIA ETA KIROLAK				
1. Donosti Gipuzkoa Basket 2001: ACB ligan parte hartu eta saskibaloia sustatzea	ENP	500	-	
2. Kirolgi Fundazioa: Iraurgi saskibaloia taldeak LEB ORO ligan parte hartzea	ENP	150	-	
3. Oarsoaldea Eskualde Garapenerako Agentzia: itsasontzi trad. topaketa	ENP	70	60	A2
4. Alzoko Udala: Turistak artatzeko espazioan inbertsioak	TE	200	-	A2
5. Gipuzkoako Mendizale Federazioa: eskalada, ekipazioa berritzea eta mantentze-lanak	IAGE	25	75	A2
SUSTAPEN EKONOMIKOA, LANDA INGURUNEA ETA LURRALDE OREKA				
6. Xabier Zubiri BHI: Informatik sist. goi mailako prestakuntza zikloa.....	Besterik	45	15	
7. Biozientziak fundazioa: 2017ko urteko jardueren plana finantzatzea	IAGE	490	-	A1
8. Mondragón Goi Eskola Politekniko Koop: Zibersegurtasunean master profesionala	ENP	80	25	A2
9. CIDETEC fundazioa: energia biltegitzeko jarduera bereziaren proiektua	IAGE	25	50	A1
10. Ficoba Fundazioa: "go mobility" proiektua	IAGE	51	275	A1
11. Basque Culinary Center Fundazioa: digitalizazio pr. eta sortze berriko espazioak.....	IAGE	128	-	A2
12. Cidetec fundazioa: energia biltegitzeko azpiegit. ekipazio teknologikoa.....	IAGE	275	50	A1
MUGIKORTASUNA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA				
13. Pasaiako Udala: Inbertsioen finantzaketa zatizkoa	TE	702	-	
14. Oiartzungo Udala: Inbertsioen finantzaketa zatizkoa	TE	185	-	B1
15. Errenteriako Udala: Inbertsioen finantzaketa zatizkoa	TE	858	-	
16. Pasaiako Udala: Ondartxo pasealekuan lanak eta itsasertzera irispideak Donibanen....	TE	150	604	
17. Donostiako Sustapena, SA: "Smart commerce SanSebastián" proiektua	ENP	80	30	
18. Oarsoaldea Eskualde Garapenerako Agentzia SA: hainbat jarduera	ENP	150	-	
DIRU LAGUNTZA ZUZENAK GUZTIRA		4.164	1.184	



DEIALDI BIDEZ EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK

Euroak milakotan

KONTZEPTUA	D fasea 2017	Konpr. kred.	
		D fasea	Akatsak
DIPUTATU NAGUSIAREN ALORRA			
1. Argitalpenak	478	318	B1
2. Etorkizuna Eraikiz.....	400	320	C
KULTURA, TURISMOA, GAZTERIA ETA KIROLAK			
3. Garapenerako Lankidetzeta Funtza	2.147	1.468	C
4. Ekipamendu oinarrizkoak eraiki eta birmoldatzea.....	2.340	6.943	B1, C
SUSTAPEN EKONOMIKOA, LANDA INGURUNEA ETA LURRALDE OREKA			
5. Mendiko konpentsazioko kalte-ordaina	3.005	-	B2
6. Nekazal ustiaketatik inbertsioetarako laguntzak.....	471	2.587	B2
7. Zientzia, teknologia eta berrikuntzako sare gipuzkoarrari laguntza emateko programa		2.620	1.799
8. Enpresa sarea lehiakor indartzeko bidean laguntzea	2.198	1.342	
9. Gipuzkoan pertsona eta enpresa parte hartzaileen sustapena	2.280	1.140	
GIZARTE POLITIKAK			
10. Desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza- produktuak	1.340	-	
GUZTIRA	17.279	15.917	

Euroak milakotan

AKATSA	Espedientea	
	Zk.	Zenbat.
A1 Berezitasun eta errepikaritasunagatik izendun izan litezkeen diru-laguntza zuzenak	4	1.216
A2 Diru-laguntza zuzenak, non hobeto arrazoitu behar den	5	663
B1 Onuradunek ez dute egiaztatzen 3 eskaintza eskatu izana gastuak kontratatzeke, eskagarria den kasuetan	9	-
B2 Emakida 2 hilabetekoa baino atzerapen handiagoz egiten da aurreikusitako epearekiko.....	2	6.063
C Irizpenak: barne kontrataz. sistema eta kudeaketa prozeduren atalean aipatutako berriazko akatsak		

C. FORU ERAKUNDE AUTONOMOAK

C.1 LANGILERIA-GASTUAK

Uliazpi Fundazioa

Ekitaldi itxieran kontzeptu eta plantillaren arabera xehakatutako langile gastuak honako hauek dira:

	Euroak milakotan			
	Gastua		Plantilla erreala 12-31n	
	2017	2016	2017	2016
Lan kontratuko langile finkoak.....	8.453	7.593	186	172
Aldi-baterako lan kontr. langil.....	1.061	1.470	155	191
Ordainsariak eta plantilla	9.514	9.063	(*)341	(*) 363
Gizarte Segurantza	3.112	2.935		
Elkarkidetza	172	169		
Beste gizarte-gastu batzuk	74	85		
LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA	12.872	12.252		

(*) 95 eta 75 langile lanaldi partzialarekin 2017 eta 2016an, hurrenez hurren.

2017ko ekitaldian ordainsari-igoera % 1ekoa izan da.

Kabia

Ekitaldi itxieran kontzeptu eta plantillaren arabera xehakatutako langile gastuak honako hauek dira:

	Euroak milakotan			
	Gastua		Plantilla erreala 12-31n	
	2017	2016	2017	2016
Funtzionarioak	160	157	3	3
Lan-kontratudunak	134	106	5	3
Ordainsariak eta plantilla	294	263	8	6
Gizarte Segurantza	74	63		
Elkarkidetza	9	8		
Beste gizarte-gastu batzuk	18	5		
LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA	395	339		

2017ko ekitaldian ordainsari-igoera % 1ekoa izan da.

C.2 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

2017AN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK		Euroak milakotan (BEZa barne)		
DESKRIBAPENA	Mota	Esleipen moldea	Esleipen zenbat.	Exekuz. 2017
ULIAZPI FUNDAZIOA				
Elikadura, garbiketa eta beste zerbitzu b. (8 hilabete).....	Zerbitzuak	Irekia	432	282
Medikuntza orokorreko zerbitzua (urtebete)	Zerbitzuak	Irekia	50	-
KABIA				
Elgoibarko zaharren zentroan zerb. (2 urte)	Zerbitzuak	Irekia	a.p.	1.128
Zumaiko San Juan zaharren egoitzan erizaintza zerb. (urtebete).....	Zerbitzuak	Irekia	a.p.	90
Zumaiko San Juan zaharren egoitz. esku-hartze psikosozial. zerb. (urtebete)..	Zerbitzuak	Irekia	a.p.	17

AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK		Euroak milakotan (BEZa barne)				
DESKRIBAPENA	Jatorri urtea	Esleipen zenbat.	EGIKARITZA			Egoera
			16.12.31	2017	17.12.31	
ULIAZPI FUNDAZIOA						
Garraioan zaintza pertsonalak (2 urte).....	2016	876	-	400	400	Egikaritzen
KABIA						
Elgoibarko zentroan zerbitzu soziosanit. eta laguntzakoak (urte 1)....	2016	a.p.	1.234	365	1.599	Amaitua
Azkoitiko egoitza-, psikog-. zerb., egun. ztr. eta ap. babest (urte 1)	2016	a.p.	1.040	2.488	3.528	Egikaritzen
Villabonako zntr. egoitza zerb. eta eg. egonald. (urte 1 eta 1 luz.)	2016	a.p.	278	1.116	1.394	Egikaritzen

a.p. Aleko prezioak

Uliazpi Fundazioa

Kontratu txikiaren moldea baliatuta gauzatutako kontratazioak berrikustean hornitzaile bakarrarekin kontratatzen diren eragiketak daudela ikusi dugu; horiek eskaintzak eskatuta publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez izapidetu behar ziratekeen edo lehiaketa bat aleko prezioetan egin ote daitekeen aztertu beharko litzateke, ohikotasunez kontratatzen diren gastuak direlako eta urteko beharra balioetsi daitekeelako.

Hona hemen xehakapena:

Deskribapena	Euroak milakotan	
	Zenbat.	
Mediku zerbitzuak.....	39	
Musikoterapia	39	
Pelletak hornitzea.....	45	
Ohe artikulatu eta osagarrien hornidura	26	
Aisialdiko jarduerak eta udalekuak	44	
GUZTIRA	193	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

D. MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK

D.1 IBILGETU UKIEZIN ETA MATERIALA ETA EPE LUZEKO HORNIDURAK

Hona hemen Enpresa Sektore Publikoaren 2017ko ekitaldiko ibilgetu ukiezin eta ibilgetu materialean barne hartutako kontuen mugimenduen xehakapena:

IBILGETU UKIEZINA ETA MATERIALA	Euroak milakotan					
	Saldoa	Altak	Bajak	Amort. zuzk.	Amort. funtsa	Saldoa
SOZIETATEA	16.12.31					17.12.31
IZFE, SA	2.598	1.895	(10.051)	(1.209)	10.051	3.284
Bidegi, SA	1.241.037	53.374	(572)	(37.691)	-	1.256.148
Etorlur Gipuzkoako Lurra, SA	1.721	-	-	(77)	-	1.644

Ekitaldiko ibilgetuko alta esanguratsuenak Bidegi, SArenak dira; hona hemen:

	Euroak milakotan
INBERTSIOA	2017
Emakida erabakiaren interesak abiaraztea	30.467
GI-632 Antzuola-Bergara	13.981
N-1 eta A-15eko azpiegiturak kobratzeko sistema	6.689
Kobranta area deskarga	2.230
Beste txikiago batzuk	7
GUZTIRA	53.374

Sozietateak finantza gastuen 30,5 milioi euroren zenbatekoa kapitalizatu du eta etorkizunean berreskuratuko direlako ebidentzia dago Sozietatearen Ekonomia-Finantza Planari jarraikiz, abenduaren 23ko EHA/3362/2010 Aginduaren bigarren arauaren 3. atalean agindutakoa oinarri hartuta, Kontabilitate Plan Orokorra azpiegitura publikoen emakidadun diren enpresetara egokitzeko arauak onartzen dituena. Hori aurreko ekitaldietan kapitalizatutako 180,6 milioi euroei gehitzen badiegu, ibilgetu ukiezinaren finantza aktibazioko idazpuruak 2017ko ekitaldi itxieran 211,1 milioi euroren saldoa metatzea eragiten du.

Bidegi, SAk 2017ko ekitaldi itxieran zituen inbertsio konpromisoak 22,5 milioi eurorenak dira.

Bidegi, SAren Balantzeko epe luzeko hornidura-kontuak 27,3 milioi euroren saldoa du 2017ko abenduaren 31n eta emakida aldiaren amaieran azpiegitura GFARI itzultzeko beharrezko diren jardueri aurre egiteko zuzkidurari dagokio; aldi horretan egin beharreko inbertsioekin lotua dago.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

D.2 IBILGETUKO INBERTSIOAK ETA IZAKINAK

Higiezinetan inbertsioak dituen sozietate bakarra Etorlur Gipuzkoako Lurra, SA da. 2017ko ekitaldian idazpuruko mugimendu bakarra amortizazioari egindako zuzkidura da, 80.045 euroren zenbatekoan; hona hemen inbertsioen xehakapena:

IBILGETUKO INBERTSIOAK	Euroak milakotan			
	Kostua	Amortiz. metatua	Balioaren narriadura	Balio garbia
3 etxebizitza Nuarben	611	(53)	-	558
Etxebizitza 1 Beizaman.....	201	(20)	-	181
Orbegozo bulegoen eraikina Hernanin	3.826	(466)	-	3.360
Landareko lursailak	4.248	-	(3.552)	696
GUZTIRA	8.886	(539)	(3.552)	4.795

2017ko ekitaldian errentamenduek eragindako sarrerak 212.775 eurorenak izan dira.

Foru sozietateen izakinetan Etorlur Gipuzkoako Lurra, SArri dagozkionak gailentzen dira; hona hemen xehakapena:

IZAKINAK	Euroak milakotan	
	17.12.31	16.12.31
Intsaustiko lursailak eta eraikinak	6.111	6.108
Lursail eta eraikinen narriadura	(2.312)	(2.312)
Ibaiondoko lursailak Hernanin	106	106
Ibaiondoko lursailen narriadura.....	(94)	(94)
Ibaiondo Florida sustapena Hernanin	29.157	29.122
Ibaiondo Florida sustapenaren narriadura	(23.033)	(23.033)
GUZTIRA	9.935	9.897

Intsaustiko lursail eta eraikinak GFak ekarritako higiezinak dira, 2008ko ekitaldian egindako kapital-zabalkuntza baten ordainketa modura. Eremu horretan etorkizunean egin asmo den sustapenaren gaineko egungo zehaztugabetasunak eta higiezin honen gaineko arrazoizko balioaren gainean aditu independenteen balorazio ezak eragozten du 3,8 milioi euroren zenbatekoarekin erregistratu den kontularitzako balio garbiaren zuzentasuna egiaztatzea,.

Ibaiondo Floridako Sustapenean kanpoko enpresa batek balorazioa egin zuen 2016ko ekitaldian eta narriaduragatiko zuzkidura 6,8 milioi euroan gehitu zuen.



D.3 EPE MOTZEKO FINANTZA-INBERTSIOAK

Egoeraren Balantzeko idazpuru honetan azpimarratzekoa da Bidegi, SAren saldoa, 37,9 milioi eurorena. Kopuru honetatik 37,2 milioi euro bi diru-ezarpenari dagozkie, honako xehakapen honekin:

- 28,8 milioi euroren diru-ezarpena, sei hilabeteko epean mailegu sindikatuaren interesen eta amortizazioaren ordainketei aurre egiteko, maileguaren polizak agintzen duen moduan.
- 8,4 milioi euroren diru-ezarpena, sozietateak aparteko konponketetarako erreserba modura eratu duena.

D.4 ZORPETZEA ETA FINANTZA-GASTUAK

Zorpetzea duen sozietate bakarra Bidegi, SA da.

Euroak milakotan							
	Interes tipo nominala	Saldoa 16.12.31	Saldoa Mug.2017	Saldoa 17.12.31	Zorra Luzea	Zorra Motza	Iraung.
IEB	4,306	74.433	(6.800)	67.633	60.833	6.800	2027
IEB	4,328	31.533	(2.866)	28.667	25.799	2.867	2027
IEB	3,658	86.000	(7.818)	78.182	70.364	7.818	2027
IEB	HE+0,491	32.000	(2.667)	29.333	26.667	2.667	2028
IEB	HE+0,512	51.000	(3.000)	48.000	45.000	3.000	2033
IEB	4,364	90.000	(5.000)	85.000	80.000	5.000	2034
IEB	4,375	90.000	(5.000)	85.000	80.000	5.000	2034
Banku sindikatzea	(a) SE+1,5	357.054	(9.732)	347.322	333.574	13.748	2032
ZORPETZEA, GUZTIRA		812.020	(42.883)	769.137	722.237	46.900	

(a) % 80 swap bidez dago babestua, % 4,03koa ken ES.

HE: Hiruhileko Euriborra

SE: Seihileko Euriborra

2017ko abenduaren 31ko Egoeraren Balantzean duen isla honakoa da:

Euroak milakotan			
EGOERAREN BALANTZEA	Zorrak epe motzera	Zorrak epe luzera	GUZTIRA
Maileguak	46.902	722.237	769.139
Zorpetutako interes iraungi gabeak	8.094	-	8.094
Kreditu erakundeekiko zorrak guztira	54.996	722.237	777.233
Finantza deribatuak	-	52.656	52.656
Epe luzeko bestelako zorrak guztira	-	52.656	52.656



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Bidegi, SAK interes tipoaren gaineko swap finantzarioak baliatzen ditu banku sindikazioaren maileguan interes tipoaren fluktuazioen aurrean duen arriskua kudeatzeko. Eragiketa hauekin lotutako Ondare Garbiaren eta Egoeraren Balantzeko Pasiboaren kontuak honako hauek dira:

	Euroak milakotan		
EGOERAREN BALANTZEA	2017	2016	Bariazioa
Balio aldaketagatiko doiketak.....	(51.646)	(64.047)	12.401
Finantza deribatuak.....	52.656	65.057	(12.401)
Bestelako txikiago batzuk.....	1	1	-
GUZTIRA	1.011	1.011	-

- Europako Inbertsioen Bankuko maileguez GFaren abala dute eta 2017ko ekitaldi itxieran 421,8 milioi euroren ordaintzeko saldoa dute (ikus B.10).

Bidegi, SAREN finantza gastuak 2017ko ekitaldian honako hauek dira:

	Euroak milakotan		
	Emaitzetara egotziak	Kapitalizatuak	GUZTIRA
Maileguengatiko finantza gastuak.....	7.864	20.135	27.999
Swapengatiko finantza gastuak.....	1.666	10.332	11.998
GUZTIRA	9.530	30.467	39.997

D.5 LANGILERIA-GASTUAK

Hona hemen merkataritzako foru sozietateen 2017ko ekitaldi itxieran Langile gastuen eta plantillaren xehakapena eta aurreko ekitaldiarekiko konparaketa:

	Euroak milakotan					
	Langileria-gastuak		Plantilla guztira		Goi Zuzendaritza	
SOZIETATEA	2017	2016	2017	2016	2017	2016
IZFE, SA	9.631	9.424	(*)154	(*)153	1	1
BIDEGI, SA.....	1.127	979	(**) 20	(**) 17	2	2
Etorlur Gipuzkoako Lurra, SA.....	480	477	9	9	1	1

(*) 2017/12/31n 12 langilek % 25en lanaldi partzialeko kontratuak dituzte (txandakako kontratuak); (2016an 10 langile ziren).

(**) Izendapen askeko 2 lanpostu barne hartzen dira, goi zuzendaritzako 2 lanpostuz gainera.

2017ko ekitaldian ordainsari-igoera % 1ekoa izan da.

D.6 HORNIDURAK ETA USTIAPENeko BESTE GASTU BATZUK

Saldo esanguratsuak dituzten merkataritzako bi sozietateentzat Enpresa Sektore Publikoaren 2017ko ekitaldiko “Hornidurak” eta “Beste ustiapen gastu batzuen” xehakapena honakoa da:

SOZietATEA	Euroak milakotan	
	IZFE, SA	Bidegi, SA
Salgaien kontsumoa	30	-
Lehengaien eta bestelako material ahikorren kontsumoa	1	-
Beste enpresa batzuek egindako lanak	7.409	-
HORNIDURAK	7.440	-
Errentamenduak	66	23
Aplikazioak, makineria eta ekipoen mantentze-lana.....	4.376	-
Konponketak eta zaintza	-	6.155
Profesional independenteen zerbitzuak.....	421	746
Telefonia eta teleprozesua	527	-
Banku zerbitzuak.....	-	1.222
Hornidurak	117	1.409
Kudeaket. bst gastu arrunt btz: A-8 eta AP-1-en manten. lan eta ustiap.	-	32.491
Merkataritzako eragik. ondorioz zuzkid. galerak, narriadura eta bariazioa.....	-	4.488
Beste kontzeptu txikiago batzuk	1.085	284
BESTELAKO USTIAPEN GASTUAK	6.592	46.818



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

D.7 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

2017AN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan (BEZa barne)

DESKRIBAPENA	Mota	Esleipen moldea	Esleipen zenbat.	Exekuz. 2017
IZFE, SA				
VPS multzoko produktuen lizentziak euskarritu eta mantentzea (3 urte).....	Zerbitzuak	PPN	192	64
KONTUA zergabilketaren kudeaketa integraleko informatika sistema.....	Zerbitzuak	Irekia	4.368	437
Kolor. inprim. digital aurr. zerb. eta makinak, lizentz. eta bst horn. (4 urte)....	Mistoa	Irekia	599	177
Plataforma hiperkonbergentea erostea eta zerbitzu eta mantentze-lanak.....	Mistoa	Irekia	236	236
Biltegiatze azpisisistema mantentzea (urtebete).....	Zerbitzuak	Irekia	205	-
BIDEGI SA				
GI-632 lanak amaitzeko proiekt. obra zuzendaritza. Zatia: Antzuola-Bergara...	Zerbitzuak	Irekia	1.959	679
Bidegiko Bezeroa Artatzeko Guneko eraikina zaharberritu eta urbanizatzea...	Obrak	Irekia	1.775	1.908
Errepide sarean ezponden txosten geoteknikoak idaztea, Bidegi (2 urte).....	Zerbitzuak	Irekia	187	49
AP-8an Itziarko bidegurutzearen orientazio-seinalearen kokal. eraik.proi.....	Obrak	Irekia	258	256
Efizientzia energetikoa hobetzeko lanak Andoain-Villabona zatia.....	Obrak	Irekia	1.077	940
Zarauzko kobrantza-guneetako instalazio elektrikoak berritzeko proiektua	Obrak	Irekia	1.539	230
AP-8an zoruaren egit. birgait., 0+000 y 7+500 kp artean Behobiarantz.....	Obrak	Irekia	1.497	1.165
AP-1 eta AP-8 lotuneko bide-adarrean lur-erazket. lur-jausia egonk.proi.	Obrak	PGPN	71	71
Maltzagan AP-1 eta AP-8 lotuneko bide-segurtasuna hobetzeko proiekt.....	Obrak	Irekia	3.327	-
Aldizk. azterk. geotekn. lanak eta ezponda-arriskua kudeatz. gailua jartzea ...	Zerbitzuak	Irekia	1.176	-

PPN: Publikotasundun Prozedura Negoziatua

PGPN: Publikotasunik Gabeko Prozedura Negoziatua

AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan (BEZa barne)

DESKRIBAPENA	Jatorri urtea	Esleipen zenbat.	EGIKARITZA			Egoera
			16.12.31	2017	17.12.31	
IZFE, SA						
ZERGA zerga kudeaketarako plataforma berria I. Fasea.....	2014	4.476	3.243	448	3.691	Egikaritzen
AM laguntza tekn. zerbitzuak, aholkularitza eta garapen informatikoa (4 urte)2015		a.p.	10.009	6.726	16.735	Egikaritzen
Microsoften lizentzia (4 urte).....	2016	608	170	202	372	Egikaritzen
Host ingurune eta ingurune banatuko makinak, progr. eta zerb. (3 urte)..	2016	10.337	-	4.131	4.131	Egikaritzen
GFAREN eta IZFEren egoitzen artean fibra optiko bidezko lotura (4 urte) ...	2016	599	-	150	150	Egikaritzen
BIDEGI, SA						
Obretan segurtasuna eta osasuna eta Lan arriskuen prebentzioa (4 urte)..	2011	a.p.	343	45	388	Amaitua
2 urteko luzapena 2017ko abuztura arte.....		a.p.				
Bidegi proi. finantziazioaren egituraketan lag. tekn. (3 urte).....	2013	547	294	15	309	Amaitua
TAG gailua Deskontu Planen erabiltzaileak (4 urte).....	2014	1.220	1.174	305	1.479	Egikaritzen
Espediente aldatua 1.....	2015	54				
A-15 aireztatze sistema berritzea, efizientzia energetikoa hobetzea.....	2015	1.492	1.053	554	1.607	Amaitua
GI-632 Antzuola-Bergara bide-zatiko saihebidetako lanak bukatzea.....	2016	(*41.724	-	13.420	13.420	Egikaritzen
GLH goi mailako sareko azpieg. kobr. sistem. proi.,obra, manten.	2016	19.293	-	3.882	3.882	Egikaritzen
Espediente aldatua 1.....	2017	364				
Bidegik AP-1 eta AP-8an kudeatutako inst. elektr. hornid. eta lag. tek. horien efizientzia energetikoa hobetzeko (2 urte).....	2016	3.684	701	1.674	2.375	Egikaritzen
ETORLUR GIPUZKOAKO LURRA, SA						
Aian abelgorrien haragiaren testatze zentroan instalazioak handiagotzea.	2016	(*417	60	399	459	Amaitua
Espediente aldatua 2017.....		42				
La Floridan hirigintza jard. progr. idaztea, birpartz. proiekt. eta urban.	2016	116	23	-	23	Egikaritzen

a.p. Aleko prezioetan esleitua

(*) BEZik gabeko kopurua subjektu pasiboaren inbertsioa duelako.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

E. FORU FUNDAZIOAK

E.1 LANGILERIA-GASTUAK

Hona hemen Sueskola Fundazioko langile-gastuak kontzeptuen arabera xehakatuak (Kirolgi Fundazioak ez du langilerik) eta plantilla ekitaldi itxieran:

	Euroak milakotan			
	Gastua		Plantilla erreala 12-31n	
	2017	2016	2017	2016
Lan kontratupeko langileen ordainsariak.....	458	439	12	12
Gizarte Segurantza	128	120		
Bestelakoak	-	1		
LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA	586	560	12	12

2017ko ekitaldian ordainsari-igoera % 1ekoa izan da.

E.2 MONETA-LAGUNTZAK

Kirolgi Fundazioak bi jarduera-lerro garatzen ditu, Patronatuak 2017an onartutakoak eta guztira 2,2 milioi euroren gastua izan dutenak:

- 2017an kategoria gorenetan lehiatzen diharduten taldeak dituzten Gipuzkoako clubei laguntza-lerroak, guztira 2 milioi euroren gastuarekin. Laguntza hauek jaso dituzten clubak 19 izan dira eta talde onuradunak, berriz, 31.
- Banaka eta taldean parte hartzeko modalitateetan diharduten kirolariei laguntza-lerroak, 214.434 euroren gastua eragin duena. Laguntza-lerro honek bi jarduera-atal ditu:
 - Kirol-jarduerarako laguntzak (80 onuradun).
 - Prestakuntza akademikorako emandako laguntzak (57 onuradun).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO 2017KO EKITALDIAREN KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK EGINDAKO ALEGAZIOAK

Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2017ko ekitaldiko Kontu Orokorrari egindako fiskalizazioaren emaitzei erantzuna ematearren, eta otsailaren 5eko 1/1998 Legearen 13. artikuluan zehaztutakoa betez, txosten honetan aurkezten ditugu aipatutako emaitzei dagozkien alegazioak eta justifikazioak.

II. IRITZIA

II.1 FORU SEKTORE PUBLIKOA OSATZEN DUTEN ERAKUNDEEK LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

1. GFAk uste du bertako Giza Baliabideetako Plan Estrategikoaren arabera, borondatezko erretiroagatik, ezintasun iraunkorragatik eta administrazio publikoko langile izateari uko egiteagatik 2017an 34 langileri guztira 1,1 milioi euroren zenbatekoan ordaindutako primak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsitako laneko irabaziak direla. Plan horrek ez du egiaztatzen Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 51. artikuluaen arabera, jokamolde horiek kaleratze kolektibo eta arrazoi objektiboengatik kaleratze edo kargugabetzeekin berdintzen utziko lukeen arrazoirik egon denik, zeinaren kalte-ordainak badauden PFEZetik salbuetsita, urtarrilaren 17ko 3/2014 FAren 9. artikuluaen arabera.

ALEGAZIOA:

Diputatuen Kontseiluaren 2013ko urriaren 15eko Erabakiaren bidez (urriaren 17ko GAO, 199. zenbakia) aldatu ziren Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Baliabideen Plan Estrategikoaren Lehenengo Tituluko II. Kapituluaren jasotako 2.4 eta 2.5 puntuak; plan hori onartu zen Diputatuen Kontseiluaren 1998ko urtarrilaren 7ko Erabakiaren bidez, eta aldatu zen 1998ko martxoaren 24ko eta 2009ko uztailaren 7ko Erabakien bidez.

Zehazki, neurri hauek arautzen dira bertan:

- 2.4 neurria.- Gipuzkoako Foru Aldundiko funtzionarioen edo lan kontratupeko langile finkeko erretiro aurreratua.
- 2.5 neurria.- Gipuzkoako Foru Aldundiko enplegatu publiko izateari uko egite saritua.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren laneko etekin gisa sartu zituen (190 eredu) 2017an ordaindutako borondatezko erretiroagatik sariak eta uko egite sarituak, eta salbuetsizat jo ziren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauak xedatutakoaren arabera. Izan ere, foru arau horretan ezarrita dagoenez, salbuetsitakotzat jotzen dira herri administrazioek giza baliabideen arloan egiten dituzten plan estrategikoen ondorioz langileak kargugabetzeagatik jasotako kalte-ordainak.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Baliabideen Plan Estrategikoak, 2009ko uztailaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako aldaketak, berariaz aipatzen ditu foru erakunde honetako plantilla birdimentsionatzeko neurriak, eskura dituen giza baliabideak ordenatu eta planifikatzeko xedez onartutakoak. Aipamen horrek lotura garbia du langileen Estatutuko 51. artikuluan aurreikusitako antolakuntzazko kausekin, irazpen kolektiboaren figura arautzen baita bertan.

Beraz, antolakuntzazko kausa hori egoki egiaztatzen da Giza Baliabideen Plan Estrategikoan, eta beraz, bat dator langileen gastuen arloko araudiarekin.

2. GFAk bost kontratu iraungi ostean gizarte zerbitzuak ematen jarraitu du, 3,6 milioi euroren gastua dutenak, kontratazio-araudiaren arabera eskagarri zitezkeen esleipen prozedura irekiak saihestuta; prozedura horiek gerora abiarazi dira eta 2018ko eta 2019ko ekitaldietan esleitu dira.

Deskribapena	Zenbatekoa	Euroak milakotan		
		Kontratu zahar. iraung.-data	Lizitazio data	Kontrat. berriaren formal.-data
Haur eta nerabe babesgabei laguntza eta balorazioa.....	1.221	2017ko martxoa	2017ko abuztua	2018ko otsaila
Gizarte Larrialdietako foru zerbitzua.....	511	2016ko uztaila	2017ko azaroa	2018ko maiatza
Donostian Loistarain eta Zarategiko egoitza zentroak.....	1.003	2017ko iraila	2018ko martxoa	2018ko uztaila
Beasain eta Zizurkilgo egoitza zentroak.....	611	2017ko maiatza	2018ko martxoa	2018ko uztaila
Donostian Elizaran desgaituen egoitza	207	2017ko abuztua	2018ko abuztua	2019ko martxoa
2018an eta 2019an esleitutako gizarte zerbitz. guztira	3.553			

ALEGAZIOA:

Haurren eta nerabeen babesgabetasun egoerak baloratzeko proposamenak egiteko laguntza teknikoaren zerbitzua 2017ko ekainaren 18ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaz onartu zen eta 2017ko uztailaren 25eko Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean (DOUE) argitaratu zen.

2017ko abuztuko lizitazioko lehen egunetan, lehendabizi, kontratazio arloko errekurtsio berezi bat aurkeztu zen espedientearen kontra 2017ko abuztuaren 18an (izapidetzea etenda gelditu zen Kontratazio alorreko errekurtsioetarako Foru Auzitegiaren 2017ko irailaren 8ko ebazpenaren bidez) eta, bigarren, merkatu unitaterako oztopo edo barreren inguruko informazio eskaera bat aurkeztu zen.

Bi inguruabar horiei gehituz gero kontratu bateratu bat zela, kontratuaren formalizazioa 2018ko otsailaren 1era arte atzeratu zen.

Foru larrialdien foru zerbitzuari buruzko kontratua 2014an formalizatu zen eta 2014, 2015 eta 2016ko ekitaldiak arautu zituen. Kontratazio espediente berriaren prestaketa bat etorri zen kontratuaren kudeaketaren ardura zuen departamentuko zerbitzuaren berregituraketarekin eta, horregatik, atzerapena egon zen espedientearen kudeaketan;



azkenean, 2017ko uztailaren 26an onartu zen. Kontratatu beharreko zerbitzuaren definizioan zuzendu ezinako akatsak antzeman zirenez, hasitako kontratazio espedientearen atzera egitea onartu zen; horrela, beste kontratazio espediente bat onartu zen, aurreko espedientearen akatsak zuzentzen zituena. Lizitazio berri horren ondorioz, kontratua 2017ko apirilaren 12an formalizatu zen.

Donostiako Loistarain eta Zarategi egoitza harrerako zentroen eta Beasain eta Zizurkilgo egoitza harrerako zentroen kontratazioari dagokionez (lau zentro guztira), zentro horiek guztiak bideratuta daude babesgabetasun egoeran dauden adingabeen arretarara. Donostiako Loistarain eta Zarategi egoitzen kudeaketari buruzko kontratua 2017ko irailean amaitu zen, eta Beasain eta Zizurkilgo zentroen kudeaketa kontratua, berriz, urte bereko maiatzean.

Kontuan hartuta lau zentroek antzeko xedea zutela eta unitate organiko bera arduratzen zela haien kudeaketaz, proposatu zen kontratazio berria espediente bakar batean izapidetzea, bi sortarekin. Erabaki horren ondorioz, geroago amaitzen zen kontratuari zegozkion datak hartu behar izan ziren kontuan eta ez lehenengo kontratuaren amaiera data.

Donostiako Elizaran zentroko eguneko zentro, laguntzako etxebizitza eta apartamentu babestuen baliabideei dagokienez, kontuan hartuta apartamentu babestuen zerbitzua erantsi zitzaiola kontratuaren xedeari eta zerbitzu hori udalaren eskumenekoa dela, Donostiako Udalaren osoko bilkuraren onarpena behar zen (onarpen hori 2018ko uztailaren 19an eman zen); nolana ere, denboraldi horretan Udalak ez zien uko egin zentroko apartamentu babestuei. 2018ko uztailaren 24an, astebete beranduago, GFAk espedientearen lizitazioa onartu zuen.

Lizitazio iragarkia DOUEra bidali zen 2018ko abuztuaren 10ean. Hala ere, lizitazio agirien kontrako kontratazio arloko errekurtsio berezia jarri izanaren iragarkia jaso zen 2018ko abuztuaren 14an, eta, ondorioz, espedientearen izapidetzea etenda gelditu zen Kontratazio alorreko errekurtsioetarako Foru Auzitegiaren ebazpen bidez.

3. Bertatik programaren gizarte zerbitzuaren prestazioa, guztira 717.756 euroren zenbatekoduna, esleipen prozedura irekiari dagozkion baldintzak saihestuta gauzatu da eta kontratazioko araudian finkatutako publikotasun eta lehia printzipioak urratuta.

ALEGAZIOA:

Bertatik programa, hain zuzen, familia berriro elkartzeko prozesuetara zuzendutako programa bat da, egoitza harrerako baliabideek kudeatutakoa. Lan egiten da harrera egoitza batean zaintza duten haur eta nerabeekin, eta adingabe horiek, zentro batean harreran egon eta Kasu Planaren ebaluazioa egin ondoren, familia berriro elkartzeko prozesura bideratzen dira. Programa horren barruan, adingabeak hasiera ematen dio pixkanaka bere familia



biologikoarekin egokitzeko faseari. Horretarako, zentroan plazari baja eman ondoren, Bertatik programa aktibatzen da. Adingabearen erreferentziako zentroko hezitzaile talde berak jarraitzen du kasuarekin eta prozesuarekin. Zentroko hezitzaile tutoreak erreferente izaten jarraitzen du. Horrek esan nahi du jarraipen prozesu bat dagoela zentroko egonaldiaren eta Bertatik programaren artean. Esku hartzearen jarraipena ezinbestekoa da ereduaren eraginkortasunerako, eta praktikan horrek esan nahi du adingabea harreran egon zegoen zentroko entitate kudeatzaileak gauzatu behar duela Bertatik programa.

Prozesu hori pixkanaka gauzatzen da eta, beraz, bisitak egiten dira etxera, bilerak familiarekin, koordinazio lana egiten da lehen mailako gizarte zerbitzuekin eta eskolaratzeko baliabideekin, gazte justiziaren zerbitzua mantentzen da, kasuan inplikaturako beste programa eta profesional batzuk ere aktibatuta mantentzen dira epaitegira, polizia-etxera, ospitaletara eta gizarteratze zerbitzuetara laguntzeko, larrialdiko egoerak konpontzeko, eta adingabearen egunerokoan gertatzen diren aparteko egoerei aurre egiteko.

Familia elkartzera bideratutako Bertatik programa orain urte batzuk jarri zen martxan eta emaitza onak izan ditu; izan ere, egoitza harrerako zentro batean egon den adingabeari bere familiarekin bueltatzeko prozesua gainditzen laguntzen dio, prozesu horiek egituratuta eta fokalizatuta daudelako eta helburu zehatzak dituztelako eta, gainera, etxeko elkarbizitzan ematen diren aurrerapausoak ebaluatzeko eta finkatzeko baliagarri den ibilbide bat dutelako. Erreferentziako zentroko hezitzaile talde berak jarraitzen du prozesu horretan esku hartzen eta hori da, hain zuzen, elementu garrantzitsuena eta adierazgarriena. Horregatik, talde berak garatu behar du programa hau.

Azkenik, 2018ko urriaz geroztik, Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuak ez du Bertatik programa familia elkartzeko eredu gisa erabiltzen egoitza harrerako kasuetan.

BIDEGI, SA

4. Berriaz gaitutako kanpoko enpresa batek 2017ko ekitaldian hiru lanpostu izaera mugagabearekin zuzkitzeko egindako hautaketa euskarritzen duen dokumentazioak ez du egiaztatzen uzten berdintasun eta merezimendu printzipioak bete diren.

ALEGAZIOA:

BIDEGI SA, Sozietate Anonimo erako enpresa publiko gisa alor publikokoa da baina administrazio publiko kontzeptuan ez da sartzen. Horregatik pertsonala kontratatzerakoan honoko edozein eredu aukera dezake:

- 1.- Kontratazioa kanporatu publizitate, berdintasun, merezimendu eta konkurrentzia beteaz eta aukeraketa hori egiteko behar adinako kualifikazioa duen enpresa baten esku utzi.
- 2.- Kontratazioa barnean egin, pertsonalaren aukeraketa egiteko prozedura arautuko duen oinarriak publikatuz eta aukeratzeko prozedurako fase bakoitzaren amaieran akta jasoko duen pertsonal batzordea osatuz. Eredu hau ez da inola ere parekagarria enplegu publikorako eskaintza batekin.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Bi ereduak baliogarriak dira eta konkurrentzia, merezimendu, berdintasun eta publizitate oinarriak betetzen dituzte. Bat edo bestea aukeratzea hainbat elementuren mende dago, hala nola kontratatu behar diren langileen kopurua, lan poltsak, enpresa batzordea e.a. dauden edo ez.

Kasu honetan, hiru kontratazio bakarrik zirenez eta antolaketa ereduaren aldaketak eta eginkizun berriak hartzeko beharrean oinarrituta zegoenez eta inolako lan poltsarik sortuko ez zenez, pentsatu zen eredu egokiena zerbitzua kanporatzea zela.

Bestalde, BIDEGI SAK, sortu zenetik, pertsonal aukeraketa guztiak metodo honen bidez egin ditu eta gehiago haundi bat hautaketa enpresa berdinarekin.

Guzti horrengatik 2016ko abenduaren 15ean BIDEGI SAK hautaketa enpresari eskatu zion ekonomiko-finantzario jarraipenerako koordinatzaile bat eta lanen, mantenduaren eta kontserbazioaren jarraipenerako bi teknikoren aukeraketa egitea. Aurkeztu ondoren, 2016ko abenduaren 30eko ebazpenaren bidez onartu zen.

Prozedura guztia egin ondoren autaketa enpresak 10 curriculum entregatu zizkion BIDEGIri, azken txosten batekin non adierazten den aukeraketa prozedura nola egin zen.

Txosten honek aukeraketaren jarraipena egiteko aukera ematen du prozesuaren fase ezberdinei trazabilitatea emanaz eta egiaztatuz, zalantzarik gabe, konkurrentzia, merezimendu, berdintasun eta publizitate oinarriak bete zirela.

Azken fasean, BIDEGIIn zuzendaritzak eta plantillako kideak egindako elkarrizketa pertsonaletan, aukeraketa enpresak, lan postuetarako eskatzen ziren gaitasuna eta egokiera baloratuz egindako proposamenak baieztatzeaz gain, zegoen lan taldean sartzea aztertu zuen.

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

III.A GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

III.A.2 ZERGA-SARRERAK

- *GFAk 2017ko ekitaldian baja eman ditu iraungi direlako bost zorduni dagozkien zerga-zorrrak, guztira 3,1 milioi euroren zenbatekoan, iraungitzea eragozteko zerga-araudian aurreikusitako jarduerarik batere egin ez dela; berebat, egoera berbera gertatzen da alde aurretik kobraezintzat jo ziren bi zordunekin, guztira 1,1 milioi euroren zenbatekoan, zerga-araudian aurreikusitako administrazio erantzukizunaren deribazioa abiarazi ez dela.*

ALEGAZIOA:

Atal honetan jasotako kasuak banan-banan aztertzen hasi aurretik, argi utzi behar da, ezen, kasu guztietan, araudiak baimentzen zituen jarduketa guztiak burutu zirela zordun nagusiaren aurka. Hala ere, burututako jarduketek ez dute lortu zorren preskripzioa eragozte.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Deribatutako erantzukizunari dagokionez, deribazio irizpideak kudeaketa mailako erabaki baten ondorio dira, non kontuan hartzen baitira deribatutako zenbatekoa, zorra berreskuratze arrakastari buruz eginiko aurreikuspena eta, jakina, Zerga-bilketa Zerbitzuaren baliabide tekniko eta materialak.

Alde horretatik, fiskalizazio txosten honetako atal honen xede den kudeaketa hobetzeko, bere garaian zeuden irizpideak eta baliabideak eta hartutako neurri zuzentzaileak jarri dira agerian, eta orain ere berriz adieraziko dira.

Aipatutako zordunak aztertuko ditugu orain:

- **1go espedientea:**

2013ko apirilaren 25ean, Beasaingo bi trasteleku bahitzeko dilijentzia jakinarazi zen; trastelekuak 7.000 euroan eta 8.000 euroan baloratu zeuden, gutxi gorabehera. Zerga-bilketa Zerbitzuaren zereginei buruzko erregistroetan, "2017ko Ondasun Higiezin Luzapenak" dokumentazioan, 2016ko abenduan igorritakoan, aipatutako trastelekuen bahitura 2017ko maiatzaren 20a baino lehen luzatzeko zeregina agertzen da. Hala ere, luzapena ez zen gauzatu, baina egin izan balitz ere, horrek berez ez zukeen zorraren preskripzioa eteteko balio izango. Gainera, bahitura luzatzeak ez zukeen zentzurik izango, GFA-ren bahiturak "G" eta "E" hizkiekin idatzi baitziren, eta horrek esan nahi du alde aurretik beste karga batzuk ere bazituztela; beraz, trastelekuen balio urria kontuan hartuta, aipatutako ondasunak exekutatzeko saio oro eraginik gabea izango zen.

Beraz, preskripzioa eten egingo zuen beste jarduketarik ez zen espediente honetan egin, zerga-bilketari inongo arrakastarik ekarriko ez lioketen lanak eta kostuak sorraraziko zituelako horrek.

- **2.espedientea:**

2003ko abenduaren 29an, sozietate zordunaren "ordainketak eteteko" prozedura abian jartzeko autoa eman zen. Prozedura 2017ko urtarrilaren 24an amaitu zen, eta aipatutako likidazioaren preskripzioa prozedurak iraundako ia 14 urte horiek pasa ondoren gertatu zen.

Ordainketak eteteko prozeduren kasuan (konkurtsu prozedurak gaur egun), egoitza judizialean zegoen likidazio prozedura amaitutzat jotzen ez zen bitartean, exekuzioak prozeduratik bereiztea ez zen haizu. Hori dela eta, askotan, zorraren preskripzioa, ordainketak eteteko prozedura hasteko adierazpenaren ondoren gertatzen zen.

Gure kasuan, behar adinako masa aktiborik ez egoteagatik prozedura amaitutzat jo zuen autoak, hasi eta handik 13 urtera, zorra kobratzea ezinezkoa zela xedatu zuen. Gaur egun, indarrean dagoen konkurtsu legearekin, horrelako egoerarik ez da gertatzen.

Beraz, preskripzioa etengo zukeen beste inongo jarduketarik ez zen espediente honetan egin, indarrean zegoen araudiak mota honetako egoera zehatzetan diru bilketako jarduketarik egitea eragozten zuelako.



- **3.espedientea:**

2010eko irailaren 13an, Donostiako Merkataritza arloko Epaitegiak emandako autoa dela eta, enpresaren eta bere partaidetzapeko sozietatearen baterako konkurtso prozedura hasi zen.

Donostiako Merkataritza arloko 1. zk.ko Epaitegiak irailaren 15ean emandako 248/2011 Epaiak dagokion Hitzarmen Judiziala onetsi zuen, ARRADA 2000, S.L. konkurtsopeko entitateak hitzarmen hori egina baitzeukan, horrek % 25eko kita bat eta kreditu arrunta ordaintzeko 5 urteko luzapen bat ekarri zizkion; ordainketa 2017an bukatu zuen, 2015ean bukatu behar bazuen ere.

Hamarkada honen hasieran, konkurtsoez arduratzen ziren merkataritza arloko epaitegiek jarraitzen zuten irizpideak, ordura arte adostutako ebazpenak zituen abiapuntu. Ebazpen hauekin bat eginik:

- Hitzarmena indarrean zegoen bitartean, hitzarmenaren pean ez zeuden zorrak exekutatzear arduratu behar zirenak merkataritza arloko epaileak ziren.
- Hitzarmena indarrean zegoen bitartean, merkataritza arloko epaileek ez zuten baimentzen bereizitako exekuziorik egitea masaren aurkako zorren kasuan.

Auzitegi Gorenaren apirilaren 9ko 237/2013 Epaiak (2013\3685 EJ) atera zenetik aurrera, ordea, Auzitegi Gorenak 5. zk.ko Zuzenbidezko Oinarrian zera argitu zuen, masaren aurkako kredituak «konkurtsotik kanpo eginiko exekuziorik ezin izango duela justifikatu, hitzarmena betetzeko fasean egon ezik (KL, 133.2 art.)". Auzitegi Gorenak abenduaren 12an emandako 711/2014 Epaiak (2014\6561 EJ) epai hura berretsi zuen, eta 9 zk.ko Zuzenbidezko Oinarrian honela dio: "Egia esan, masaren aurkako kreditu exekuzio bat onar daitekeen egoera bakarra da hitzarmenaren onespenerekin zabaltzen dena, non indarrrik gabe uzten baitira konkurtso deklarazioaren ondorioak (KL, 133.2 art.). Konkurtso kredituak ez ordaintzeak hitzarmena hutsaltzea eta likidazioa zabaltzea ekarriko lukeen bezala (KL, 140. artikulua), masaren aurkako kredituak ez ordaintzeak horien ordainketaren gaineko erreklamazioa ekarriko luke eta, beharrezkoa izanez gero, baita aginduzko exekuzioa ere. Horrez gain, hitzarmena ez betetzeagatik ekintza bat eta likidazioa irekitzeko prozedura bat ere justifika litzake."

Dena den, exekuzio hau zein jurisdikziotatik burutu behar zen eztabaidagai izan da orain dela gutxi arte. Balio beza adibide gisa Gatazka Epaitegi Jurisdikzionalak 2014ko urriaren 6an emandako Epaiak (EJ\2015\1246), edo arestian, Gatazka Epaitegi Jurisdikzionalak 2016ko abenduaren 5ean emandako Epaiak (EJ\2017\2358), non honako hau adierazten baita: "Hitzarmena epai irmoz behin onetsita, Merkataritza arloko Epailearen eskumena amaitu egiten da hitzarmenaren pean ez dauden kredituei dagokienez, eta beraz, baita kreditu pribilegiatuei dagokienez ere; horrenbestez, hitzarmena onetsi eta gero, hitzarmen horren pean dauden kredituak kobratzea xede duten jarduketei dagokienez ere, Merkataritza arloko Epaileak ez du eskumenik".

Ikusten denez, 2016. urte bukaera arte, artean ere baziren zalantzak, ez baitzegoen garbi masaren aurkako zorrak nola exekutatu behar ziren konkurtsoan.



Nolanahi ere, 2017ko ekainean adierazitako preskripzioa egiatan 2016. urtean bete zen; eta 2016. urteaz geroztik hartu ziren aurreko paragrafoan adierazi diren neurriak, mota horretako egoerarik berriz gerta ez zedin, hain zuzen.

• **4. espedientea:**

Lehendabizi, argi utzi behar da, ezen, espediente honetan zordun nagusiaren hainbat ondasun bahitzea lortu zela, besteak beste, hainbat higiezin, zeinen aurka hasi baitzen nahitaezko besterentze fasea jendaurreko enkante bidez, baina ezin izan zen gauzatu, zeren, Foru Ogasun honen aurretiko beste karga batzuk bazeudenez, horiek exekutatzeari ekin baitzioten, eta BBVAri esleitu zizkioten ondasunak. Hau da, zordun nagusiaren aurrean egin beharreko jarduketak guztiak burutu ziren zorra premiamendu prozeduraz kobratzeko (GLHko ZFAren III. Tituluaren V. Kapitulua 2. Atala); hala eta guztiz ere, zorra kobratzea ez zen lortu.

Bestalde, txosten berean, 2017ko martxoan eginikoan, Zerbitzuko teknikariak azaltzen du premiamenduaz bestelako beste prozeduraren bat zabaltzeko ziorik egon zitekeela, esaterako, erantzuleen eta oinordekoen kontrako prozedura (GLHko ZFAren III. Tituluaren V. Kapitulua 3. Atala). Zehatz esanda, erantzukizun subsidiarioa adierazteko prozedura hasteko aukerarik egon zitekeen, agian.

Halaber, komeni da gogoratzea erantzuleen aurkako prozedurak berekin dakarrela erantzukizuna adierazteko administrazio auto bat ematea, beste pertsona batzuk edo beste entitate batzuk ordaintzera behartuta daudela adierazteko, ZFAren 41.etik 43.era bitarteko artikuluetan ezarritakoaren arabera (ZFAren 178. artikulua).

ZFAren 179. artikulua arabera, prozedura berri honek alegazioak jaso ditzake ustezko erantzule berriaren aldetik, eta egoki deritzon dokumentazio guztia aurkez dezake hark. Geroago, erantzukizuna adierazteko autoak barne sartu behar ditu:

- deribazioaren zioa eta barne hartzen dituen likidazioak.
- egintza horren aurka jar daitezkeen errekurtsioak, errekurtsio hauek aurkez daitezkeen organoa, eta horiek aurkezteko epeak.

Erantzukizuna deribatzeak akordioaren aurkako errekurtsioan edo erreklamazioan aurkaratu daiteke:

- Gaitzen duen egitatezko baldintza (ZFAren 41.etik 43.era bitarteko artikuluetan jasotakoetatik). Azpimarratu behar da, ezen, erantzukizuna administratzaileei deribatzen zaien kasuan, eta ANak 2008ko irailaren 22ko epaian adierazten duenez, doktrina bateratzeko "ondorioztatu behar dela, ezen, administratzailearen erantzukizuna ezin dela ulertu entitateak jarduera objektiboki eteten duenean, aipatutako erantzukizuna ezin baita soilik deribatu zerga zor batzuk egoteagatik, baizik eta berau oinarritu behar dela gutxienez administratzailearen jokabide arduragabearen, sozietateak bete gabe dituen zerga obligazioak betetzeko beharrezkoa den diligentszia ez egiteagatik eta, hala badagokio, sozietatea desegin eta likidatzeko neurririk ez hartzeagatik, zeren kasu horretan zerga obligazioa ez betetzearen erantzukizuna hark izango baitu sozietatearekin batera, eta hala bada, axolagabekeria hori egotzi beharko

zaio, baina ez obligazioak sortzen diren unean obligazio horiek betetzeari dagokionez, geroko jokabideari dagokionez baizik".

- aipatutako baldintzak barne hartzen dituen likidazioak. Bestela esanda, erantzukizuna deribatzeagatiko betebeharreko berriarentzat den-dena hasten da berriro eta likidazio deribatuen gaiaren muina errekurritu dezake.

Erantzuleak ordainketa egiten ez badu borondatezko epearen barruan, eta zorra eteten edo luzatzen ez badu, zorra berriz exijituko da premiamendu prozeduraren bitartez. Erantzule subsidiarioaren aurkako jarduketa guztiak berriro bultzatu beharko genituzke (trabatu daitezkeen ondasunak eta eskubideak lokalizatze aldera), zorra kobratu ahal izateko.

1. Kaudimenik gabeko zordun aitortpena egin behar da; hori dela eta, premiamendu prozeduran, zordun nagusiarekin burutu beharreko jarduketa guztiak burutzea derrigorrezkoa da. Zor hauengatik deribazio prozedura hasi behar zeneko urteetan, hauek izan ziren exekutibako kargudunak eta Zerga-bilketa Zerbitzuan zeuden goi mailako teknikariak espedienteak aurrera eramateko:

Ekitaldia	Exekutibako likidazio karguak	Pertsona kop.	Goi Tek. kop.
2012	119.471.925,84	23	2
2013	106.915.180,25	23	2
2014	127.754.427,37	23	2

Gainera, garai hartan ez zegoen deribazioak tratatzeko aplikazio informatikorik; beraz, lana oraindik gaitzagoa zen.

2. Prozedura berri bat zabaldu behar da; bertan probatu behar da egitatezko baldintza betetzen dela eta gutxienez jokabide arduragabe bat egon dela (prozedura hauek horregatik sortzen dituzte hainbeste auzi).
3. Erantzuleak kontuaren muinaren aurka errekurritzeko aukera zabaltzen zaio erantzulari; horregatik, espediente hauek ere auzi iturri izaten dira.
4. Zorra kobratzeko prozedura abiarazten da berriz erantzulearen aurka.

Aurreko guztia kontuan hartuta, erantzukizuna deribatze prozedura bat hasteko erabakia kudeaketa mailako erabaki bat da eta beharrezkoa da alderdi hauek guztiak bateratzea: derrigorrezko lan zama, deribazioak berekin dakarren zama, zorra berreskuratzeko arrakasta izateko aukerak eta aurreko zereginak aurrera eramateko giza baliabide eta baliabide material mugatuak.

2016. urtetik aurrera neurriak hartu dira erantzukizuna besterenganatzeko espedienteen izapidetzea hobetzeko; hots, giza baliabide eta material gehiago jarri dira. Une honetan 6 goi mailako teknikari daude espediente horiek kudeatzen eta aplikazio informatiko berria daukagu. Dena den, diren baliabideak direla eta, besterenganatzeko irizpideak zorraren kudeaketari dagozkion erabakiak izango dira; aintzat hartu beharko da lan karga, besterenganatzeko kopurua eta aurreikusitako arrakasta zorra berreskuratzeko.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Zehazki, espediente honetan, erantzukizun subsidiarioaren prozedura hau sozietatearen administratzaile gisa jasanarazi genitzakeen subjektuak sozietatea osatzen duten pertsona fisikoak eta pertsona juridikoak dira, Zerga-bilketa Zerbitzuan espedienteak izan dituzte –edo dituzte– irekita eta haien ondasun guztiak bahituta dauzkate, eta zenbait kasutan, baita exekutatuta ere, baina horrekin ez da lortu zeuzkaten zor guztien zenbatekoa kitatzea, eta horregatik, kaudimenik gabekotzat jo dira. Hau da, erantzukizuna deribatzen espediente berri bat pertsona hauen aurka zuzentzea erabat emaitzarik gabekoa izango zen, eta horregatik erabaki zen hori ez egitea.

- **5. espedientea:**

2017ko martxoaren 30ean, merkataritzako sozietate zorduna kaudimenik gabekotzat jo zen, haren ondarearen aurka egin zitezkeen jarduketa guztiak egin eta gero eta 451.632,04 euroko zenbatekoa ordaindu gabe utzi eta gero. Hau da, egin beharreko jarduketak egin ziren, noski, baina zordunak zorra kitatzeko behar adina ondarrerik ez zuenez, kaudimenik gabeko zordun aitortpena egitea beste biderik ez zen egon.

Behin kaudimengabetzat joz gero, hurrengo urteetan, merkataritza sozietatearen administratzailearen aurkako erantzukizun aitortpenaren prozedura abiatzeko aukera bazegoen, baina preskripzioak iraundako urteetan ondarrerik izan ez zuela egiaztatu ahal izan zen (lan errentak bazituela egia bada ere). Beraz, espediente honetan, erantzukizun subsidiarioaren prozedura jasanaraz genitzakeen subjektuak sozietatearen administratzaile gisa ez zeukan inongo ondarrerik zordun nagusia kaudimenik gabekotzat jo baino askoz lehenagotik, nahiz eta noizean behin lan errenta aldakorrek lortu. 2016. urtera arte pairatzen genuen baliabide eskasiak egitera behartzen gintuen kudeaketa irizpideei jarraituz, espediente hau ez zen egokitzen erantzukizunaren deribaziorako. Egia da, hala ere, gaur egun daukagun langileriarekin, erantzukizuna adierazteko espedientea abiaraziko genukeela.

Hau da, dagoeneko neurriak hartu dira espediente honetako egoerak eta horren antzekoak berriro errepika ez daitezen.

- **6 espedientea:**

2013ko azaroaren 19an, merkataritzako sozietate zorduna kaudimenik gabekotzat jo zen, haren ondarearen aurka egin zitezkeen jarduketa guztiak egin eta gero eta 201.587,18 euroko zenbatekoa ordaindu gabe utzi eta gero. Hau da, egin beharreko jarduketak egin ziren, noski, baina zordunak zorra kitatzeko behar adina ondarrerik ez zuenez, kaudimenik gabeko zordun aitortpena egitea beste biderik ez zen egon.

Kaudimengabetzat joz gero, hurrengo urteetan erantzukizuna adierazteko prozedura merkataritza sozietatearen administratzaileen aurka abiatzeko aukera bazegoen (administratzaileak senar-emazteak ziren). Preskripzioaren aurreko urteetan biek zeukaten ondarea egiaztatu ondoren, 2014. urtean ezkontideek ondare bat bazutela ikusten da; ondare hori dela eta, erantzukizuna adierazteko prozedura abiarazteko aukera egon zitekeen. Dena den, hurrengo urteetan, 2015ean eta 2016an alegia, eta baita 2017an



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ere, ezkontideek lan errentarik ez daukatela ikusten da –emaztearen errenta ez zen urtean 12.000 eurokoa izatera iristen– eta ez zeukaten beste inongo ondasunik: ez higiezinik ez ibilgailurik ez akziorik, e.a.

Beraz, espediente honetan, erantzukizun subsidiarioaren prozedura jasanaraz genitzakeen subjektuek sozietatearen administratzaile gisa ez zeukaten inongo ondarrerik 2015. urteaz geroztik; hori dela eta, erantzukizuna deribatzeke espediente bat haien aurka zabaltzeak ez zukeen inongo emaitzarik ekarriko, eta horregatik erabaki zen hori ez egitea. Egia da, hala ere, 2014. urtean jarduketaren bat bultzatzeko aukera izan genuela, baina, esan bezala, garai hartan genituen baliabideak oso urriak zirenez, lehentasuna ematen genien beste espediente batzuei.

Gaur egungo giza eta material baliabideen egoera dela eta, espediente honetan deskribatu den egoera berriz errepikatzea saihestu ahal izango litzateke.

- **7. espedientea:**

Espediente honekin gertatutakoa argi eta garbi deskribatuta dago teknikariaren txostenean, eta arazoaren jatorria honakoa da: hamarkada honetako lehen urteetan exekutiban sorrarazitako zorraren karga handitu zen bitartean, egoerari aurre egiteko giza baliabideek kopuru aldetik urriak izaten jarraitu zuten.

Nolanahi ere, 2017ko irailean adierazitako preskripzioa 2010. urtetik 2014. urtera bitartean gertatu zen hain zuzen, eta horretxegatik, horrelako egoerak berriro gertatzea eragotzi nahian, 2016. urteaz geroztik dagozkion neurriak hartu dira; batez ere, Zerga-bilketa Zerbitzuko lan taldea nabarmen handitu da, lehen ere azaldu dugun bezala.

- *GFAk ez ditu banaketara meneratutako diru-bilketa modura aitortzen berandutza errekaru eta interesen % 10,6, guztira 1,1 milioi euro egiten dutenak. Azken ekitaldian errepikatu den ehuneko hau antzina egin ohi zen balioespena da, banaketara meneratzen ez ziren zergek, orduan, eragiten zituzten kobrantzen kontzeptuan. Zerga hauek zehaztasunez identifikatu behar dira eta ez gutxi gorabeherako eran.*

ALEGAZIOA:

Tributuak kudeatzeko gaur egun erabiltzen den aplikazio informatikoak ez du 2018ra arte ahalbidetu errekaruak eta berandutze interesak zer tributuekin dauden lotuta automatikoki identifikatzea. Hala ere, 2018ko ekitaldian hainbat aldaketa egin da aplikazio informatiko horretan premiamendu errekaruak identifikatzea ahalbidetu dutenak, eta lanean jarraitzen dugu berandutza interesen identifikazioa 2019an lortu ahal izateko.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.A.3 ONDASUN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Administrazio kontratazioko espedienterik gabeko gastua

- *Hiru kontratazio-espediteren lizitazioa ez da behar hainbateko denboraz abiarazi esleipena aurreko kontratuek irauungi aurretik esleitu ahal izateko, nahiz horiek amaitu aurretik prestakuntza-ekintzak bideratu diren. Esleipena gauzatu arte egindako gastua 3,6 milioi eurorena izan da.*

ALEGAZIOA:

Aipatutako lehen espedientea *Txara 1eko egoitza zentroaren eta laguntza duten etxebizitzaren zerbitzu kontratua* da. Memoria zurigarria 2017ko ekainaren 15ean egin zen, kontratua amaitu zen hilabete berean. 2017ko uztailaren 11n lizitazio espedientea onartu zen, baina, proposamenak aurkezteko epe osoa oporraldiarekin bat etor ez zedin, epe hori 2017ko irailaren 18ra arte luzatu zen.

Kontratua, azkenean, 2018ko otsailaren 1ean sinatu zen, batez ere bi faktore hauengatik: bata, 4 sortatan banatutako kontratua zelako -desgaitasun alorrera bideratutako prestazioak (3 sorta) eta mendekotasun alorrera bideratutakoak (sorta 1), eta, bestea, instalazioan mantenimendua balioesten zelako. Ondorioz, bi zirkunstantzia horien balorazioetan teknikari askok parte hartu zuten. Gainera, zentroan lan egiten duten langileen lan egutegiak egokitu behar izan ziren, eta kontratu bateratua izateak eragindako itxaronaldia kontuan hartuta, kontratuaren formalizazioa 2018ko otsailaren 1era arte atzeratu behar izan zen.

Aipatutako bigarren kontratuari dagokionez, **Alai-Etxe eta Berio egoitza zentroetako zerbitzuari** (bi sorta ditu) aurreko espedienteari eman diogun argudio bera eman behar diogu. Txosten zurigarria 2017ko ekainean egin zen, eta 2018ko uztailaren 11n lizitatu zen. Beraz, aurreko kontratuan gertatutako inguruabar berdinak zeudenez, kontratua ezin izan zen formalizatu 2018ko otsailaren 1era arte.

B-13.2 eranskinean hirugarren tokian azaltzen den **txosten mediko eta psikologikoak egiteko laguntza teknikoaren zerbitzuari** dagokionez, 2015eko abuztuaren 1ean formalizatutako hasierako kontratua luzatu egin zen 2017ko uztailaren 31ra arte.

Gaur egun indarrean dagoen kontratuaren espedientea 2017ko uztailaren 26ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaz onartu zen, eta haren 2017ko ekainaren 21eko memoria zurigarria, beraz, kontratu amaitu baino hilabete bat lehenago egin zen.

Eskaintzarik aurkeztu ez zelako esleitu gabe gelditu ziren espedienteek argi uzten duten bezala, kontratuaren objektuaren ezaugarri nagusia bere konplexutasun teknikoa da. Departamentuak badaki oso zaila dela mota horretako kontratuetarako eskaintzak aurkeztea, eta kontratazio organoak hartutako erabakiari esker lortu zen proposamenen aurkezpen epea bat ez etortzea oporraldiarekin, 2017ko irailaren 25era arte luzatu baitzen. Eskaintzak irekitzeko eta balioesteko epea 2017ko urritik 2018ko urtarrilera bitartean ezarri zen.



III.A.4 DIRU-LAGUNTZAK

Diru-laguntza izendunak

- *2017-2019 aldirako emandako 300.000 euroren diru-laguntza batean (1. espedientea) ez da onartu gauzatuko diren jarduera eta ekintza zehatzak jasoko dituen 2017ko ekitaldirako urteko ekintza plana; honenbestez, ezin da egiaztatu plana bete denik urtekoaren 100.000 euroren ordainketaren agiriarekin. Bestalde, aurreikusitako hitzarmenaren gaineko jarraipena egiteko lanak ere ez dira gauzatu, egindako ekintzen eta erabilitako baliabideen erabilera ebaluatzekoak; honela, bada, diru-laguntzaren destinoaren justifikazioa enpresa onuraduneko langileek egindako orduak dira; ordea, emakida erabakian ez dago horren zuzentasuna egiaztatzen utziko duen inongo erreferenterik.*

ALEGAZIOA:

